

Katherine Mansfield

Lorategiko festa

euskaratzailea: Anton Garikano

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Anton Garikano.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1998

Jatorrizkoaren data: 1922

Katherine Mansfield euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=147>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=232>

HITZAURREA

Anton Garikano

Katherine Mansfield 1888an jaio zen Wellingtonen, Zeelanda Berrian, baina bai berarentzat eta bai bertako askorentzat Britainia Handia zen benetako amets-etxe eta helmuga.

Hamalau eta hamazazpi urte bitartean Londresen ikasi ondoren Zeelanda Berrira itzulirik, ez zuen etsi Ingalaterran bizitzen jarri zen arte, oraingoan betiko, 1908an. Bai hauetan eta bai ondorengo joan-etorrietan, ordea, badirudi ez zela inon pozik sentitu.

Zorion bila, noraezean ibili zen urteetan eta urteetan, eta bere gorputz herratua sarri erori zen ostatu eta hotel gelatan, laguntza eskaini ziotenen besoetan, goxotasuna eman ziotenetan... Zeelanda Berriko familiak eta bizi izan zen garaiak ez zuen ulertu eta barkatu K.M.-en ibile-ra heterodoxoa. Maitasun beharrak bultzaturik, ugari izan ziren berarekin harremanak izandako gizon eta emakumeak.

1909an George Bowdenen ezaguera egin — hark eman zion idazten hasteko modua *The New Age* aldizkarian—, eta harekin ezkondu zen, nahiz eta Garnet Trowellengandik haurdun egon. Laster bildu zen ostera Garnetekin, herriz herri ibili ohi zena musika jotzen orkestra batean.

Amak Alemaniara lagundu ondoren hango bainu-etxe batean erditzeko, haurra galtzeak nahigabe handia sortu zion. Han zegoela maite-mindu zen Floryan Sobieniowski itzultzaile poloniarrekin. Nonbait, hark ezagutarazi zion Txekoven obra, baina baita gonorrea erantsi ere. Garai hartan eritasun sendaezin eta izen txarrekoa, ondorio larriak eragin zizkion heriotza bitartean: oinaze latzak, bihotzeko ezinak... Alemaniako egonaldi hark inspiratu zion bere lehen liburua, *In a German Pension*, 1911n argitaratua.

Urte berean ezagutu bide zuen John Middleton Murry. Biak bat eginik maitasunari eta lanari esker —haren *Rhythm* aldizkarian hasi zen K.M. idazten—, aurrekotik bizi-alargundu eta Murry hartu zuen ondoan. Bere memorieta ageridenez, baina, beren harremana gorabehera askokoa izan zen. K.M.-ek askotan egozten zien

gizonei baldarrak izatea sentimendu mailan, kru-
delak, handinahiak, engainatzaileak...

Virginia Woolfe-kin ere tratu estua izan zuen
1916az gero, eta gertutik jarraitu zuten batak
bestearen lana. Izan ere, biak ziren zutabe tinko-
ak orduko emakumeen borrokan, tradizioak
agintzen zien zereginetik ihesi, gizonen maila
berdina nondik iritsiko.

D.H. Lawrence-aren lagun eginik, hark kutsatu
ziona, agi danean, tuberkulosia. Lehenez gain,
orduan eta gehiago gaixotu zen, eta diru estua-
sunak ere kalterako izan ziren.

Bere kontakizun laburrak, neurri handian,
bere txikitako bizimodu viktoriarren ispilu dira:
dotoretasun eta fintasuna kapelu eta blusa
berrien forma harturik, aldamenen mirabeak,
hipokondriazko ukituak, festak, lore koloretsuak,
afektazio itxurati bat... Azal horren azpitik, badi-
rudi K.M.-ek benetako sentimenduak agertu nahi
dituela, inguru hotz baten artetik distiratzen
duten argiuneak, instant batez piztu eta berehala
itzaltzen diren irudiak, hori dena hizkuntz ekono-
mia harrigarri batekin. Bertan balego bezala, ira-
kurleak bat egiten du momentu horiekin. Izan

ere, deskripzioak bikainak dira, zehatzak, bizitza darie. Hutsalak diruditen xehetasunek balio simboliko indartsua hartzen dute, betiere inoren barrua errotik aztertu nahian. Hori da, azken batean, K.M.-en ardura: giza jokabidearen berri ematea, bere kontraesan eta gordintasunekin, modu poetikoan.

1922an *Lorategiko Festa* argitaraturik, gehiago idazteko gauza ez eta osasun bila abiatu zen herriz herri. Frantziako Fontainebleaun hil zen, handik urtebetera, hogeita hamabost urte zituela.

BADIAN



Goizean goiz. Artean eguzkia atera gabe, itsasoko gandu zuri batek ezkututzen zuen Crescent badia osoa. Atzeko mendiak, sasiz gainezka, erdi itoan zeuden. Ez zegoen antzematerik haiek non bukatzen ziren eta non hasten ziren larre eta baserriak. Joanak ziren errepide hondartsua eta bestaldeko larre eta baserriak; han ez zegoen duna zuririk belar gorrixkekin; ezerk ez zuen markatzen zer zen hondartza eta non zegoen itsasoa. Gogor erori zen ihintza. Belarra urdin zegoen. Tanta handiak zeuden sasietan zintzilik, erori gabe; kirten luzeen gainean zegoen erasana toi-toi iletsu, zilartsua, eta bustitasunak lurrera makurtuta zeuzkan lorategietako ebaki-belar eta krabelin guztiak. Blaituta zeuden fuksia hotzak, eta ihintz perla biribilak zeuden iturri-belarren hosto zapalen gainean. Bazirudien itsasoak eraso zuela goxo-goxo ilunpetan, olatu

erraldoi bat etorri zela zeharka-zeharka... noraino? Gauaren erdian esnatuz gero, agian arrain handi bat ikusiko zenuen leihoan dardara egin eta ezkututzen...

«Aaa!», aditzen zen itsaso logaletua. Eta sasietatik erreka txikien hotsa etorri zen, jarioan, bizkor, arin, harri leunen artetik irristan, garozokoetan bildu eta gainezkatuz; eta tanta handiak aditzen ziren hosto zabaletan plastaka, eta beste zerbait —zer ote zen?—, nahaste eta astintze xume bat, adaxka baten etetea eta ondoren halako isila, non bazirudien norbait entzuten zegoela.

Crescent badiako ertzetik, arkaitz pila puskatuen artetik, artalde bat zetorren korrika txikian. Bil-bil eginda zeuden, artilezko mataza txiki bat mugimenduan, eta bizkor eragiten zieten hanka mehe makila antzekoei, hotzak eta isilak beldurtuta bezala. Atzetik artzain-zakur zahar bat, hankak hareaz estalita blai, lasterka zebilen, muturra lurrari begira, baina axolagabe, beste zerbaitetan pentsatzen bezala.

Orduan, arkaitz arteko atakan artzaina bera azaldu zen. Aitona ihar, tente bat zen, frisazko

zamarra tanta ñimiñoz josia, panazko galtzak belaun azpian lotuta, eta kapelu zabalaren ertzean eskuzapi urdin bat tolestuta. Esku bat gerrikoan sartua, besteak makila leun hori eder bati eusten zion. Eta oinez zihoala, patxada onean, oso goxo eta bizi egiten zuen txistu, goibel eta xamur itxurako txirula hots urruna. Zakur zaharrak zilipurdi bat edo beste egin eta erne jarri zen, bere arinkeriaz lotsatuta, eta pauso serio batzuk eman zituen nagusiaren ondoan. Ardiak aurrera zihoazen, lasterka-saio zalapartatsutan; marruka hasi ziren, eta multzo eta saldo fantasmek erantzun zieten itsas azpitik. «Bee! Beee!» Une batez leku berean jarraitzen zutela zirudien. Aurrean zabaltzen zen hareazko bidea putzu axalekin; alde bakoitzean sasi blaitu berdinak eta langa ospel berdinak ageri ziren. Orduan berealdikoa agertu zen: sekulako erraldoia, iletximak banatuta eta besoak zabal-zabal. Mrs. Stubbsen denda aurreko goma arbola handia zen, eta ondotik pasatzean eukalitu usain sendoa iritsi zitzaien. Eta orain argiune handi batzuek distiratzen zuten lainotan. Artzainak txistu egiteari utzi zion; sudur gorria eta bizar

bustia mahuka bustian igurtzi eta, begiak kizkurtuta, itsaso aldera egin zuen so. Eguzkia irteten ari zen. Zoragarria izan zen lainoa zer bizkor saretu zen, alde egin zuen, desegin zen ordekan, sasiartetik gora piririkatu eta joan zen presaka, ihesi bezala; zurrunbilo eta kiribil handiak elkar bultzaka eta ukondoka zebiltzan, izpi zilartsuak nagusitu ahala. Urrutiko zerua —urdin argi, hutsa— islatzen zen putzuetan, eta tantek, telegrafo harietan igeri, txinparten antzera dirdiratzten zuten. Orain itsaso jauzkari, distiratzaila hain dirdiratsu zegoen ezen begietako mina ematen zuela begiratzeak. Artzainak bularreko sakelatik pipa bat atera zuen, ontzixka ezkurra bezain txikia, tabako mantxatu puxka bat haztaka bilatu, ipitz batzuei tiratu eta ontzia bete zuen. Itxura oneko gizon zahar, irmoa zen. Pipa piztu eta ke urdina buruan gora bihurritu ahala, zakurrak, erne begira, nagusiaz harro ematen zuen.

«Bee! Beee!» Ardiak zabalean sakabanatu ziren. Udako kolonia atzean utzia zuten, hango lehen lotia ohean jiratu eta buru logaletua altxatu aurretik; haien marrua aditu zuten ume kos-

korrek ametsetan... besoak altxatuz ahalik eta behera ekartzeko, goxo-goxo besarkatzeko ametsetako bildots iletsu txiki politak. Orduan azaldu zen lehenbiziko biztanlea; Burnelleneko katua zen, Florrie, ateko zutabearen eserita, beti bezala goizegi, esnezalearen zain. Artzain-zakur zaharra ikusita tente jarri bizkor, bizkarra okertu, buru nabarra barrura bildu, eta amorraziozko dardara antzeko bat egin zuen. «Ba! Piztia txaxu, zatarra!», esan zuen Florriek. Baina artzain-zakur zaharra, gora begiratu gabe, atzeari eraginez pasatu zen, hankak aldeaz alde luzatuz. Belarri bakar bat okertu zuen, alegia ikusi zuela, eta bere ustez katu tuntun bat besterik ez zela.

Goizeko brisa harrotu zen sasiartean, eta hosto eta lur beltz bustiaren usaina nahasi zen itsas usain zakarrarekin. Milaka txori ari ziren kantari. Karnaba bat hegatu zen artzainaren buru gainetik eta, adaxka baten muturrean jarrita, eguzki aldera jiratu zen, bular txikiko lumak harrotuz. Pasatu berria zuten arrantzalearen txabola, pasatu zuten erreta ematen zuen etxola txikia, non Leila esnezalea bizi zen amona zaharrarekin. Ardiak padura hori batean barreia-

tu ziren eta Wag artzain-zakurrak, atzetik segika, haiek bildu eta haitzezko pasabide mehar, aldapatsura bideratu zituen, Crescent badiatik Daylight golkora ematen zuena.

«Bee! Beee!» Ahul iristen zen ardien marrua, bide gero eta lehorragotik balantzaka zihoazela. Artzainak ahotik pipa kendu eta bularreko sake-lan sartu zuen, ontzixka kanpoan zuela. Eta berehala ekin zion berriro txistu gozo arinari. Wagek zerbait usaindu eta lasterka joan zen arkaitz ertz batetik, eta nazkarekin itzuli zen lasterka. Orduan, bultzaka, indarka, presaka, ardiek bihurtu hartu eta artzaina haien atzetik ezkutatu zen.



Handik gutxira baserri baten atzeko atea zabaldu zen, eta bainu-jantzi marra-zabal bat zeraman irudi bat larrean behera oldartu, langa igaro, lasterka joan belar tontortuen artetik sakan aldera, aldaroka igo hareazko mendixka, eta ziztu bizian joan zen harri handi porotsuen

gainetik, txintxar hotz bustien gainetik, olio bezala distiratzten zuen harea gogorreraino. Plisti-plasta! Plisti-plasta! Stanley Burnell gozatsu sartu zenean, urak burbuilak egin zizkion hanken inguruan. Beti bezala lehenbizikoa! Berriro irabazi zien denei. Eta burua eta lepoa bustitzeko makurtu zen.

— Egun on, adiskidea! Egun on deiala Jainkoak! —iritsi zen ahots lodi belusatu bat ur gainetik burrunban.

Alajaina! Zer arraio ordea! Stanleyk kopeta jaso eta buru beltz bat gora eta beheara ikusi zuen urrutian, beso bat altxatuta. Jonathan Trout zen. Aurrea hartu zion!

— Ederra goiza! —kantatu zuen Jonathanek ahotsak.

— Bai, bikaina! —esan zuen berak labur.

Zer demontre dela eta ez zen idisko hura beste nonbait ureratu? Zer dela eta sartu behar zuen muturra toki hartantxe? Stanleyk ura ostiko-koz jo, gogor ekin, eta besoei eragin zien aurrea. Baina Jonathan bera adinakoa zen. Ondoraino etorri zitzaion, ile beltza kopetan argitsu, bizar motza argitsu.

— Sekulako ametsa izan diat bart —oihukatu zuen.

Zer zuen gizon hark baina? Hizketan jarduteko grina hark bere onetik ateratzen zuen Stanley. Eta beti kontu berdina; beti berriketaren bat amets baten gainean, edo ateraldi txororen bat, edo azken irakurritako zaborren bat. Stanley buruz gora etzan eta hankak astindu zituen, iturri bizi baten antzera. Baina halere...

— Izugarrizko labar goratik zintzilik nengoela egin diat amets, beheko norbaiti deiadarka.

«Merezi bai!», pentsatu zuen Stanleyk. Ezin zuen gehiagoan burutu. Ura astintzez gelditu zen.

— Aizak, Trout —esan zion—. Gaur presa diat.

— Zer esan duk?

Jonathan, zeharo harrituta —edo bestela itxura zen—, ur azpira murgildu eta arnaska agertu zen atzera.

— Esan nahi diat —jarraitu zuen Stanleyk— ez dudala astirik zera... txorakeriatarako. Buka dezagun behingoz. Presaka nauk. Lana diat gaur... ulertzen?

Jonathan joana zen Stanleyk amaitu aurretik.

— Adio, hi! —esan zuen ahots lodiak eztiro, eta ia batere izurrik gabe labaindu zen uretan barrena.

Madarikatu alaena! Erabat hondatu zuen Stanleyren bainua. Ergela ez bestena! Stanleyk berriro besoei eragin, berriro bizkor hondoratu eta zalapartan irten zen kanpora. Adarra jo zio-tela sentitzen zuen.

Jonathan denbora gehixeagoan geratu zen uretan. Ur gainean zegoen, besoak hegalen antzera leun-leun mugituz, eta itsasoaren esku utziz bere gorputz luze hezurtsua kulunkatzea. Bitxia zen baina, kontuak kontu, begi onez ikusten zuen Stanley Burnell. Egia, batzuetan hari iseka egiteko gogo gaiztoa izaten zuen, ziria sartzekoa, baina azken batean errukia zion gizagai-xoari. Patetikoa zen haren grina, dena halako ardura larriz hartzeko! Ezin zuen burutik kendu egunen batean kale egingo zuela, eta orduan pott! Une hartan sekulako olatuak altxatu zuen Jonathan, gainetik pasatu, eta hondartzan leher-tu zen pozezko hots batekin. Zer ederra! Eta orain beste bat. Hura bai bizimodua: axolagabe,

arduragabe, zeure buruari begira. Zutik jarri eta lehorrera abiatu zen, behatzekin harea sendo, zimurra zapalduz. Gauzak lasai hartu, bizitzako atzera-aurreren kontra ez borrokatu, amore eman... horixe zen bidea. Estuasuna kalterako zen. Bizi! Bizi! Eta goiz paregabea, fresko eta bikain, eguzkitan etzanda, bere buru ederrari barrez bezala, xuxurlan ari zela ematen zuen: «Zergatik ez?»

Baina uretatik aterata, Jonathan kolorea joanda zegoen, hozminduta; gorputz osoko minez. Bazirudien norbait odola zurrupatzen ari zitzaio-la. Eta hondartzan gora ezinean, dardaraka, giharrak gogortuta, bainuak kalte egin ziola pentsatu zuen. Denbora gehiegian ibili zen.



Stanley agertu zenean, artilezko janzki urdina, lepoa estu eta gorbata tantaduna, Beryl bakarrik zegoen egongelan. Stanleyk ez zuen parte onekoa ematen, hain garbi eta txukun;

herrira zihoan egun-pasa. Aulkian zapla eseri, erlojua atera eta plater ondoan utzi zuen.

— Hogeita bost minutu besterik ez ditut — esan zuen—. Joan eta begiratuko duzu ea ahia prest dagoen, Beryl?

— Horretan da oraintxe ama —esan zuen Berylek. Mahaian jarri eta tea zerbitzatu zion.

— Mila esker! —Stanleyk txurrut egin zuen—. Hara! —esan zuen harrituta—. Azukrea ahaztu duzu!

— O, barkatu!

Baina orduan ere Berylek ez zion bota; ontzia hurbildu zion. Zer gertatzen zen? Azukrea har-tzerakoan Stanleyren begi urdinak zabaldu ziren; dardarka ematen zuen. Errainari kirik azkar bat egin eta bizkarra atzeratu zuen.

— Ez zen okerren bat gertatuko, ezta? —galdetu zuen axolagabe, lepo aldea haztatuz.

Beryl burumakur zegoen; platera jiratu zuen hatzekin.

— Ez, ezer ez —esan zuen haren ahots arinak. Orduan gora begiratu eta irribarre egin zion Stanleyri—. Zer ba?

— Oo! Nik dakidala ezergatik ez. Zure itxura ikusita pentsatu dut...

Orduantxe atea zabaldu eta hiru neska koskorak azaldu ziren, ahi platerkada bana hartuta. Hirurak berdin jantzita zeuden, elastiko urdina eta azpiko galtzak; agerian zituzten hanka beltzaranak, eta ilea zaldi-buztana izeneko eran bildu eta lotua. Fairfield andrea etorri zen atzetik erretiluarekin.

— Kontuz, umeak —ohartarazi zien.

Baina oso kontu handiz ari ziren. Gustukoa zuten gauzak eramaten uztea.

— Egun on esan diozue aitari?

— Bai, amona.

Bankuan eseri ziren, Stanley eta Berylen aurrean.

— Egun on, Stanley! —Fairfield andre zaharrak platera eman zion.

— Egun on, ama. Zer moduz mutila?

— Zoragarri! Behin bakarrik esnatu duk bart. Hau goiz giro bikaina!

Andre zaharra bertan gelditu zen, eskua ogiaren gainean, ate irekitik lorategira begira. Itsasoa aditzen zen. Leiho erabat zabaldutik

eguzkiak blaitzen zituen horiz bernizatutako hormak eta zorua, estali gabea. Mahaian zegoen guztiak egiten zuen argi eta distira. Erdian azpil zahar bat zegoen, iturri-belar hori eta gorritz beteta. Fairfield andreak irribarre egin eta zorion sakoneko begirada batek dirdaitu zion aurpegia.

— Ogi horretatik xerra bat moztuko bazenit, amona —esan zuen Stanleyk—. Hamabi minutu eta erdi ditut kotxea pasatu arte. Inork eman dizkio nire oinetakoak neskameari?

— Bai, prest dituk. —Fairfield andrea erabat bare zegoen.

— O, Kezia! Orain ere kuxidade ederra ari dun! —hots egin zuen Berylek etsipenez.

— Ni, izeba?

Kezia begira jarri zitzaion. Zer egin zuen bada? Ahiaren erditik ibai bat egin, hura esnez bete, eta bazterrak jaten ari zen. Baina goizero egiten zuen hori, eta ordu arte inork ez zion tutik esan.

— Ezin dun taxuz jan Isabel eta Lottiek bezala?

Zer okerrak diren nagusiak!

— Baina Lottiek bet uhartea bat egiten du, ezta, Lottie?

— Nik ez —esan zuen Isabelek bizkor—. Nik nireari azukrea bota, esnea gaineratu eta jaten dut. Umeak ibiltzen dira janariarekin jolasean.

Stanleyk aulkia atzeratu eta zutitu zen.

— Ekarriko dizkidazu oinetakoak, ama? Eta Beryl, bukatu baduzu, nahiago nuke atarira joan eta zalgurdia geldituko bazenu. Korri amarengana, Isabel, ea non dagoen nire kapelua. Egon hadi. Nire makilarekin jolasten ibili zarete, umeak?

— Ez, aita!

— Ba hemen utzi nuen. —Stanley purrustan hasi zen—. Ondo asko gogoratzen naiz txoko honetan utzi nuela. Ea, nork du? Ez nago denbora galtzeko. Bilatu azkar! Makila aurkitu beharra dago.

Alice neskamea ere ehizara bildu zuen.

— Ez zenuen ba sukaldeko sua zirikatzen erabiliko?

Linda etzanda zegoen logelan sartu zen Stanley zalapartan.

— Harrigarria da gero! Ezin neure gauza bakar bati eutsi. Orain berriz makila ezkutatu didate!

— Makila, maitea? Zer makila?

Sinestezina zen Lindaren bururik eza halakotan, iritzi zion Stanleyk. Ez ote zen inor beraz errukituko?

— Kotxea! Kotxea, Stanley! —oihukatu zuen Berylek atakatik.

Stanleyk besoa altxatu zuen Linda zegoen aldera.

— Ez dut betarik agurtzeko —oihukatu zuen. Eta hori zigor moduan esan zion.

Kapeluari atzaparra bota, etxetik zalapartan irten eta ziztuan jaitsi zen lorategiko bidexkatik. Bai, gurdia hantxe zegoen zain, eta Beryl, ataka irekian berमतuta, baten batekin barrez ari zen ezertxo ere gertatu ez balitz bezala. Emakume bihozgabeak! Normala iruditzen zaie zuk egun guztia haiengatik bizkarra hautsi beharrean jardutea, eta haiek berriz ez dira arduratzen makila galdu bazaizu ere. Kellyk zartailuaz jo zituen zaldiak.

— Adio, Stanley —hots egin zuen Berylek, goxo eta alai. Oso erraza zen adio esatea! Han geratu zen hura, nagi, begiei eskuaz itzala ematen. Okerrena zen Stanleyk ere adio oihukatu behar izan zuela, itxuragatik. Orduan jiratzen ikusi zuen, salto txiki bat egin eta lasterka etxeratzen. Bera joan zelako pozik!

Bai, eskerrak eman zituen. Egongelan sartu eta hots egin zuen:

— Joan da!

Lindak gelatik oihu egin zuen:

— Beryl! Joan da Stanley?

Fairfield andre zaharra azaldu zen, mutila flanelazko jakatxoan zeramala.

— Joan da?

— Bai, joan da.

O, hura lasaitua, hura aldea gizona etxetik kanpo edukita! Ahotsak ere aldatu zitzaizkien, elkarri deika; epel eta eztiak ematen zuten, sekretu bat elkarbanatuko balute bezala. Beryl mahai aldera joan zen.

— Har ezazu beste kikera bat te, ama. Oraindik beroa dago.

Ospatu nahi zuen, nola edo hala, zer-nahihura egin ahal izatea orain. Ez zegoen gizonik galaraziko zienik; egun paregabe guztia berentzat zen.

— Ez, eskerrik asko, alaba —esan zuen Fairfield andre zaharrak, baina une hartan mutikoa altxatu eta «upalatx» esan zion moduak seinale zuen berak ere berdin sentitzen zuela.

Neska koskorrak korrika irten ziren zelaira, kotatik ateratako oiloak bezala.

Alice neskamea ere, sukaldean ontziak garbitzen ari zela, giroak kutsatu zuen eta batere arretarik gabe gastatu zuen deposituko ur estimatua.

— Gizon horiek! —esan zuen, eta teontzia perrailean sartu eta ur azpian eduki zuen burbui-lak egiteari utzi ondoren ere, hura gizon bat balitz bezala eta hura itotzea gutxitxo izan.

—IV—

— Itxaron, Isa-bel! Kezia, itxaron!

Han zen Lottie txiki gaixoa, berriro ere atzean, izugarri zaila egiten zitzaiolako langa gainetik bakarrik pasatzea. Lehenbiziko hagan oina jarri eta dardaraka hasi zitzaizkion belau-nak; hesolari eutsi zion. Ondoren hanka bat pasatu behar zen beste aldera. Baina zein? Ezin erabaki. Eta azkenean hanka bat pasatu zue-nean ostiko etsitu bat eman bezala, hura bel-durra! Erdia larrean eta beste erdia belardian zegoen. Etsi-etsian hesolari heldu eta ahotsa altxatu zuen:

— Itxaroidazue.

— Ez, ez itxaron, Kezia! —esan zuen Isabe-lek—. Tuntun hutsa dun. Beti istilua sortzen. Goazeman! —Eta elastikotik tiratu zion Keziari—. Etortzen bahaiz nire baldea utziko dinat —esan zion jator—. Hirea baino handiagoa dun.

Baina Keziak ezin zuen Lottie bere kasa utzi. Lasterka itzuli zen harengana. Ordurako Lottie aurpegia gorri-gorri eginda zegoen, arnasa berotuta.

— Ea, jarri hemen beste oina —esan zion Keziak.

— Non?

Lottiek mendi gain batetik bezala begiratu zion Keziari.

— Eskua dudan tokian. —Keziak eskuaz jo zuen.

— O, hemen?

Lottiek hasperen sakon bat egin eta beste aldera pasatu zuen bigarren hanka ere.

— Orain jira hadi, eseri eta behera irristatu — esan zion Keziak.

— Baina ez dago ezer gainean esertzeko — esan zuen Lottiek.

Azkenean moldatu zen, eta bukaeran dar-dar egin eta irribarrez hasi zen.

— Ari naiz ikasten langan gora igotzen, e Kezia?

Lottie oso baikorra zen.

Txapel arrosa eta urdina Isabelen txapel gorri biziaren atzetik joan ziren aldapa labain, irristakor hartan gora. Gailurrera iristean, nora joan erabakitzeko gelditu ziren, eta ordurako han nor zegoen ongi begiratzeko. Atzetik ikusita, zerumugaren parean zutik, beren palekin imintzio nabarmenak eginez, esploratzaile ñimiño zalan-tzatiak ematen zuten.

Han zegoen Samuel Josephsen familia osoa; umezaina, berriz, aulki tolesgarri batean eserita lepoko txilibitu batekin ordena jartzen, eta kana-bera txiki batekin hango gobernua zuzentzen. Samuel Josephsenekoak sekula ez ziren gauza bakarrik jolasteko edo jokoren bat asmatzeko. Hala hasiz gero, mutilek neskei golkotik behera ura botatzen edo neskek mutilei sakelan karra-marro beltz txikiak sartu nahian bukatzen zuten. Hala, Samuel Josephsen andreak eta umezain gaixoak «brograma» izeneko bat prestatzen zuten goizero, horrela haurrak «bibertitu eta inor ez aborrarazteko». Beti apustuak edo lasterketak edo talde jokoak ziren. Umezainak txilibituari zorrotz haize emanda hasi eta bukatzen ziren. Sariak ere bazituzten: paper zikin samarrean bildutako pakete handiak, umezainak sokazko poltsa puztu batetik atereak irribarre txiki ozpindu batekin. Samuel Josephsenekoak gogotik saiatzen ziren sariak lortzeko, eta bata besteari engainatu eta besoan atximur egiten zioten; trebeak ziren inor atximurkatzen. Burnelleneko umeak haiekin jolastu ziren aldi bakarrean Keziak sari bat irabazi zuen, eta hiru paper puska

askatu zituenean krisket txiki herdoildu bat topatu zuen. Ezin zuen ulertu haien ahalegin neurri-gabea.

Baina orain ez ziren inoiz Samuel Josephsenekoekin jolasten, ezta haien festetara joaten ere. Samuel Josephsenekoek ume festak antolatzen zituzten etengabe badian, eta beti janari berdina zegoen: garbiketako pazia handi batean mazedonia oso ilun bat, opilak lau puskatan zatituta eta garbiketako pitxer bat, umezainak «liboi ura» deitzen zion zera batez beteta. Eta iluntzean soineko farfailaren erdia libratuta edo mantal bordatuaren aurre guztia zerbaitekin zikinduta joaten ziren handik, Samuel Josephsenekoak basatiak baino areago saltoka utzita beren zelaian. Ez, ezin zen haiekin burutu.

Hondartzaren beste aldean, uraren ertzean, bi mutil koskor, barruko galtzak goratuta, bizi-bizi zebiltzan armiarmen antzera. Bata zuloa egiten, bestea plisti-plasta uretan sartu eta atera, balde txiki bat betetzen. Trouteneko mutilak ziren, Pip eta Rags. Baina Pip hain zegoen emana zuloa egiteari eta Rags hain zegoen

emana laguntzeari, non ez zituzten lehengusu txikiak ikusi oso hurre egon arte.

— Begira! —esan zuen Pipek—. Begira zer aurkitu dudan.

Eta mastrikatu itxurako bota zahar busti bat erakutsi zien. Hiru neska koskorrak begira jarri ziren.

— Zer egin behar duzu horrekin? —galdetu zuen Keziak.

— Jaso, noski! —Pip oso lakarra zegoen—. Aurkikuntza bat da, ulertzen?

Bai, ulertzen zuen Keziak. Halere...

— Gauza pila bat dago harea azpian —azaldu zuen Pipek—. Ontzi hondoratuen hondarrak dira. Altxorrak. Zera, posible da aurkitzea...

— Baina zergatik aritu behar du Ragek ura botaka? —galdetu zuen Lottiek.

— O, hezetzeko —esan zuen Pipek—. Lana pixka bat errazteko. Segi ezak, Rags.

Eta Rags gizagaixoa gora eta behera zebilen lasterka, zulora botaz kakaoa adina belzten zen ura.

— Aizue, ikusi nahi atzo zer aurkitu nuen? —
galdetu zien Pipek misterioz, eta harean sartu
zuen pala—. Hitz eman ezazue inori ez esatea.

Hitz eman zuten.

— Esazue: bene-benetan, hitza hitz.

Hala esan zuten neska koskorrek.

Pipek sakelatik zer edo zer atera, denbora
puska batean elastiko aurrearekin igurtzi, haize
eman eta berriro igurtzi zuen.

— Orain jira zaitezte —agindu zuen.

Jiratu ziren.

— Jarri zaitezte alde berera begira! Geldi!
Orain!

Eta eskua zabaldu zuen; zerbaiti eutsi zion
argitan distiratsu, keinuka, berde zoragarria.

— Nemeralda bat da —esan zuen Pipek han-
dikiro.

— Egiatan, Pip? —Isabel ere harri eta zur
zegoen.

Gauza berde zoragarri hark dantzatu bezala
egiten zuen Pipen hatz artean. Izeba Berylek ere
bazuen nemeralda bat eraztun batean, baina
oso txikia. Hau izar bat adinakoa zen eta askoz
ederragoa.

Goizak aurrera egin ahala, talde osoak agertu ziren hareazko dunetan eta hondartzara jaitsi ziren bainatzera. Gauza jakina zen hamaiketan itsasoa udako koloniako emakume eta haurrentzat zela. Lehenbizi emakumeak eranzten ziren, bainu-arropak jantzi eta burua tapatzen zuten, esponjazko poltsen antzeko txano zatarrekin. Ondoren botoiak askatzen zizkieten umeei. Hondartza josita zegoen arropa eta oinetako tontor txikiz; udako kapelu handiek, barruan harriak sartuta haizeak eraman ez zitzaizkien, berealdiko maskorrak ematen zuten. Bitxia zen itsasoak ere hots desberdina egitea figura barregile, saltari haiek olatuetara laster egin zutenean.

Fairfield andre zaharrak, kotoizko soineko lila bat jantzita eta kapelu beltz bat kokots azpian lotuta, bere umeteria bildu eta denak prest jarri zituen. Trouteneko mutil koskorrek alkandora buru gainetik harrika bota eta abaila bizian irten ziren, amonak bitartean esku bat josteko gauzen

poltsan zeukala, artilezko mataza ateratzeko gertu, umeak seguru zeudela iritzitakoan.

Neska koskor, sendo, mardulak ez ziren mutil koskor xamur, delikatu itxurakoek zuten ausardiaren erdira ere iristen. Pipek eta Ragsek, dar-daraka, kizkurtuta, uretan plastaka, ez zuten zalantza egin. Baina Isabelek, hamabi besakada emateko gauza, eta Keziak, ia zortzi emateko gauza, ez zipriztintzeko baldintza zorrotzarekin bakarrik segitu zieten. Lottiek berriz ez zien segitu. Nahiago zuen bere kasa bakarrik uztea. Eta bere kasa uztea zen uraren ertzean esertzea, hankak luzatuta, belaunak elkarri erantsita, eta besoekin mugimendu ahulak egitea, itsasoak eraman zain bezala. Baina besteak baino olatu handiago bat, bibotedun zahar bat, trostan ikusiz gero beragana etortzen, beldurrez pasatuta zutitu eta hondartzan gora ihes egiten zuen.

— Tori, ama, gorde izkidazu hauek.

Bi eraztun eta urrezko kate mehe bat erori ziren Fairfield andrearen magalera.

— Bai, maitea. Baina ez haiz hemen bainatuko ala?

— Eez —luzatu zuen Berylek hitza. Ezbaian ematen zuen—. Harantzago aldatuko naiz. Kember andrearekin bainatuko naiz.

— Oso ondo.

Baina Fairfield andreak ezpainak estutu zituen. Begitan hartua zuen Kember andrea. Berylek bazekien.

Ama zahar gaixoa, egin zuen irribarre haitzen gainetik irristan. Ama zahar gaixoa! Zaharra! O, zer gozarena, zer zoriona gazte izatea...

— Oso pozik ematen dun —esan zion Kember andreak. Harri gainean konkortuta zegoen eserita, besoekin belaunak besarkatuta, erretzen.

— Ederra eguna —esan zuen Berylek, hari behera begira irribarrez.

— O, zoragarria!

Kember andrearen ahotsa adituta, bazirudien kontu asko zekizkiela. Haren ahotsa adituta, bazirudien hark beti gehixeago zekiela zeuri buruz zuk zeuk dakizuna baino. Itxura arraroko emakume luze bat zen, esku eta oin estukoa. Aurpegia ere luzea, estua eta akitu itxurakoa; arropako hegi izur ederrak ere errea eta zimeldua ematen zuen. Badia osoan bera zen emaku-

me erretzaile bakarra, eta etengabe erretzen zuen, hitz egin bitartean zigarrotxoari ezpain artean eutsiz, eta ez zuen ahotik kentzen harik eta hautsa ez erortzea sinestezina ematen zuen arte. Bridgean jokatzeko ari ez zenean —eguna joan eta eguna etorri aritzen zen bridgean—, eguzki galdan etzanda igarotzen zuen denbora. Botatako guztia hartzen zuen; ez zen asetzen. Halere, ez zuen ematen berotzen zenik. Txigortuta, zimelduta, hotz, haitzen gainean zabal-zabal eginda egoten zen, itsasoak botatako egur zati bat bezala. Badiako emakumeek oso azkartzat zeukaten. Haren hantuste eza, haren hizkera, nola tratatzen zituen gizonak, bera ere haie-tako bat balitz bezala, etxeagatik piperrik ere ez inporta izatea eta Gladys neskameari «Glad-eyes» deitzea, hori dena penagarria zen. Atariko eskaileran zutik zegoela hots egiten zion Kember andreak ahots nekatu, axolagabearekin:

— Aizan, Glad-eyes, inon baldin badago behintzat, ekarriko didan eskuzapi bat mesedez?

Eta Glad-eyes, ilean txibista gorri bat txanoa-ren ordeaz eta oinetako zuriak zituela, irribarre lotsagabe batekin etortzen zen lasterka. Halako

eskandalurik! Egia zen ez zuela seme-alabarik, eta senarra berriz... Honetaz beti sortzen zen istilua; denak gartsuki hasten ziren. Nola hartu ote zuen halako emaztea? Nola baina, nola? Diruagatik izango zen, noski, baina halere!

Kember andrearen senarra gutxienez hamar urte gazteagoa zen, eta hain egokia non maskarra bat ematen zuen, edo nobela amerikar bateko ilustrazio perfektu bat, gizona behintzat ez. Ile-beltza, begi urdin ilunak, ezpain gorriak, irribarre logaletu lasaia, tenis jokalaria bikaina, dantzari paregabea, eta gainera misterioitsua. Harry Kemberek lotan oinez dabilen gizona ematen zuen. Gizonezkoek ezin zuten jasan, ezin zioten kontu bakar bat ere atera; emazteak bera ez, eta berak ere ez zuen emaztea aintzat hartzen. Zer bizimodu zuen? Makina bat istorio bazebilen, baina nolakoak! Esan ezin zirenak. Zer emakumerekin ikusi zuten, zer lekutan ikusi zuten... baina ezer ez zen seguru, ezer ez zehatz. Badia-ko emakume batzuek hala zioten isilka: hark noizbait hilketa bat burutuko zuela. Bai, Kember andrearekin hizketan eta haren zarpa arloteei erreparatu bitartean ere, hantxe ikusten zuten,

orduan bezalaxe hondartzan etzanda; baina hotz, odolduta, artean ere zigarrotxo aho ertzean itsatsita.

Kember andrea altxatu, aharrausi egin, gerrikoa lasaitu, eta blusaren zintari tiratu zion. Beryl, berriz, gonaren gaisetetik atera, elastikoa bota, eta zutik geratu zen azpiko gona zuri motzean, eta sorbaldetan lazoak zituen kamisolarekin.

— Jaungoiko santua —esan zuen Kember andreak—, xarmagarria haiz!

— Ixo! —esan zuen Berylek eztiro; baina lehenbizi galtzerdi bat eta gero bestea kentzerakoan, xarmagarria sentitu zen.

— Zer ba, laztana? —galdetu zuen Kember andreak, azpiko gona zapalduz.

Izan ere... hura azpiko arropa! Barruko galtz urdin kotoizkoak eta linozko gerruntzea, burkoaren azala ematen zuena.

— Eta ez dun kortserik erabiltzen, ezta?

Beryli gerrian ukitu eta hark salto egin zuen garrasi itxurati bat eginez.

— Inoiz ez! —esan zuen tinko.

— Hik bai zortea, eder hori! —egin zuen, hasperen Kember andreak, berea askatuz.

Berylek bizkarra eman eta nekez hasi zen mugitzen, arropak erantzi nahi eta aldi berean bainu-arropa jantzi nahian.

— O, laztana! Ez nigatik arduratu —esan zuen Kember andreak—. Zergatik lotsatzen haiz? Ez haunat jango. Ni ez naun beste inozo horien antzera izutuko. —Eta betiko barre bitxi hura egin zuen, beste emakumeak seinalatuz.

Baina Beryl herabea zen. Ez zen sekula inoren aurrean erantzten. Txorakeria zen hori? Kember andreak txorakeria zela sentiarazi zion, baita lotsatzekoa ere. Zertarako izan herabe! Kirik egin zion ondokoari: ausardiaz zutik, elastikoa urratuta eta zigarrotxo berria pizten; eta orduan zirrara bizi, ausart, gaizto bat erne zitzaion bularrean. Barre zakar eginez, erabat lehorra ez zegoen bainu-arropa zimur, hondartsua jantzi eta botoi okertuak lotu zituen.

— Horrela hobeto —esan zuen Kember andreak. Hondartzan behera abiatu ziren biak elkarrekin—. Benetan esaten dinat, bekatu egingen dun arropa jantzita, maitea. Norbaitek esan beharko din egunen batean.

Epel-epel zegoen ura. Urdin garden zoragarria, zilarrezko tantekin. Baina hondoko hareak urrea ematen zuen, eta behatzekin eragiten zenuenean urre-hautsezko laino xehe bat harrotzen zen. Bularraren parera iristen ziren orain olatuak. Beryl besoak luze zegoen, urrutira begira, eta olatu bakoitzarekin salto txiki ñimiño bat egiten zuen, olatua balitz bezala bera eztiro altxatzen zuena.

— Nire ustez neska politek dibertsioa behar diten —esan zuen Kember andreak—. Zergatik ez? Ez hadi nahasi, maitea. Ongi pasa ezan.

Eta bat-batean hankaz gora jarri, urperatu eta igeri urrundu zen bizkor-bizkor, arratoia bezala. Ondoren buelta eman eta beragana abiatu zen berriro. Beste zerbait zihoan esatera. Beryl jabetzen zen emakume hotz hau barrena pozoitzen ari zitzaiola, baina entzuteko irrika zuen. Baina zer arraroa, zer latza! Kember andrea hurreratu zenean, txano beltz irazgaitza, aurpegi logaletua agerian zuela, kokotsa ur azalean, senarraren karikatura beldurgarri bat ematen zuen.

Etzaulki batean, sarrerako belardiko manuka arbolaren azpian, Linda Burnellek ametsetan zeraman goiza. Ez zen ezertan ari. Gora begira zegoen, manukaren hosto ilun, itxi, lehorrei, tarteko zirrikitu urdinei; eta noizean behin lore hori tipi bat erortzen zitzaion gainera. Ederra, bai. Horietako lore bat esku ahurrean hartu eta hurbiletik begiratzen bazenuen, bitxi polit bat zen. Esku maitale baten lan fina balitz bezala distiratzten zuen hosto zurbil, hori bakoitzak. Erdiko mihi tipiak txintxarri forma ematen zion. Eta jiratzuz gero, kanpoa brontze iluna zen. Baina loratu bezain laster erori eta sakabanatzen ziren. Gonatik astintzen zenituen, hizketan ari zinela; izpi txiki narras haiek buruko ilean eransten ziren. Orduan zertarako loratzen ziren? Nor aritzen da lanean, edo jolasean, gauza horiek denak sortzen, zer eta gero alferrik galtzeko? Parte gaiztokoa zen hura.

Aldamenean zegoen mutila, bi burkoen artean etzanda belartzan. Seko zegoen lo, burua

amaren beste aldera. Haren ile eder beltzaranak gehiago ematen zuen itzala, benetako ilea baino. Haren belarria, ordea, koral argi bizi bat zen. Lindak buru gainean eskuak estutu eta hankak gurutzatu zituen. Oso atsegina zen jakitea baserri horiek denak hutsik zeudela, guztiak hondartzara jaitsi zirela, ez ikusteko moduan, ez entzuteko moduan. Berarentzat zen lorategia; bakarrik zegoen.

Itsutzeraino distiratzen zuten krabelinek zuriz; urre-begizko ilen kultibatuak dirdir; iturri-belarrak atariko hesoletan bihurritzen ziren, sugar berde eta urrezkoz. Nahi bai, lore hauei patxadan begira egoteko denbora eduki, berri eta arrotz sentimendua gainditzeko denbora, ezagutzeko denbora! Baina hasi hostoak baztertzen, azpia ikertzen, eta hor azaltzen zen Bizitza zu handik bidaliz. Zumitzezko jarlekuan etzanda, Linda oso arin sentitzen zen, hostoaren pare. Hor azaldu zen Bizitza haizearen pare, berari heldu eta astinduz; joan beharra zuen. Ene, beharrezkoa ote zen beti berdin gertatzea? Ihesbiderik ez?

...Orain beren Tasmaniako atarian zegoen eserita, aitaren belaunaren kontra jarrita. Aitak hitz eman zion: «Gu biok helduak garenean, Linny, sokak apurtu eta ihesi joango gaitun. Bi mutil elkarrekin. Txinako ibai batean gora nabigatzeko gogoia dinat.» Lindak ibai hura ikusi zuen, oso zabala, almadia eta txalupa txikiz estalia. Txaluparien kapelu horiak ikusi zituen, eta haien ahots fin, zorrotzak deika...

— Bai, aita.

Baina, orduantxe, ile gorri biziko gizon gazte sendo bat pasatu zen astiro beren etxe aurretik, eta astiro, handikiro ere bai, erantzi zuen kape-lua. Aitak isekati tiratu zion Lindari belarritik, ohitura zuen bezala.

— Linnyren galaia —xuxurlatu zuen.

— O, aita, hori ateraldia, ni Stanley Burnellekin ezkontzea!

Bada bai, harekin ezkondu zen. Are gehiago, huraxe maite zuen. Ez edonork ikusten zuen Stanley hura, eguneroko hura, baizik eta Stanley lotsati, sentibera, gizagaixo hura, gauero belau-nikatzan zena otoitz egiteko, eta zintzoa izan nahi zuena. Xaloa zen. Inorengan sinesten zue-

nean —beragan, esate baterako— bihotz-bihotzez izaten zen. Ezin zen desleiala izan; ez zekien gezurra esaten. Eta haren sofrimendua, pentsatzen bazuen ezen norbaitek —berak— ez zuela erabat argi eta garbi jokatu! «Oso nahasia da hori niretzat!» botatzen zuen Stanleyk, baina haren begirada zabal, dardarati, galduak, piztia harrapatu batena ematen zuen.

Baina, eta hori zen arazoa —honetan Lindari barregura etorri zitzaion ia, Jainkoak ongi dakien arren ez dela barre egitekoa—, oso gutxitan ikusten zuen bere Stanley hura. Bazeuden lasaitasunezko printza, une, arnasaldiak, baina beste guztietan bazirudien behin eta berriro sua hartzen duen etxe batean bizi zinela, egunero hondo josten duen barku batean. Eta beti Stanley zegoen arrisku bizian. Lindak denbora guztia hura salbatzen pasatzen zuen, hura bere oneratzten, hura goxatzen, haren kontakizuna entzuten. Eta geratzen zen denbora guztia, mundura haurrak ekartzeko izuak hartzen zuen.

Lindak kopeta ilundu zuen; etzaulkian bizkor tentetu eta orkatilei heldu zien. Bai, horixe zen bizitzaren aurrean zuen sumina; horixe ezin

zuen ulertu. Galdera horixe egiten zuen behin eta berriro, erantzuna noiz jasoko alferrik zain. Oso ongi zegoen esatea emakumeen halabeharra dela mundura haurrak ekartzea. Baina ez zen egia. Berak, adibidez, ezetz frogatzen zuen. Desegin, ahuldu, kemena galarazi zion mundura haurrak ekartzeak. Eta, are latzago, ez zituen bere haurrak maite. Alferrik zen itxura egitea. Indarra eduki balu ere, ez zien sekula neska txiki-
kiei bularra emango, ezta haiekin jostatzen ibiliko ere. Ez, bazirudien arnasa hotz batek barrena zeharo izoztu ziola, bidaia izugarri horietako bakoitzean; ez zuen berotasun hondarrik haiei emateko. Mutila berriz... bueno, Jainkoari esker-
rak amak hartu zuen; amarena zen, edo Berylena, edo hura nahi zuen edonorena. Ia ez zuen besoetan ere eduki. Hain gutxi axola zitzaion hura, non etzanda ikusi eta... Lindak behera begiratu zuen.

Mutila jiratu zen. Berari begira zegoen etzanda, loa utzita. Zabalik zituen begi umetsu, urdin ilunak; amari zelatan ematen zuen. Eta halako batean txulo bana azaldu zitzaion masailetan;

irribarre zabal, horzgabe bat egin zuen, argi izpi paregabe bat.

«Hemen nago!» ematen zuen esaten zuela irribarre alai hark. «Zergatik ez nauzu maite?»

Irribarre hark bazuen zerbait xelebrea, uste gabekoa, eta Lindak ere irribarre egin zuen. Baina bere buruari eutsi eta hotz esan zion mutilari, «Ez ditiat haurrak maite.»

«Haurrak maite ez?» Mutilak ezin zuen sine-tsi. «Ni maite ez?» Zoroaren moduan eragin zien besoei amaren aldera.

Linda belar gainera zutitu zen aulkitik.

«Zergatik jarraitzen duk irribarrez?», esan zion irmoki. «Baheki zer nengoen pentsatzen, ez huke egingo.»

Baina mutilak begiak kizkurtu, maltzur, eta burkoaren kontra igurtzi zuen burua. Ez zion hitzik ere sinetsi.

«Denok dakigu!», egin zuen mutilak irribarre.

Gaztetxo honen konfiantzak erabat harritu zuen Linda... Ez, aitortu egia. Ez zuen hori senti-tu; oso bestelako zerbait zen, zerbait guztiz berria, guztiz... Begietan malkoak zituen zintzi-lik; marmar txiki batez xuxurlatu zion mutilari:

— Kaixo, pottoko!

Baina mutila ja ahaztuta zegoen amarekin. Serio zegoen berriro. Zerbait arrosa, zerbait leuna hegatu zitzaion aurrean. Heltzekoa egin, eta berehala desagertu zen zera hura. Baina berriro etzan zenean beste bat agertu zen, aurrekoa bezalakoa. Oraingoan harrapatzeko asmo sendoa zuen. Bere ahaleginean hankaz gora joan zen.

—VII—

Itsas behera zegoen, hondartza hutsik zegoen, nagi astintzen zuen itsaso epelak. Eguzkiak harea fina zigortzen zuen, bero eta sutsu zigortu ere, hartxintzar grisak eta urdinak eta beltzak eta zuriak kiskaliz. Txirla kiribilen txuloan geratutako ur erreusa hurrupatzen zuen; zurixka uzten zuen konbolbulo arrosa, hondar-muinoetan barrena bihurritua. Bazirudien ezer ez zela mugitzen, matxinsalto txikiak izan ezik. Pit-pit-pit! Ez ziren sekula gelditzen.

Harago, haitz algatsuetan, edatera jaitsitako piztia galpartsuen antzekoak itsas beheran, bazi-rudien eguzkiaren argia jirabiran zebilela, haitz arteko putzu txiki bakoitzera botatako zilarrezko txanponak bezala. Dar-dar egin, ikara egin, eta izur ñimiñoek mihizten zituzten ertz porotsuak. Behera begiratzuz, hara makurtuz, putzu bakoitza aintzira bat bezalakoa zen, etxe arrosa eta urdinak ertzean bil-bil eginda; eta oi!, etxe horien atzeko mendialde zabala, malkar, amildegi, pitzadura arriskutsu eta bidezidor beldurgarriak uretaraino. Azpian kulunkatzen zen itsas basoa, haria bezalako arbola arrosak, belusezko anemonak, eta sasi laranja marrubi-tantadunak. Orduan hondoko harri bat mugitu, astindu, eta garro beltz batek kirik egin zuen; orduan haria bezalako piztia bat kili-kolo joan eta ezkutatu zen. Zerbait gertatzen zitzaien arbola arrosa, kulunkariei; ilargiaren kolore urdin hotza ari ziren hartzen. Eta orduan «plop» entzun zen, xume. Nork egin zuen hots hori? Zer ari zen gertatzen han behean? Eta zer zakarra, zer bustia zen algen usaina eguzki galdan...

Itxita zeuden leiho-sare berdeak udako koloniako baserrietan. Atarrietan, belardi aldera, hesi gainetan botata, nekatu itxurako bainu-jantziak eta eskuoihal marradun zakarrak zeuden. Bazirudien atzeko leiho bakoitzean hondartzako oinetako pare bat zegoela koskan, eta harri mordoxka batzuk edo pertz bat edo pawa txirlen bilduma bat. Sasia dardaraz zegoen gandu kiskalitan; errepide hondartsuan Trouteneko Snooker zakurra besterik ez zegoen, erdi-erdian etzanda. Begi urdina gora begira, hankak zurrun luzatuta, eta etsita bezala egiten zuen putz noizean behin, esanez bezala behingoz bakea egin eta gurdi bat noiz azalduko zain zegoela.

— Zeri begira zaude, amona? Zergatik gertzen zara adi-adi hormari so?

Kezia eta amona elkarrekin zeuden siestan. Neska koskorra, barruko galtzak eta azpiko gona beste jantzirik gabe, besoak eta hankak agerian zituela, amonaren oheko burko harrotu batean zegoen etzanda, eta andre zaharra, mantal zuri farfailadun batekin, aulki kulunkari batean eserita leiho ondoan, puntuzko lan luze arrosa bat magalean zuela. Gela hartan, baserriko beste

geletan bezala, egurrak berniz argia zuen eta zorua jantzi gabe zegoen. Altzariak arruntak eta soilak ziren guztiz. Apain-mahaia, kasu, kutxa bat zen, gainean muselinazko azpiko gona adaxkadun bat zuela, eta goiko ispilua oso berezia: bazirudien tximista puxka oker bat zegoela bertan gatibu. Mahai gainean txarro bat zegoen basakrabelinekin, estu-estu, belusezko kutun baten antzera, eta txirla bitxi bat Keziak amonari emana orratz-ontzi gisa, eta beste bat are bitxiagoa, bere ustetan oso txoko egokia barruan erlojua gordetzeko.

— Kontatu, amona —esan zuen Keziak.

Andre zaharrak hasperen egin, hariari bi aldiz eragin erpuruan, eta barrutik sartu zuen hezurrezko jostorratza. Ilara berri bati ekin zion.

— Hire osaba Williamekin nengonan pentsatzen, maitea —esan zuen emeki.

— Australiako osaba William? —esan zuen Keziak. Beste bat ere bazuen.

— Bai, noski.

— Inoiz ikusi ez dudana?

— Horixe bera.

— Ta? Zer gertatu zitzaion ba?

Keziak ongi asko zekien, baina berriro kontatzea nahi zuen.

— Meatzari joan, eta eguzkiak jota hil zunan—esan zuen Fairfield andreak.

Keziak begiak kliskatu eta berriro ekarri zuen irudia gogora: gizon txiki bat berunezko soldadu baten antzera lurrera erorita, zulo beltz handi baten ondoan.

— Triste jartzen zaitu berarekin pentsatzeak, amona?

Ezin zuen eraman amona triste egotea.

Orain amonari zegokion gogora ekartzea. Triste jartzen zuen? Atzera, atzera begiratzea. Urteetan behera so egitea, Keziak ikusi izan zuen bezala. *Haiei* kasu egitea emakumeek egiten duten bezala, *haiek* aspaldi ezkutatu direnean ere. Triste jartzen zuen? Ez, horrelakoa zen bizitza.

— Ez, Kezia.

— Baina zergatik? —galdetu zuen Keziak. Agerian zuen besoa jaso eta gauzak marrazten hasi zen airean—. Zergatik hil behar izan zuen osaba Williamek? Ez zen zaharra.

Fairfield andrea hirunaka hasi zen puntuak zenbatzen.

— Halaxe gertatu zunan —esan zuen bere baitan bildutako ahotsez.

— Denok dugu hil beharra? —galdetu zuen Keziak.

— Denok!

— Nik?

Keziak izugarri sinesgaitz ematen zuen.

— Egunen batean, maitea.

— Baina amona! —Keziak ezkerreko hanka dantzatu eta behatzei eragin zien. Hondarra nabari zuen—. Eta ez banaiz hiltzen?

Andre zaharrak berriro hasperen egin eta hari luze bat atera zuen matazatik.

— Hori ez zegon geure nahian, Kezia —esan zuen triste—. Guztioi gertatzen zaigun, lehenago ez bada geroago.

Kezia isilik geratu zen, pentsatzen. Ez zuen hil nahi. Joan beharko zuen hemendik, denetik joan, betiko, joan... amonagandik joan. Bizkor jiratu zen.

— Amona —esan zuen ahots asaldatuz.

— Zer, laztana!

— Zu ez zara hilko.

Tinko zegoen Kezia.

— Ai, Kezia! —amonak begiak jaso, irribarre egin eta burua astindu zuen—. Ez dezagun horretaz hitz egin.

— Zu behintzat ez. Ezin nauzu utzi. Ezin zara hemendik joan. —Hori izugarria zen—. Emaidazu hitza ez zarela inoiz joango, amona —erregutu zuen Keziak.

Andre zaharrak puntua egiten jarraitu zuen.

— Eman hitza! Inoiz ez!

Baina halere amona isilik.

Kezia piririka irten zen ohetik; ezin zuen gehiagoan jasan, eta amonaren belaunetara arin igo, eztarritik heldu eta musuka hasi zitzaion kokots azpian, belarri atzean, eta lepoan behera haize emanka.

— Inoiz ez... inoiz ez... inoiz ez...

Arnasestu egiten zuen musu batetik bestera. Eta orduan hasi zen, oso goxo eta arin, amona kilikatzen.

— Kezia!

Andre zaharrari puntu-lana erori zitzaion, eta atzera eragin zion aulki kulunkariari. Bera ere Kezia kilikatzen hasi zen.

— Inoiz ez, inoiz ez, inoiz ez —egin zuen Keziak bor-bor, elkar besarkatzen zutela barre eta barre.

— Nahikoa dinagu, kattagorri! Nahikoa dinagu, pottoka! —esan zuen Fairfield andreak, kapelua zuzenduz—. Jaso nire puntu-lana.

Biei ahaztu zitzaien lehengo «inoiz ez» hura.

—VIII—

Artean eguzkiak gogor ematen zuelarik lora-tegian, Burnelldarren etxean atzeko atea danba itxi, eta irudi alai bat abiatu zen bidexkatik ataka aldera. Alice zen, neskamea, jai zuen arratsalderako apainduta. Kotoizko soineko zuriz jantzia, tanta gorri hain handi eta hain ugariekin non hotzikara ematen zuen, oinetako zuriak eta lastozko kapelua, hegala goratuta eta mitxoletekin. Eskularruak zeramatzan noski, zuriak, itxigailuak

lizunez ilunduta, eta esku batean eguzkitako zarpail bat, berak paraxola deitzen ziona.

Berylek, leihoan eserita, ile garbitu berria haize ematen, pentsatu zuen sekula ez zuela halako txorimalorik ikusi. Aurpegia kortxo puska batez belztea bakarrik falta zitzaion Aliceri, irudi hura bete-betekoa izateko. Nora zihoan halako neska bat honelako leku batean? Fidjiko haize-maile bihotz-formadunak burlati astintzen zion galpar argi ederra. Alice seguru asko arlote baldarren batekin adiskidetu eta sasi artera zihoan harengana. Pena zen horrela nabarmentzea; lanak izango zituzten inon gordetzen, Aliceren arropa haiekin.

Baina ez, Beryl oker ari zen. Alice tea hartze-ra zihoan Stubbs andreagana, honek inbitaziyua bidali baitzion mandatuak egiten zituen mutilarekin. Stubbs andrea oso begikoa egin zitzaion dendara lehen aldiz joan zenetik, eltxoen kontrako zerbait erostera.

— Gaixo errukarria! —Stubbs andreak bere saihetsa jo zuen—. Hori ziztada pila egin dizute. Badirudi kanimaliek eraso dizutela.

Alicek gustura hartuko zukeen animazio apur bat errepidean. Arraro sentitzen zen, atzean inor gabe. Bizkarra ahul sentitzen zuen. Ezin zuen sinetsi inor ez egotea berari begira. Baina tun-tunkeria zen atzera jiratzea; agerian geratzen zinen. Eskularruei gora tiratu, ahopean kantatu eta urrutiko goma arbolari esan zion: «Laster naiz hor.» Baina hori konpainia eskasa zen.

Stubbs andrearen denda errepide ertzeko kaxko batean zegoen esekia. Bi leiho handiak begiak, ataripe zabala kapelua, eta sabaiko iragarkia, MRS STUBBS'S zirriborraturik, kapelu hegalean zut-zuta erantsitako txarteltxo baten antzekoa.

Ataripean bainu-jantzi zerrenda luze bat zegoen sokatik zintzilik, elkarri lotuta itsasotik salbatu berriak balira bezala, ez barrura sartu zain, eta haien aldamenean hondartzako oinetako mordo bat zegoen, hain harrigarri nahasiak non pare bat topatzeko gutxienez berrogeita hamar oinetako hankaz goratu eta indarka bereizi beharko zenituen. Hartara ere, gaitza izango zen ezkerre eskuinarekin batzea. Izan ere, makina batek pazientzia galdu eta joan zen oinetako

bat ongi eta bestea handiegia zuela... Denetik zerbait zuela eta, Stubbs andrea harro zegoen. Bi leihoak, piramideen antzera larri-larri koka-tuak, hain zeuden gainezka eta gauzaz leporai-no, non bazirudien azti bati esker ez zela dena goitik behera erortzen. Leiho baten ezkerreko ertzean, berinari itsatsirik lau gelatina zatirekin, idazki bat zegoen, eta hantxe zegoen antzina-antzinatik.

URREZKO BROTXE DOTOREA
GALDU DA
HONDARTZAN EDO INGURUAN.
SARITUKO DA

Alicek atea bultzatu eta zabaldu zuen. Kan-paiak jo, sargazko errezela gorriak erdibitu eta Stubss andrea agertu zen. Irribarre zabalarekin eta hirugiharra ebakitzeko labana luzea eskuan zuela, bidelapur jator bat ematen zuen. Alicek hain ongi etorri beroa jaso zuen, non zaila egin zitzaion modu onari eustea. Honen seinale ziren eztul eta eztarri hots ugariak, eskularruei tira-tzea, gona atximurkatzea, eta zailtasun bitxi bat,

aurrean zuena ikusteko edo esaten ziotena ulertzeko.

Denda-osteko mahaian zegoen tea: xingarra, sardinak, gurin libra osoa, eta berebiziko arto-opila, legami iragarki baterako edo egina. Baina Primus labearen marruekin alferrik zen hura baino ozenago hitz egiten jardutea. Alice zumitzezko eserleku baten ertzean jarri zen, Stubbs andreak labea orduan eta gehiago berotu bitartean. Halako batean Stubbs andreak aulki bateko kuxina baztertu eta estraza paperezko pake-te bat agertu zuen.

— Argazki berriak eginarazi ditinat, maitea — hots egin zion pozez Aliceri—. Ea zer iruditzen zaizkinan.

Oso modu fin delikatuan, Alicek hatza busti eta sedazko papera kendu zion lehenbizikoari. Ene! Hura pila! Gutxienez hiru dozena bai. Argitara altxatu zituen.

Stubbs andrea ageri zen besaulki batean eserita, gorputza zeharo alde batera. Harridura goxoko begirada zuen aurpegi zabalean, eta edukitzekoa zen. Izan ere, nahiz eta besaulkia tapiz baten gainean egon, ezkerrean, mirariz

bezala tapizaren ertza inguratuz, berealdiko ur-jauzia zegoen. Eskuinean zutabe greko bat zegoen, alde bakoitzean iratze erraldoi bat, eta atzean mendi agor bat tentetzen zen, elurrez zurbil.

— Estilo atsegina, ezta? —hots egin zuen Stubbs andreak; eta Alicek «xarmagarria» garra-si egin bezain laster, Primus labearen marru hotsa gutxitu, baretu, bukatu, eta «Polita» esan zuen isiltasun beldurgarri baten erdian.

— Hurrera ezan hire aulkia, laztana —esan zuen Stubbs andreak, zerbitzatzan hasiz—. Bai —esan zuen pentsakor, tea ematerakoan—. Baina ez nagon gustura neurriarekin. Handitzera bidaliko ditinat. Ongi zeuden Gabon txartel gisa, baina ni ez naun behin ere argazki txikien aldekoa izan. Halakoekin satisfazio gutxi. Egia esan, ni goibel jartzen naiten.

Alicek ongi ulertu zion.

— Neurria —esan zuen Stubbs andreak—. Neurri ona. Horixe esaten zinan beti nire senar maite gizagaixoak. Ezin zinan burutu gauza txiki-ekin. Ondoezik jartzen zunan. Eta arraroa bada ere, laztana —honetan, Stubbs andreak kirrinka

egin, eta oroitzearen poderioz zabaldu bezala egin zen—, azkenean hidropesiak eraman zinan. Ospitalean behin baino gehiagotan hustu zioten pinta bat eta erdi... Hura gurutze bat zunan.

Alice desiratzen zegoen zehatz jakiteko zer hustu zioten. Esatera ausartu zen:

— Ura, noski?

Baina Stubbs andreak begiak Alicegan josi eta esanguratsu erantzun zion:

— Likidoa, laztana.

Likidoa! Alicek, hitz haren aurrean, katuak bezala atzera egin eta berriro hurbildu zen, usnaka eta susmati.

— Hauxe zunan! —esan zuen Stubbs andreak, eta dramatismoz seinalatu zituen gizon mardul baten neurri naturaleko buru eta sorbaldak, zamarraren botoi zuloan arrosa zuri ihar, gantz puska kiribil baten antzekoa zuela. Azpian, kartoi gorrian zilarrezko letraz zegoen idatzita: «Ez beldurtu, ni naiz».

— Zer aurpegi ederra —esan zuen Alicek emeki.

Stubbs andreak ile kizkur argien gainean zeraman txibista urdin zurixkak dar-dar egin

zuen. Lepoalde guria okertu zuen. Hura lepoa! Hasieran arrosa bizia, gero alberretxiku iluna, hortik arrautz azal gorrira ahuldu eta azkenik krema kolore sendoa.

— Kontuak kontu, maitea —esan zuen uste-kabea—, gora askatasuna!

Urruma ematen zuen haren barre iduri lodi, gozoak.

— Gora askatasuna —esan zuen Stubbs andreak berriro.

Askatasuna! Alicek barre txiki, txoro, ozen bat egin zuen. Gogaitua sentitu zen. Bere sukalderraino hegatu zitzaion pentsamendua. Bai xelebrea! Haraxe itzuli nahi zuen atzera.

—IX—

Tea hartu eta gero, lagun talde bitxi bat elkartu zen Burnelldarren garbitokian. Hango mahaiaren jiran eseri ziren zezena, oilarra, astoa zela ahazten zitzaion astoa, ardia eta erlea. Garbitokia leku paregabea zen hala elkartzeko, zeren nahi hainbat hots egiten ahal zuten, seku-

la inortxok galarazi gabe. Burdinzurizko estalpe txiki bat zen, baserritik bereiz. Hormaren kontra aska sakon bat zegoen eta kantoian pazia bat, gainean pintzak edukitzeko saski bat zuela. Leiho txikian, dena amaraunez josia, kandela mutur bat eta sagutegi bat zegoen koskako hauts artean. Arropa-sokak zeuden goi guztian bihurri, eta hormako kako batetik zintzilik zaldiferra handi, ikusgarri, herdoildu bat. Erdian zegoen mahaia, alde bakoitzean bankua zuela.

— Ezin zara erlea izan, Kezia. Erlea ez da aberea. Moxorroa da.

— O, baina nik erlea izan nahi nuke —egin zuen intziri Keziak... Erletxo bat, ile-horia eta hanka marradunak. Hankak azpian bildu eta mahai gainean luzatu zuen gorputza. Erle sentitzen zen—. Erlea aberea da —esan zuen temati—. Hotsa egiten du. Ez da arraina bezalakoa.

— Ni zezena, ni zezena! —oihukatu zuen Pipek. Eta sekulako makakorroa egin —nola egiten zuen hots hura?—, eta Lottie izutu bezala egin zen.

— Ni ardia —esan zuen Rags txikiak—. Artalde osoa pasatu da goizean.

— Nola dakizu?

— Attak entzun ditu. Bee!

Atzetik ttattoka datorren arkumea ematen zuen, norbaitek besoetan eraman zain.

— Kukurruku! —egin zuen Isabelek garrasi. Oilarra ematen zuen, masailak gorri eta begiak argi.

— Eta ni zer?

Denei galdezka zegoen Lottie, eta irribarre-tsu zegoen, besteek erabaki zain. Zerbait erraza izan behar zuen.

— Astoa, Lottie —bururatu zitzaion Keziari—. Hi-ha! Ez zaizu ahaztuko.

— Hi-ha! —esan zuen Lottiek handikiro—. Noiz esan behar dut?

— Lasai, argituko dizut eta —esan zuen zezenak.

Berak zeuzkan kartak. Buruaren inguruan ibili zituen.

— Ixo! Entzun! —Eta zain jarri zen—. Begira, Lottie. —Karta bat altxatu zuen—. Bi puntu ditu. Ikusten? Ba zuk karta hori erdian jarri eta beste norbaitek ere bi puntuko bat badu, zuk «Hi-ha» esan eta karta zeuretzat.

— Niretzat? —Lottiek begiak biribildu zituen—. Betiko?

— Ez, tuntuna. Partida horretan. Jokatzen dugun bitartean. —Zezena oso haserre ari zitzaion.

— O, Lottie, zer tuntuna zaren —esan zuen oilar harroak.

Lottiek biei begiratu zien. Orduan burua makurtu zuen; ezpainak dar-dar zituen.

— Ez dut ibili nahi —xuxurlatu zuen.

Besteek elkarri so egin zioten, konspiratzailen antzera. Bazekiten horrek zer esan nahi zuen. Hark handik alde egin eta beste nonbait topatuko zuten, mantala burutik behera, zutik kantoï batean, edo hormaren kontra, edo baita aulki baten atzean ere.

— Bai, nahi duzu, Lottie. Oso erraza da —esan zuen Keziak.

Eta Isabelek, damututa, pertsona heldu batek bezalaxe esan zion:

— Begira niri, Lottie, eta laster ikasiko duzu.

— Aupa, Lot —esan zuen Pipek—. Badakizu zer? Lehenbizikoa emango dizut. Berez nirea da,

baina zuretzat. Tori. —Eta Lottieren aurrera bota zuen karta.

Horrekin bizkortu zen Lottie. Baina orain beste larritasun bat zuen.

— Eztaukat musuzapirik —esan zuen—. Behar handia dut.

— Tori, Lottie, nirea erabil ezazu.

Ragsek marinel blusan eskua sartu eta itxura oso bustiko bat atera zuen, korapiloarekin.

— Kontuz —ohartarazi zion—. Ertz hori baka-
rrik erabili. Ez askatu. Itsas izar txiki bat daukat barruan, hezteko.

— Mugitu, neskak —esan zuen zezenak—. Eta ez gero kartei begiratu. Mahai azpian eduki behar dituzue eskuak, nik «Ja» esan arte.

Di-da zabaldu ziren kartak mahaian zehar. Ahalegin guztiak egin zituzten ikusteko, baina Pip bizkorregi aritu zen. Zirrara handia zen garbitokian egotea; gogotik saiatu ziren abere koruari ez ekiten, Pipek banaketa amaitu aurretik.

— Ea, Lottie, hasi.

Lottiek eskua lotsati luzatu, goiko karta hartu sailetik, ongi begiratu —argi zegoen ttanttoak zenbatzen ari zela—, eta buruz behera jarri zuen.

— Ez, Lottie, horrela ez. Ez duzu aurrena ikusi behar. Beste aldera jarri behar duzu.

— Baina orduan nirekin batera ikusiko dute besteek ere —esan zuen Lottiek.

Jokoak aurrera egin zuen.

Muuuu! Latza zen zezena. Mahaiari oldartu eta bazirudien kartak jango zituela.

Ziiii! esan zuen erleak.

Kukurruku! Zirrurarekin Isabel zutitu eta ukondoei eragin zien hegoen antzera.

Bee! Rags txikiak Errege Diamantea bota eta Lottiek Errege Espainiako deitzen ziotena bota zuen. Ia kartarik gabe zegoen.

— Zergatik ez duzu oihukatu, Lottie?

— Ahaztu zait zer naizen —esan zuen astoak atsekabez.

— Ba aldatu! Zu zakurra! Au-au!

— O, bai. Hori bai erraza.

Lottiek irribarre egin zuen atzera. Baina berak eta Keziak batekoa agertu zutenean, Kezia nahita geratu zen zain. Besteek keinuak egiten

zizkioten Lottieri, seinalatuz. Hau zeharo gorritu zen; zur eta lur zirudien, eta azkenean esan zuen:

— Hi-ha! Kezia.

— Ixx! Egon zaitezte!

Denak buru-belarri zeudela geldiarazi zituen zezenak, eskua goratuta.

— Zer da hori? Zer da zarata hori?

— Zer zarata? Zer diozu? —galdetu zuen oilarrak.

— Ixx! Isilik! Entzun!

Mutu geratu ziren.

— Ate hotsa iruditu zait —esan zuen zezenak.

— Nolakoa? —galdetu zuen ardiak emeki.

Erantzunik ez.

Erleak dar-dar egin zuen.

— Zertarako itxi dugu atea? —esan zuen aho-pean. O, zergatik, zergatik itxi ote zuten atea?

Jolasten zeudela, ilundu zuen eguna; arrats oparoak distira egin eta itzali zen. Eta orain ilunpe azkarra lasterka zetorren itsasoan barrena, hondar-muinoetan barrena, soroetan gora. Bel-dur ematen zizun garbitoki ertzetara begiratzek, baina halere nahitaez begiratu behar

zenuen. Eta nonbait, oso urruti, kriseilua pizten ari zen amona. Saretak jaisten; sukaldeko sua jauzika zebilen, tximiniaren koskako ontzietan.

— Hori beldurra —esan zuen zezenak—, orain armiarma bat erortzea sabai gainetik mahaira.

— Armiarmak ez dira sabai gainetik erortzen.

— Eroriko ez dira! Gure Minek platera adinako armiarma ikusi omen zuen behin, tximua bezain ile-luzea.

Buru txiki guztiak bizkor tentetu ziren; gorputz txiki guztiak elkarrengana bildu ziren, estu-estu.

— Zergatik ez dator norbait gure bila? —egin zuen oilarrak garrasi.

Oi helduak, gozo-gozo barrez, kriseilu-argitan eserita, kikeratik edaten! Ahaztuta zeuden berekin. Ez, ahaztuta ez. Irribarrean antzematen zitzaien. Hantxe bakarrik uztea erabaki zuten.

Bat-batean, Lottiek sekulako deiadar zorrotza bota eta denak altxatu ziren bankutik, denak deiadarka.

— Aurpegi bat... Aurpegi bat dago begira! —egin zuen Lottiek garrasi.

Egia zen, hantxe zegoen. Leihoari erantsita zegoen aurpegi zurbil bat, begi beltzak eta bizar beltza.

— Amona! Ama! Norbait!

Baina artean ateraino heldu ez, bata bestearen gainera zilipurdika, eta osaba Jonathanek zabaldu zuen. Mutilak etxeratzera zetorren.

—X—

Lehenago iristeko asmoa zuen, baina aurreko lorategian topo egin zuen Lindarekin, belardian hara eta hona zebilela, gelditu eta krabelin hil bat biltzen, edo heldulekua jartzen sortako krabelin buru-astun bati, edo zerbait sakon usaintzen, eta berriro ere oinez, urruti dagoenaren airearekin. Soineko zuriaren gainean txal hori bat zeraman, beheko barrena arrosaduna, Chinaman dendakoa.

— Kaixo, Jonathan! —hots egin zion Lindak.

Eta Jonathanek bere panama-kapelu narrasa bizkor erantzi, bularraren kontra ezarri, belaun bat makurtu eta muin eman zion Lindari eskuan.

— Agur, eder hori! Agur, zeruko muxika lore!
—burrunbatu zuen ahots lodiak xamur—. Non
dira beste andereño xarmantak?

— Beryl kanpoan bridgean jokatzeko eta ama
mutikoa bainatzen. Zerbaiten eske zatoz?

Troutenekoei beti gauzak bukatu eta Burne-
llenera jotzen zuten azken orduan. Baina Jonat-
hanen erantzun bakarra:

— Maitasun apur bat, goxotasun apur bat —
eta koinataren aldamenetik abiatu zen.

Berylen hamakan etzan zen Linda, manuka
arbolaren azpian. Jonathan ere ondoan etzan
belardian, belar izpi luze bat hartu, eta hari
hozka hasi zen. Ongi ezagutzen zuten batak bes-
tea. Ume oihuak iristen ziren beste lorategieta-
tik. Arrantzale baten gurdi arina igaro zen bide
hondartsutik danbaka, eta zakur bat aditzen zen
urruti zaunkaka; motel iristen zen hotsa, zaku-
rarak burua zaku batean baleuka bezala. Arreta
jarriz, itsas goraren ziztu gozoa aditzen zen, har-
txintxarra astintzen. Abailtzen ari zen eguzkia.

— Bulegora itzuliko omen zara astelehenean,
e Jonathan?

— Astelehenean kaiola ireki eta taka itxiko da biktimaren atzean, hamaika hilabete eta astebe-
te —erantzun zuen Jonathanek.

Linda apur bat kulunkatu zen.

— Latza izan behar du —esan zuen astiro.

— Nahi duzu barre egitea, arreba maite? Nahi duzu negar egitea?

Linda ohituta zegoen Jonathanen hizkerare-
kin eta ez zuen aintzat hartu.

— Dirudienez —esan zuen ezbaikor—, azke-
nerako etsitzen da. Edozertara etsitzen da.

— Bai? Mm! —«Mm» hura hain izan zen sako-
na, non bazirudien lur azpiko durundia izan
zela—. Nola egiten ote da hori? —hausnartu
zuen Jonathanek—. Nik ez dut egundo lortu.

Hura han etzanda ikusita, Lindari berriro eto-
rri zitzaion gogora zer gizon egokia zen. Arraroa
zen pentsatzea bulegari arrunta besterik ez zela,
Stanleyk hark halako bi irabazten zuela. Zer ger-
tatzen zitzaion Jonathani? Anbizio falta; hori
izango zen. Baina, halere, argi zegoen dohainak
zituela, berezia zela. Sekulako irrika zuen musi-
karako; sos guztiak liburutan joaten zitzaizkion.
Beti zituen ideia berriak, proiektuak, planak.

Baina atarramenturik ez. Su berriaren galda zuen; ia-ia txingar hots gozoa ere entzun zitekeen, hura gauza berriak azaltzen, jorratzen eta lantzen hasten zenean; baina handik laster, dena amatatu eta ez zegoen errautsa besterik, eta Jonathan han ibiltzen zen, gosetutako begi beltzekin. Halakoetan hizkera zentzugabe hura nabarmentzen zuen, eta elizan kantatzeko orduan —koruko zuzendaria zen—, halako intentsitate dramatiko aritzen zen, non himno eska-senak ere gorentasun profano bat hartzen zuen.

— Hain da txoroa eta madarikatua bulegora joan beharra astelehenean —esan zuen Jonathane—, orain arte eta gerora ere berdin. Bizitzako urterik onenak aulki batean eserita bederatzietatik bostak arte, besteren liburuetan kontuak zirrimarratzen! Xelebrea da horrela erabiltzea inoren bizitza bakarra, ezta? Ameslari hutsa ote naiz?

Belarretan buruz gora jarri, eta Lindari begiratu zion.

— Esaidazu zer alde dagoen nire bizitza eta gatibu arrunt batenaren artean. Neuk sartzen dudala neure burua kartzelan, eta inork ez naue-

la sekula askatuko. Hori da nik ikusten dudana alde bakarra. Nirea okerragoa da. Izan ere, gogoz kontra bultzatu banindute —ostikoka edo—, atea itxitakoan, edo handik bost urtera, agian egoera onartu eta hasiko nintzen interesatzen eulien hegaldiarekin, edo igarobidetik dabilen zaindariaren pausoak zenbatzen, ibilera aldaketei-eta adi-adi. Baina orain nagoen bezala, gela barrura bere kabuz hegatu den zomorroaren antzekoa naiz: hormak jo, leihoak jo, goiko sabaian kolpea hartu, direnak eta ez direnak egiten ditut, kanpora irtetea izan ezik. Eta bien bitartean sitsa, edo tximeleta, edo dena delako horren moduan ari naiz pentsatzen: «Zer laburra bizitza! Zer laburra bizitza!» Gau bat edo egun bat besterik ez dut, eta hortxe dago, kanpoan zain, lorategi zabal arriskutsu hori, ezagutu gabea, ikertu gabea.

— Baina horrela sentitzen bazara, zergatik... —hasi zen Linda bizkor.

— Ai! —hots egin zuen Jonathanek. Eta «Ai!» hura ia bozkariozkoa izan zen—. Hor dago koska. Zergatik? Zergatik, baina? Hori da zoratzeko galdera misteriozkoa. Zergatik ez naiz berriro hegaz

irteten? Hor dago leioa edo atea edo sartzeko erabili dudana. Ez dago esperantzarik gabe itxia... ezta? Zergatik ez dut aurkitzen eta alde egiten? Erantzun, arrebatxo. —Baina ez zion erantzuteko betarik eman—. Zomorro hori bezalaxe nago. Zerbaitengatik —Jonathanek eten bat egin zuen—, ez da zilegi, debekatua dago, zomorroen legearen kontra doa, instant batez bada ere ezin dut utzi kristalean gora arrastatzea, jotzea eta astintzea. Zergatik ez dut bulegotik hanka egiten? Zergatik ez dut serio aztertzen, oraintxe bertan, zerk galarazten didan joatea? Ez dut sekulako loturarik. Bi mutil mantendu behar ditut, baina, azken batean, mutilak dira. Itsasora alde egin nezake, edo lana topatu barrualdean, edo... —Bat-batean Lindari irribarre egin eta ahotsa aldatuta esan zion, sekretu bat kontatzen ari balitzaio bezala—: Ahula... ahula. Kemenik ez. Tinkotasunik ez. Nire bizitzan printzipio gidaririk ez, esan liteke.

Baina orduan haren belusezko ahots beltza hedatu zen:

*Entzun ezazu istorioak
Nola duen jarraitzen...*

eta isilik geratu ziren.

Eguzkia ezkutatua zegoen. Sartaldeko zeruan arrosa koloreko hodei zanpatuen masa handiak zeuden. Argi izpi zabalek distiratzen zuten hodei artetik, eta baita harago ere, zeru osoa estaliko balute bezala. Goialdean desegiten zihoan urdina; urre zurbil bihurtu zen, eta sasien islak, hantxe erantsita, ilun eta distiratsu argitzen zuen, metala bailitzan. Batzuetan, argi izpi horiek beldur ematen dute, zeruan agertzen direnean. Gogora ekartzen dizute han goian Jehova dagoela, Jainko jeloskorra, Ahalguztiduna, begia zure gainean, beti erne, sekula nekatu gabe. Oroitzen zara ere, Bera datorrenean mundu osoa hilerri erraustu bilakatuko dela; aingeru hotz, argitsuek batera eta bestera eramango zaituzte, eta ez da astirik egongo hain erraz esplika litekeena esplikatzeko... Baina gau honetan, Lindari iruditu zitzaion zilarrezko izpi haietan bazegoela zerbait txit pozgarri eta maitagarria. Eta orain ez zen iristen itsasoko hotsa. Ezti-

ro haize ematen zuen, edertasun xamur, maitagarri hori haren altzora bilduta bezala.

— Dena okerra, dena okerra —heldu zen Jonathanen ahots goibela—. Hau ez da agertokia, ez da kokaleku egokia... hiru aulki, hiru idazmahai, hiru tintontzi eta burdin harizko sareta bat.

Lindak bazekien Jonathan ez zela aldatuko, baina halere esan zion:

— Beranduegi da orain?

— Zahartu naiz, zahartu... —intonatu zuen Jonathanek. Lindarengana makurtu eta burua igurtzi zuen eskuaz—. Ikusi!

Ile beltza erabat zilarrez zipriztindua zeukan, hegazti beltz baten bularreko lumajea bezala.

Harritu zen Linda. Ez zuen asko uste ilea zuritzen hasi zitzaionik. Baina halere, hura ondoan zegoen bitartean, antsika eta nagiak ateratzen, lehenbiziko aldiz ikusi zuen, ez irmo, ez galai, ez axolagabe, baizik eta ja urteetan sartua. Belar gero eta beltzagoan oso garaia zirudien, eta Lindari burutik pasatu zitzaion: «Belar gaiztoa bezalakoa dun.»

Berriro makurtu eta musu eman zion hatzetan.

— Zeruak sari dezala zure pazientzia gozo hori, andereño —xuxurlatu zuen—. Nire fama eta fortunaren oinordekoen bila noa.

Horrenbestez joan zen.

—XI—

Argia ageri zen baserriko leihoetan. Urrezko bi laukitxo erortzen ziren krabelin eta ilen kultibatutako puntadunen gainera. Florrie, katua, ataripera irten eta goiko mailan eseri zen, atzapar zuriak bata bestetik hurre, buztana gorputz azpian kiribildua. Pozik ematen zuen, egun osoa une honexen zain egon ondoren bezala.

«Eskerrak, ari du iluntzen —esan zuen Florriek—. Eskerrak, amaitu da egun luzea.» Aran antzeko begi berdeak zabaldu zituen.

Orduantxe zalgurdiaren burrunba entzuzen, Kellyren zarta hotsa. Hurbildu ahala, aditzeko modukoak egin ziren herriko gizonen ahotsak, ozen hizketan. Burnelleneko atarian gelditu zen.

Stanleyk bidexkaren erdia egina zuenean gorantz, Linda ikusi zuen.

— Zu zara, bihotza?

— Bai, Stanley.

Lore-multzoaren gainetik salto egin eta besotan hartu zuen emaztea. Linda bil-bil eginda geratu zen besarkada ezagun, sendo, sutsu hartan.

— Barkatu, laztana, barkatu —toteldu zuen Stanleyk, eskua Lindaren kokots azpian jarri eta aurpegia bere aldera jaso.

— Barkatu? —egin zuen Lindak irribarre—. Zer ordea?

— Jainko maitea! Nola ahaztuko zitzaizun bada! —hots egin zuen Stanleyk—. Egun osoa horretan pentsatzen eraman dut. Izugarri egun txarra izan dut. Airean joan eta zuri telegrama bidaltzekotan egon naiz, baina konturatu naiz ni neu seguru asko mezua baino lehen helduko nintzela. Gorriak ikusi ditut, Linda.

— Baina Stanley —esan zuen Lindak—. Zer barkatu behar dizut?

— Linda! —oso minduta zegoen Stanley—. Ez zara ohartu —ohartuko zinen—, gaur goizean

zuri adio esan gabe joan naizela? Nolatan egin ote dut horrelako zerbait. Nire umore xeble hau! Baina tira —hasperen egin eta berriro hartu zuen Linda besoetan—, nahikoa sofritu dut gaur.

— Zer duzu eskuan? —galdetu zuen Lindak—

. Eskularru berriak? Utzi ikusten.

— O, larruzko zatar merke batzuk —esan zuen Stanleyk umil—. Gaur zalgurdian Belli berdinak ikusi eta, denda aurretik pasaeran, bizkor sartu eta pare bat erosi dut. Zeri egiten diozu barre? Ez diozu gaizki irizten, ezta?

— Alderantziz, maitea —esan zuen Lindak—.

Zentzuz jokatu duzu.

Lindak eskularru zabal, zurixketako bat jantzi eta eskuari begira jarri zen, jira hona eta jira hara. Irribarretsu jarraitzen zuen.

Stanleyk gustura esango ziokeen: «Erosten nituen bitarte guztian zukan egon naiz pentsatzen.» Egia zen, baina, auskalo zergatik, ezin izan zuen esan.

— Goazen barrura —esan zuen.

Zergatik sentitzen zara hain desberdin gauez? Zergatik da hain emozionantea esna egotea, beste guztiak lo daudenean? Berandu, oso berandu da! Halere, gero eta esnago sentitzen zara, eta arnasa hartzen duzunero badirudi pixkana esnatzen ari zarela, egun argikoa baino mundu berri, zoragarri, askoz zirrargarri eta emozionanteagoan. Eta zer da konspiratzaile bat zaren sentazio bitxi hau? Bizi-bizi, ezkutuan zabilta zure gelan. Apain-mahai gainetik zerbait hartu, eta berriro bertan uzten duzu, hotsik atera gabe. Eta guztiak, baita oheko adarrak ere, zu ezagutu, zurekin bat egin, zure sekretua gordezten du...

Egunez ez duzu oso gogoko zure gela. Sekula ez zara berarekin oroitzen. Sartu eta atera ibiltzen zara, atea han dabil ireki eta itxi, armairua kirrinka. Ohe ertzean eseri, oinetakoz aldatu eta bazoaz airean. Ispiluan murgildu, ilean bi urkila, sudurrean hautsa eta ospa berriro. Baina orain, bat-batean, oso begiko duzu. Gela txiki bitxi polit

bat. Zeurea. O, zer poza ematen duen gauzen jabe izateak! Neurea, neronena!

— Neronena betiko?

— Bai. —Bien ezpainak batu ziren.

Ez, noski, horrek ez zuen zerikusirik. Hori dena txorakeria eta berriketa zen. Baina, nahiz eta berak nahi ez, Berylek argi ikusi zuen bikote bat zutik gelaren erdian. Neskaren besoak mutilaren lepoan; mutila neskari eusten. Eta mutila marmarka:

— Nire ederra, eder maitea!

Berylek ohetik salto egin, leihoraino bizkor joan eta leiho ondoan belaunikatu zen, ukondok goiko koskan. Baina gau ederra, lorategia, sasi bakoitza, hosto bakoitza, bai hesola zuriak, bai izarrak, denak ziren konspiratzaile. Ilargiaren distira hain zen handia, non loreek egunez bezala distiratzen zuten; iturri-belarren itzala, lirio antzeko hosto finekin eta loreak zabal-zabal, ataripe zilartsuan sakabanatzen zen. Manuka arbola, hego haizearekin makurtua, txoria ematen zuen hanka bakarrean, hego bat luzatua.

Baina Berylek sasiartera begiratu zuenean, sasiartera triste zegoela iruditu zitzaion.

«Zuhaitz mutuak gara, gauean tente jarri eta ez dakigu zer eskatzen, otoi», esan zuen sasiarte penatuak.

Egia da, bakarrik egon eta bizitzaz pentsatzen duzunean, hau beti tristea da. Emozioak eta horrek guztiak bat-batean ihes egiten dizu nola edo hala, eta badirudi, isiltasunean, norbaitek deitzen dizula, eta zuk lehenengo aldiz aditzen duzula zeure izena:

— Beryl!

— Bai, hemen nago. Beryl naiz. Nor dabil nire bila?

— Beryl!

— Utzi zugana joaten.

Bakartia da zeure gisa bizitzea. Jakina, badaude senideak, lagunak, hainbat eta hainbat; baina ez da hori kontua. Inork ezagutzen ez duen Beryl hori aurkituko duen norbait nahi du, beti Beryl hori izatea espero izango duen norbait. Maitale bat nahi du.

«Eraman nazazu jende honen guztiaren ondotik, maitea. Goazen hemendik urruti. Bizi dezagun geure bizitza, dena berria, dena geurea, hasiera-hasieratik. Pitz dezagun geure sua.

Eseri eta jan dezagun elkarrekin. Hitz egin dezagun gauzez, luze eta zabal.»

Eta pentsamendua zen kasik: «Salba nazazu, maitea. Salba nazazu!»

...«Aurrera! Ez geldoa izan, bihotza. Ongi pasa ezan, gaztea haizen bitartean. Kontseilu hori ematen dinat.» Eta Kember andrearen irrintzi ozen, arduragabeari barre txoroko erreka bat elkartu zitzaion.

Izan ere, ikaragarri zaila da inor gabe egotea. Beti edozeren menpe. Eta ezin zakarra izan. Beti beldur, badiako beste txorokiloak bezain ezjakin eta ilauna emango ote duzun. Eta... liluragarria da jendearen gain boterea duzula jakitea. Bai, liluragarria...

O, zergatik, zergatik ez da «hura» laster etortzen?

«Hemen bizitzen segituz gero —pentsatu zuen Berylek—, edozein gauza gertatuko zaidan.»

«Baina nola dakin hura noizbait etorriko zainala?», egin zuen iseka bere baitako ahots txiki batek.

Baina uxatu zuen Berylek. Ez zen bazterrean geratuko. Besteak agian, baina bera ez. Ez zen posible Beryl Fairfield ez ezkontzea, hain neska jator, xarmanta.

— Gogoratzen Beryl Fairfield?

— Gogoratu? Nola ahaztuko naiz! Uda batez ikusi nuen badian. Hondartzan zegoen, museliazko soineko urdin bat zeramala... ez, arrosa, lastozko kapelu krema kolore batekin... ez, beltza. Baina urteak dira ja.

— Beti bezain ederra dago, gehiago ez bada.

Berylek irribarre egin, ezpaina ausiki eta lora-tegian barrena so egin zuen. Eta so egitean nor-bait ikusi zuen, gizon bat, errepidea utzi eta hesolen ondoko belarditik etortzen, zuzenean beragana bezala. Beryli taupaka hasi zitzaion bihotza. Nor zen? Nor izan zitekeen? Lapurra behintzat ez, nola bada, erretzen zetorren, tipi-tapa. Bihotzak salto egin zion; buruz behera bezala jarri zitzaion, eta gero gelditu. Ezagutu zuen.

— Gabon, Beryl andereñoa —esan zuen aho-tsak goxo.

— Gabon.

— Etorri nahi duzu paseatzera? —arrastatu zituen hitzak.

Paseatzera... gaueko garai hartan!

— Ezin dut. Denak ohean daude. Denak lo.

— O! —esan zuen ahotsak arin, eta ke bolar da gozo bat zabaldu zen—. Ze inporta bestea? Zatoz! Gau giro ederra dago. Ez da arimarik ere ageri.

Berylek ezetz egin zuen buruaz. Baina bere baitan zerbait itzarri zen, burua jaso zuen zerbaitetik.

Ahotsak esan zuen:

— Beldurra? —Eta burlazko doinu batez—: Neska gaixoa!

— Ezta batere —esan zuen Berylek. Hitz egin ahala, bazirudien barruko gauza ahul hura harrotzen ari zela, bat-batean ikaragarri indartzen; joateko gogoa zuen!

Eta hau ongi ulerturik bezala, ahotsak esan zuen, goxo eta ezti, baina erabakiz:

— Goazen!

Beryl leiho apaletik irten, ataripea zeharkatu eta lasterka joan zen belarretik atakaraino. Hantxe zuen beste hura aurrean.

— Hori da arrazoia! —egin zuen ahotsak hasperen, eta ondoren iseka—: Ez zara beldur, ezta? Ez zara beldur?

Baina bai; izututa zegoen, eta dena desberdin iruditu zitzaion. Ilargia erne eta dir-dir; itzalak burdin barrak balira bezala. Eskutik heldu zion hark.

— Ezta batere —esan zuen arin—. Zer dela eta?

Eskutik tiratu zion goxo, erakarriz. Berak eutsi egin zion.

— Ez, ez naiz urrutiago joango —esan zuen Berylek.

— Txorakeriak! —Harry Kemberek ez zion sinesten—. Goazen! Fuksia landare horretaraino bakarrik. Goazen!

Fuksia landarea garaia zen. Hesi gainera erortzen zen, erreka bezala. Ilunpe gune txiki bat zegoen azpian.

— Ez, egiatan, ez dut nahi —esan zuen Berylek.

Une batez, Harry Kemberek ez zuen erantzun. Orduan hurreratu, aurrean jarri, irribarre egin eta bizkor esan zuen.

— Ez tuntuna izan! Ez tuntuna izan!

Sekula ez zuen halako irribarrerik ikusi. Mozkorra ote zegoen? Irribarre argi, itsu, izugarri hark izoztuta utzi zuen beldurrez. Zer zebilen? Nolatan joan zen haren ondora? Lorategia horrela zorrotz galdezka ari zitzaiola, ataka zabaldu eta katua bezain arin sartu zen Harry Kember eta heldu zion.

— Deabru arraioa! Deabru arraioa! —esan zuen ahots gorrotagarriak.

Baina Beryl indartsua zen. Irrist egin, saihestu eta libratu zen.

— Bilaua zara, bilaua —esan zion berak.

— Orduan zergatik etorri zara, Jainkoaren ize-nean? —toteldu zuen Harry Kemberak.

Inork ez zion erantzun.

Laino txiki, bare batek zeharkatzen zuen ilar-gi gaina. Iluntasunezko une hartan entzun zen itsasoa sakon, aztoratua. Gero hodeia igaro, eta itsas hotsa zurrumurru ahul egin zen, amets ilun batetik esnatuta bezala. Dena isil.

LORATEGIKO FESTA

Azken batean, eguraldi bikaina zuten. Eskatzen hasita ere ezingo zuten lortu egun bikainagoa lorategian festa egiteko. Bare, epel, zerua oskarbi. Uda hasieran gertatu ohi den moduan, urrezko gandu arin batek biltzen zuen goi urdina. Egunsentian hasi zen lorazaina belardia moztan eta eskuareten, distira antzeko batez utzi arte belarra eta erroseta zapal ilunak, non lehen bitxiloreak egon ziren. Arrosei dagokienez, argi zegoen hango jendeak bazekiela horiek direla lorategiko festetan jendea hunkitzen duten lore bakarrak; denek ongi ezagutzen dituzten lore bakarrak. Gau bakarrean ehundaka jaio ziren, bai, ehundaka; zuhaixka berdeak makurtuta zeuden, aingeruen bisita jaso ondoren bezala.

Artean gosaria bukatzeko zeudela etorri ziren gizonak estalpea muntatzera.

— Non jarriko duzu estalpea, ama?

— Alferrik galdetzen didan, laztana. Aurten zuen bizkar utziko dinat dena. Ahaztu zuen ama

naizela. Ohorezko gonbidatua banintz bezala trata nazazue.

Baina Meg inola ere ezin zen gizonengana joan eta ezer zuzentzen hasi. Gosalaurretik ilea garbitu eta kafea hartzen ari zen, buruan turban- te berdea zuela eta masaila bakoitzean ile kizkur ilun busti bat erantsita. Jose, tximeleta, azpiko gona sedazkoa eta kimono txaketa jantzita jais- ten zen beti.

— Zeuk joan beharko duzu, Laura; zeu zara artista.

Airean joan zen Laura, eskuan ogi xerra guri- narekin zuela. Izan ere, zoragarria da kanpoan jateko aitzakia edukitzea, eta gainera izugarri gustatzen zitzaion gauzak antolatzea; horretan nagusi zela uste zuen beti.

Lorategiko bidexkan lau gizonezko zeuden, taldean jarrita mahuka hutsik. Oihalez bildutako hagak zekartzaten, eta bizkarrean behera lana- bes poltsa handiak. Zirrara sortzen zuten. Une hartan Laurak nahiago izango zukeen gurinaren ogi xerra eskuan eduki ez balu, baina ez zegoen hura non utzirik eta ez zeukan botatzerik ere. Gorritu zen, eta haiengana hurbildu ahala izake-

ra zorrotza eta bista txar samarra balu bezala egin zuen.

— Egun on —esan zuen, amaren ahotsa kopiatuz. Baina hain faltsua atera zitzaion non lotsatu baitzen, eta neska txiki batek bezala toteldu zuen—: O... ee... zer duzue... estalpea jarri beharra?

— Bai, andereño —erantzun zuen gizon garaienak, argala eta orinduna, tresnen poltsa berdindu, lastozko kapelua atzera bota eta irribarre eginez—. Horixe.

Irribarre zabal eta jator hark on egin zion Laurari. Zer begi politak, txikiak baina urdin ilun-ilunak! Eta orain besteei begiratu zien, haiek ere irribarretsu. «Lasai, ez dugu hozka egiten eta,» ematen zuen zioela haien irribarreak. Zer langile atseginak! Eta zer goiz giro ederra! Baina ez zuen giroa aipatu behar; fundamentuz aritu behar zuen. Estalpea.

— Lirioen belardian ipiniko bagenu? Zer iruditzen?

Eta lirioen belardia seinalatu zuen, ogi-puskarren eskuarekin ez bestearekin. Orduan haiek jiratu eta hara so egin zuten. Gizon mozkote

batek beheko ezpaina okertu eta gizaseme garaiak kopeta zimurtu zuen.

— Ez dakit ba —esan zuen—. Ez da nahikoa nabarmentzen. Izan ere, estalpea jartzerakoan —eta Laurarengana jiratu zen oso modu naturalen—, aurrez aurre begia joko dizun lekua da onena, ez dakit ulertzen didazun.

Lauraren heziketak pixka batean zer-pentsa eman zion, alegia zuzena ote zen langile batek begia jotzeaz hitz egitea berari. Baina ongi asko ulertu zion.

— Tenis-zelaiaren ertz batean —proposatu zuen Laurak—. Baina orkestra egongo da horietako batean.

— Mm, orkestra egongo da beraz? —esan zuen beste langile batek.

Zurbila zen. Itxura erasana zuen, begi ilunez tenis-zelaia ikertzerakoan. Zer ote zerabilen buruan?

— Oso orkestra txikia —esan zuen Laurak goxo-goxo. Beharbada ez zuen garrantzirik izango orkestra txikia bazen.

Baina tartean sartu zen gizaseme garaia:

— Begira, andereño, hortxe bertan. Zuhaitz aurre horretan. Horko aldean. Ederki geratuko da.

Karaken aurrean. Baina hartara karaka arbolak ezkutuan geratuko ziren. Eta politak ziren zinez, hosto zabal distiratsuak, eta ale-xorta horiak zituztela. Halakoxe arbolak imajinatuko zenituzke uharte desertu batean hazten, harro, bakarti, hostoak eta aleak eguzki aldera tente, gorentasun isilean bezala. Estalpeagatik ezkutuan geratu beharko ote zuten?

Hala beharko. Nork bere hagak sorbaldaratu eta abiatu ziren. Gizaseme garaia bakarrik geratu zen atzean. Hura makurtu, izpiliku mutur bat atximurkatu, hatz lodia eta erakuslea sudurrera eramán eta usaindu zituen. Keinu hura ikusita, Laurari karaken kontua ahaztu zitzaion, erabat harrিতта gizaseme hura halako gauzen zale zelako... izpiliku usainaren zale. Ezagutzen zituen gizonetatik zenbatek egingo zuen hori? O, haiek bai langile atseginak, pentsatu zuen. Zer-gatik ez lagun gisa langileak eduki eta ez beste mutil txoro haiek, berarekin dantzara eta igan-

deko afarira etortzen zirenak? Askoz hobeto konponduko zen honelako gizonekin.

Erru osoa, iritzi zion, gizaseme garaia gutun-azal baten atzean zerbait marrazten ari zela, gero non edo non lotu edo esekitzeko, klase arteko diferentzia inozo horiena da. Bada berak ez zituen aintzat hartzen. Ezta batere, ezta zipitzik ere... Eta orduan iritsi zitzaion zurezko mailuen dinbi-danba. Norbaitek txistu egin, norbaitek hots egin zuen:

— Hor hago, motel?

«Motel!» Hura bai lagunartekoa, hura bai... Zer pozik zegoen frogatzeko, gizaseme garaiari erakusteko zer eroso sentitzen zen, eta nola arbuiatzen zituen konbentzionalismo txoroak, marrazki txiki hari erreparatu bitartean Laurak hozkada handi bat eman zion ogi xerrari. Bera ere langile sentitzen zen.

— Laura, Laura, non zara? Telefonoa, Laura!
—egin zuen garrasi ahots batek etxe barrutik.

— Banoa!

Han joan zen lasterka, belardian barrena, bidexkan gora, mailetan gora, atarian zehar,

portxe barrura. Sarreran zeuden aita eta Laurie, kapeluak igurtzitzen bulegorako prest.

— Aizu, Laura —esan zuen Lauriek oso bizkor—, ea arratsalderako begirada bat ematen diozun nire zamarrari. Lisatu beharra duen edo.

— Bai —erantzun zion. Ez non eta ez han, ezin izan zion bere buruari eutsi. Lauriegana lasterka joan eta besarkada txiki, arin bat eman zion—. Zenbat gustatzen zaizkidan festak, zuri ez? —esan zuen Laurak arnaska.

— Dezente —esan zuen Laurieren mutilahots beroak, arreba besarkatuz eta bultzadatxo bat emanez—. Korri telefonora, neska.

Telefonoa.

— Bai, bai; o bai. Kitty? Egun on, bihotza. Etorriko zara bazkaltzera? Mesedez. Bai pozik. Oso otordu arina izango da... sandwichen ogi azalak eta merenge hautsiak, hondarrak baino ez. Bai, giro ederra, ezta? Soineko zuria? O, nik zu bezala izatera bai. Itxaron, ez moztu. Ama dut deika. —Lurak bizkarra atzeratu zuen—: Zer, ama? Ez dizut aditzen.

Sheridan andrearen ahotsa eskaileretan behera isuri zen.

— Esaion joan den igandeko kapelu zoragarria janzteko.

— Amaren partetik, joan den igandeko kapelu zoragarria janzteko. Ondo. Ordu batean. Gero arte.

Laurak telefonoa eseki, besoak burutik gora eramanean, arnasa sakon hartu, nagiak atera eta erortzen utzi zituen besoak.

— A! —egin zuen antsia, eta antsia egin bezain laster zuzendu zuen bizkarra. Geldirik geratu zen, entzuten.

Bazirudien zabalik zeudela etxeko ate guztiak. Etxea bizi-bizi zegoen pauso leun, arinekin eta ahotsen joan-etorriarekin. Sukalde ingurura eramaten zuen feltro berdezko atea ireki eta itxi zebilen, danbateko motelez. Eta ondoren hots bat iritsi zen, barre luze txoro batena. Piano astun, gurpil gogorra ari ziren mugitzen. Baina airea! Pentsatzen jarrita, horrelakoa zen beti airea? Harrapaketan zebiltzan haize bolada xumeak, leiho gainetik sartu eta atetik irten. Eta bi txoko zeuden eguzkitan, bata tintontzia, beste argazki baten lauki zilartsua, haiek ere jolasean. Txoko txiki kuttunak. Batez ere tintontzia-

ren tapa. Bero samar zegoen. Zilarrezko izar txiki beroa. Musu emateko modukoa.

Atariko txirrinak gogor jo eta Sadieren gona irudiduna aditu zen eskaileretan zurrumurruka. Gizon ahots batek marmar egin zuen; Sadiek axolarik gabe erantzun zuen:

— Nik ez dakit ezertxo ere. Itxaron. Galdetzerara noa Sheridan andreari.

— Zer dugu, Sadie?

Laura sarrerara etorri zen.

— Lore-dendakoa da, andereño Laura.

Hala zen, bai. Hantxe, atetik barrualdera, azpil axial, zabal bat zegoen lirio arrosen ontziz beteta. Denak berdinak. Lirioak besterik ez... Kana-lirioak, lore arrosa handiak, erabat zabalik, ikustekoak, kirten gorriminen gainean bizi-bizi, ia beldurra emateraino.

— Ooo, Sadie! —esan zuen Laurak, intziri baten antzean.

Makurtu zen, lirioen galda haren aurrean berotu nahian bezala; hatzetan sentitzen zituen, ezpainenetan, bularrean hazten.

— Okerren bat da —esan zuen ahul—. Ez da posible inork hainbeste eskatzea. Sadie, zoaz amaren bila.

Baina une hartan Sheridan andrea ondoratu zitzaien.

— Oso ongi —esan zuen patxadan—. Bai, nik eskatu ditut. Ez dira ederrak? —Lauraren besoa estutu zuen—. Atzo denda aurretik pasatzerakotan ikusi nitinan erakusleihoan. Eta bat-batean bururatu zitzaidan, bizitzan behingoz bada ere nahi hainbat lirio edukiko nituela. Lorategiko festa aitzakia aproposa dun.

— Esan ez duzu ba aurten ez zarela horretan sartuko? —galdetu zuen Laurak.

Sadie joana zen. Lore-dendakoa artean kanpoan zegoen furgoian. Laurak besoa amaren lepotik pasatu eta xamur, oso xamur, hozka egin zion amari belarrian.

— Alabatxo, ez dun nahiko ama erabat zentzuzkoa izatea, ezta? Ez idan hori egin. Hemen dun gizona.

Lirio gehiago zekartzan, beste azpilkada bat.

— Pila itzazu barruan, atearen alde bakoitzean, mesedez —esan zuen Sheridan andreak—. Ez dun uste, Laura?

— O, bai, ama.

Salan, Meg, Jose eta Hans txiki saiatuaren artean lortu zuten azkenean pianoa mugitzea.

— Aizue, zer iruditzen zaizue besaulkia hormaren kontra jarri eta aulkiak ez beste guztia gelatik ateratzea?

— Ongi.

— Hans, eramaitzazu mahai hauek erretzailegelara, eta ekarri erratza tapizeko marka hauek kentzeko eta... itxaron, Hans.

Josek oso gustukoa zuen aginduak ematea morroiei, eta hauek berriz Joseren esana egitea. Drama batean ari zirela sentitzen zuten.

— Esan amari eta andereño Laurari segituan etortzeko.

— Oraintxe, andereño Jose.

Megengana jiratu zen Jose:

— Pianoarekin saiatu nahi dut, badaezpada arratsaldean kantatzeko eskatzen badidate. Jo dezagun «Bizitza Tristea».

«Pom! Ta-ta-ta ti-ta!» Pianoaren oldar sutsuak Joseren aurpegia aldatu zuen. Eskuak estutu zituen. Triste eta misteriotsu begiratu zien sartzen ari ziren amari eta Laurari.

*Bizitza tristea,
Malko ta hasperen.
Maitea badoa,
Bizitza tristea,
Malko ta hasperen.
Maitea badoa,
Pixkana... ahazten!*

Baina «Ahazten» hitzarekin batera, pianoak inoiz baino etsiago jotzen zuen arren, Joseren aurpegian irribarre distiratsu bat agertu zen, ika-ragarri gupidagabea.

— Ahotsa ongi dut, ezta amatxo? —esan zuen arraiki.

*Bizitza tristea,
Esperantza hiltzen.
Ametsa... Esnatzea.*

Baina orduan Sadiek eten zituen.

— Zer duzu, Sadie?

— Arren, madam, sukaldariaren partetik ea gertu dauden sandwichen txartelak.

— Sandwichen txartelak, Sadie? —errepikatu zuen Sheridan andreak ametsetan. Alabek aurpegian antzeman zioten ez zeudela gertu—. Utzi pentsatzen. —Eta tinko esan zion Sadieri—: Esaiozu hamar minutu barru edukiko dituela.

Sadie joan zen.

— Ea, Laura, —esan zion amak bizkor—. Hator nirekin erretzaile-gelara. Gutun-azal baten atzean ditinat izenak. Heuk idatzi beharko dizkidan. Meg, igo segituan gora eta ken ezan burutik zatar busti hori. Jose, korri, bukatu janztez. Egizue esana, umeok, bestela aitari esan beharko zionat iluntzean datorrenean. Eta... eta Jose, mesedez lasai ezan sukaldaria, sukaldera bahoia. Izututa naukan gaur.

Azkenean jangelako erloju atzean topatu zuten gutun-azala, nahiz eta Sheridan andreak ezin asmatu nola iritsi zen hara.

— Inondik ere zuetako batek lapurtu zidan poltsatik, argi eta garbi gogoratzen bainaun...

gaztazko krema eta limoizko gaztanbera. Hartu dun?

— Bai.

— Arrautza eta... —Sheridan andreak gutun-azala urrutiratu zuen—. Azenarioa jartzen duela zirudín. Ez dín azenarioa jartzen, ezta?

— Azeituna, amatxo —esan zuen Laurak sorbalda gainetik begira.

— Bai, noski. Azeituna. Hara zer nahasketa. Arrautza eta azeituna.

Azkenean bukatu zuten, eta Laurak sukalderra eramán zituen txartelak. Jose aurkitu zuen han sukaldaria lasaitzen, nahiz eta honen itxura ez zen batere izugarria.

— Inoiz ez ditut hain sandwich ederrak ikusi —esan zuen Joseren ahots aztoratuak—. Zenbat klase esan duzu daudela? Hamabost?

— Hamabost, andereño Jose —esan zuen sukaldariak.

— Ba zorionak, aizu.

Sukaldariak sandwichen labana luzeaz apurrak bildu, eta zabal egin zuen irribarre.

— Hemen da Godberenekoa —eman zuen Sadiék jakitera, janaritegitik irtenez. Leiho ondolik pasatzen ikusi zuen gizona.

Han ziren, beraz, kremazko opilak. Ospetsuak ziren Godbereneko kremazko opilak. Inor ez zitzaion bururatzen etxean egiten hastea.

— Ekarri eta jar itzazu mahai gainean —agindu zuen sukaldariak.

Sadiék opilak sukaldera sartu eta ate aldera baztertu zen. Jakina, Laura eta Jose helduegiak ziren halako gauzez arduratzeko. Nolanahi ere, biek aitortu zuten opilek itxura bikaina zutela. Oso. Sukaldaria haiek txukuntzen hasi zen, gehiegizko azukrea kentzen.

— Garai bateko festak gogorarazten dituzte, ezta? —galdetu zuen Laurak.

— Nola edo hala —esan zuen Jose praktikoak, ez baitzitzaion gustatzen inork ezer gogoraraztea—. Itxura ederra dute, arinak eta harroak. Bai horixe.

— Har ezazue biok bana, maiteok —esan zuen sukaldariak ahots patxadatsuz—. Ama ez da enteratuko.

O, nola bada. Kremazko opil finak gosalongoan. Hotzikara ematen zizun pentsatze hutsak. Nolanahi ere, bi minuturen buruan Jose eta Laura hatzak miazkatzen ari ziren, esnegain harrotuak bakarrik pizten duen begirada bildu, galdu horrekin.

— Goazen lorategira atzeko aldetik —proposatatu zuen Laurak—. Gizonak estalpearekin nola ari diren ikusi nahi dinat. Izugarri gizon atseginak ditun.

Baina atzeko atea trabatua zuten sukaldariak, Sadiiek, Godbereneko gizonak eta Hansek. Bazen gorabeheraren bat.

— Ta-ta-ta —ari zen sukaldaria, oiloa karakaz bezala.

Sadiiek masailan zuen eskua erantsita, hagineko minez bezala. Hans berriz aurpegia okertuta, ongi ulertzeko ahaleginean. Godbereneko gizonak bakarrik ematen zuen gozatzen egotea; bera zen kontalaria.

— Zer duzue? Zer gertatu da?

— Ikaragarrizko istripua —esan zuen sukaldariak—. Gizon bat hil da.

— Gizon bat hil! Non? Nola? Noiz?

Baina Godbereneko gizona ez zegoen albiste hori eta horrenbestez saltzeko.

— Ezagutzen dituzu han beheko etxetxoak, andereño? —Ezagutu? Horixe ezagutzen zituela!— Ba gizon gazte bat bizi zen bertan, Scott izenekoa, gurdizaina. Haren zaldia traktore batekin izutu Hawke kale kantoian gaur goizean, eta airean bota du buruz behera. Bertan gelditu da.

— Hilda! —Godberenekoari begira zegoen Laura.

— Altxatu dutenerako hilda zegoen —esan zuen Godbereneko gizonak atseginez—. Ni hona nentorrela zeramaten gorpua etxera. —Eta esan zion sukaldariari—: Emaztea eta bost txiki utzi ditu.

— Jose, hator nirekin.

Lurak ahizpari mahukatik heldu eta bultzaka eramane zuen, sukaldean zehar, feltrozko ate berdeaz bestaldera. Gelditu eta atearen kontra jarri zen.

— Jose! —esan zuen izututa—, bertan behera utzi behar dinagu dena.

— Bertan behera utzi, Laura? —hots egin zuen Josek harrituta—. Zer esan nahi dun?

— Lorategiko festa bertan behera uztea, noski.

Zergatik egiten zuen Josek itxura?

Baina Jose are gehiago txunditu zen.

— Lorategiko festa bertan behera uztea? Laura maitea, ez burua galdu. Nola egingo dugu ba horrelakorik. Inork ez din gugandik hori espero. Ez hadi zentzugabea izan.

— Ezinezkoa dun ordea guk lorategian festa egitea, ate aurrean gizon bat hil denean.

Hori zentzugabea zen zinez, izan ere baserri-
txoak kale bazter batean zeuden, beren etxeko
aldapa gogorraren behean. Errepide zabal bat
zegoen tartean. Hurbilegi zeuden, bai. Mingarria
zen ikuste hutsa eta ez zuten haiek inongo esku-
biderik auzoan egoteko. Marroi txokolatez pinta-
tutako estalpe eskasak ziren. Lorategi zuloetan
aza-kirtenak, oilo gaixotuak eta tomate potoak
besterik ez zeuden. Tximinietatik jalgitzen zen
kea bera ere miserablea zen: ke adar zarpailak,
Sheridandarren tximinietatik harrotzen zen zila-
rrezko lumaje ederra ez bezalakoak. Latsariak
bizi ziren kale zuloan, garbitzaileak eta zapata-
gin bat, eta etxe aurrea txori-kaiola ñimiñoz josia

zuen gizon bat. Umeak berriz barra-barra. Sheri-
dandarrek, artean txikiak zirela, debekatua
zuten han oina jartzea, hango hizkera gordinaga-
tik eta badaezpada zerbaitek kutsatuko ote.
Baina koskortu zirenetik, Laura eta Laurie
batzuetan handik pasatzen ziren zelatan. Nazka
ematekoa zen hango narraskeria. Hotzikaraz
irteten ziren. Baina halere denetara joan behar
da; dena ikusi behar da. Horregatik pasatzen
ziren handik.

— Pentsa ezan zer sentituko duen alargun
gaixoak orkestra entzunda —esan zuen Laurak.

— O, Laura! —Zeharo haserretzen hasia
zegoen Jose—. Norbaitek istripua duenero orkes-
tra isildu behar badun, bizitza latza izango dun.
Hik adinako pena dinat nik ere. Hik adinako sen-
timendua. —Begirada gogortu zitzaion. Haurrak
zirenean borrokan bezalaxe begiratu zion ahiz-
pari—. Ez dun langile mozkor bat berpiztuko sen-
timentala jarrita —esan zuen isilik.

— Mozkorra! Nork dio mozkorra zegoenik? —
Laurak suminez ekin zion Joseri. Halakoetan
esan ohi zutena esan zuen—: Amari esatera
noan oraintxe.

— Hoa bai, maitea —urramatu zuen Josek.

— Ama, badaukat zure gelan sartzea? —Laurak kristalezko helduleku handiari eragin zion.

— Horixe, umea. Hara! Zer dun? Zer dela eta horren zurbil?

Eta Sheridan andrea apain-mahaitik jiratu zen. Kapelu berria ari zen saiatzen.

— Ama, gizon bat hil da —hasi zen Laura.

— Lorategian ez, ezta! —eten zion amak.

— Ez, ez!

— O, ederki beldurtu naun!

Sheridan andreak lasaituta hasperen egin, kapelu zabala erantzi eta belaun gainean ipini zuen.

— Baina entzun, ama —esan zuen Laurak. Arnasestuka, itolarrian eman zion kontu latz guztiaren berri—. Ezingo dugu noski festa egin, ezta? —erregutu zuen—. Orkestra eta jende guztia hemen dela. Entzungo lukete, ama; eta ia gure auzoak dira!

Harritu zen Laura, ikusirik Josek bezala jokatzen zuela amak, baina gogorragoa zen honena, kontuak grazia egiten ziola ematen baitzuen. Ez zegoen Laura aintzat hartzeko.

— Baina alabatxo, non dun zentzua! Kasualitatez jakin dinagu. Berez hil balitz —eta ezin dinat ulertu nola bizi daitezkeen sator zulo horietan—, halere guk festa egingo geninan, ezta?

Lurak baietz erantzun behar izan zuen, baina denak oker zeudela uste zuen. Amaren besaulkian eseri eta kuxinaren litsa atximurkatu zuen.

— Ama, ez da hori bihozgabea izatea? —galdetu zuen.

— Laztana!

Sheridan andrea zutitu eta ondora etorri zitzaion, kapelua eskuetan zuela. Gelditu ahal izan baino lehen, buruan zuen Lurak.

— Ume! —jarraitu zuen amak—. Hirezat dun kapelu hau. Hirezat eginarazia. Ni gazteegi egiten nain. Inoiz ez haunat hain xarmanta ikusi. Begira! —eta eskuko ispilua ipini zion parean.

— Baina, ama —hasi zen Laura berriro. Ezin zuen ispilura begiratu; alde batera jiratu zen.

Orduan Sheridan andreari pazientzia agortu zitzaion, lehenago Joseri bezala.

— Bururik gabe ari haiz, Laura —esan zion hoztasunez—. Horrelako jendeak ez din sakrifi-

ziorik espero gugandik. Eta ez dun oso fina, orain hi ari haizen bezala, besteren alaitasuna hondatzea.

— Ez dut ulertzen —esan zuen Laurak, eta bizkor joan zen gela hartatik bere logelara.

Bertan, ez non eta ez han, ikusi zuen lehenbiziko gauza ispiluko neska xarmanta izan zen, kapelu beltza urrezko bitxilorez dotoretuta, eta belusezko zinta beltz luze batekin. Behin ere ez zitzaion burutik pasatu halako itxura eduki zezakeenik. Arrazoi ote du amak? pentsatu zuen. Amak arrazoi izatea espero zuen. Zentzugabe ari ote naiz jokatzeko? Beharbada bai. Istant batez berriro agertu zitzaion emakume gaixo hura eta seme-alaba txiki haien irudia, eta gorpua etxera sartzen. Baina lausotua bezala ikusi zuen dena, irrealia, egunkari bateko argazkia bezala. Festa bukatu eta gero ekarriko dinat berriro gogora, erabaki zuen. Eta bazirudien horixe zela nola edo hala planik onena...

Ordu bata eta erdian bukatu zen bazkaria. Ordu bi eta erdirako denak prest zeuden saiorako. Hantxe zen zamar berdeko orkestra, tenis-zelaiko ertz batean.

— Ene bada! —xaramelatu zuen Kitty Maitlandek—. Igelak bezalakoxeak ematen dute. Urmael inguruan jarri behar zenituzten, zuzendaria erdian hosto baten gainean.

Laurie iritsi eta diosal egin zien, janztera zihoala. Hura ikustean Laura berriro gogoratu zen istripuaz. Kontatu nahi zion. Lauriek ere beste moduan pentsatzen bazuen, bada hala izango zen. Sarreraraino joan zitzaion atzetik.

— Laurie!

— Kaixo!

Eskaileren erdibidean zegoen, baina jiratu eta Laura ikusita, bat-batean masailak puztu eta begiak zabal-zabal zituela begiratu zion.

— Jesus, Laura! Ikustekoa hago —esan zuen Lauriek—. Hori kapelu dotorea!

Lurak ahots izpi batez «Bai?» esan, Laurieri irribarre egin eta azkenean ez zion ezer kontatu.

Handik laster hasi zen jendearen emana. Orkestra jotzen hasi zen; kontratatutako zerbitzariak etxetik estalpera zebiltzan lasterka. Alde guztietan zebiltzan bikoteak paseatzen, loreen aurrean makurtzen, elkarri diosal egiten, belardian atzera eta aurrera. Txori koloretsuen antze-

koak ziren, arratsalde pasa Sheridandarren lorategian geratuak; norako bidean? A, zer pozgarria den pozik dagoen jendearekin egotea, bostekoa ematea, musu emateko masaila jartzeta, begietara irribarre egitea.

— Laura maitea, zer ederra zauden!

— Zer ongi duzun kapelu hori, umea!

— Laura, espainiarra ematen duzu. Behin ere ez zaitut hain liluragarri ikusi.

Eta Laurak, gorrituta, goxo-goxo erantzuten zuen:

— Hartu duzu tea? Ez duzu izozkia nahi? Pasio-fruituzko izozkiak izugarri bereziak dira. — Aitarengana joan eta mesedez eskatu zion—: Aitatxo, ez diegu orkestrakoei trago bat eskainiko?

Eta arratsalde paregabea pixkana loratu, pixkana zimeldu, pixkana itxi zituen hostoak.

— Hau bezain festa ederrik inoiz ez...

— Sekulako arrakasta...

— Honelakorik ezta ezta...

Laurak lagundu zion amari agurren orduan. Atarian egon ziren elkarren ondoan, dena bukatu arte.

— Bukatu dun, Jainkoari eskerrak —esan zuen Sheridan andreak—. Esaien besteei etortzeko, Laura. Har dezagun kafe egin berri pixka bat. Leher eginda nagon. Bai, arrakasta handia. Baina ai, festa hauek! Zuek umeok beti festa egiteko eta egiteko!

Denak eseri ziren inor gabeko estalpean.

— Hartu sandwich bat, aitatxo. Neuk idatzi diot txartela.

— Eskerrik asko. —Sheridan jaunak ahokada bat eman eta desagertu zen sandwicha. Beste bat hartu zuen—. Ez zenuten noski entzungo gaur gertatu den istripu latz horrena? —esan zuen.

— Jesus! —esan zuen emazteak, eskua goratuta—. Entzungo ez genuen ba! Gure festa hondatu ez duenean! Laura tematuta zegoen, dena bertan behera utzi behar genuela.

— O, ama! —Laurak ez zuen nahi kontu horrekin adarra jotzerik.

— Kontuak kontu, gogorra izan da —esan zuen Sheridan jaunak—. Gizaseme ezkondua zen. Beheko kale zuloan bizi zen eta emaztea eta dozena erdi bat ume utzi omen ditu.

Isilune astun bat jausi zen. Sheridan andrea jolasean zebilen kikerarekin. Bai, oso kontu gutxirekin ari zen aita...

Halako batean gora begiratu zuen Sheridan andreak. Mahai gaina beteta zegoen sandwich, gozoki eta opilez, denak jan gabe, denak alferrik galtzeko. Ideia bikain haietako bat izan zuen.

— Hori da —esan zuen—. Bete dezagun saskikada. Bidaliogun gaixo horri apur bat hementik, jateko aproposa dago eta. Gozatu ona hartu behar dute umeeek. Ez duzue uste? Eta auzoak eta etorriko zaizkio bisitan, seguru. Hau da zortea dena prest edukitzea. Laura! —honek salto egin zuen—. Ekatzan eskailerako armairutik saski handia.

— Baina ama, benetan uste duzu ideia ona dela? —esan zuen Laurak.

Berriro ere, zer bitxia, beste guztiak ez bezalakoa ematen zuen. Festako hondarrak eramatea. Gustatuko ote zitzaion hori emakume gaixolari?

— Noski! Zer gertatzen zain gaur ordea? Orain dela ordu batzuk hor ari hintzen errukia izan behar genuela, eta orain zer eta...

Tira! Laura lasterka joan zen saskiaren bila. Amak bete zuen, bai mukuru bete ere.

— Herorrek eramaien, maitea —esan zion—. Jaitsi hadi jantzita hagoen bezala. Ez, itxaron, hartu lirioak ere. Maila horretako jendea lirio zalea dun oso.

— Soinekoaren farfaila hondatuko zaio kirte-
nekin —esan zuen Jose praktikoak.

Egia. Eskerrak jabetu zen.

— Orduan saskia bakarrik. Eta Laura! —ama
estalpetik etorri zitzaion—. Ez gero...

— Zer, ama?

Ez, hobe zen umeari buruan halako ideiarik
ez sartzea!

— Ezer ez! Joan hadi!

Iluntzen ari zuen, Laurak lorategiko atea itxi
zituenean. Zakur handi bat pasatu zen lasterka,
itzal baten antzera. Distira zuria zeukan errepi-
deak, eta beheko sakanean etxetxoak erabat
itzaletan zeuden. Zer lasaitasuna arratsalde
hura bukatzen zenean. Hildako gizon batengana
zihoan aldapan behera, eta ezin zen horretaz
konturatu. Zergatik ez baina? Bertan gelditu zen
apur batean. Iruditu zitzaion musuak, ahotsak,

koilare hotsa, barre algarra, belar zanpatuaren usaina zeukala, nola edo hala, barrenean. Beste ezertarako lekurik gabe. Zer arraroa! Goiko zero zurbilera begiratu, eta pentsatu zuen bakarria izan zen: «Bai, sekulako arrakasta izan dun festa.»

Han bukatzen zen errepide zabala. Kale zuloa hasten zen, iluna eta ketsua. Txalez jantzitako emakumeak eta gizonen tweedezko kapeluak lasterka igaro ziren. Gizonak zeuden hesien kontra; umeak atarietan jolasten. Zurrumurru isil bat zetorren etxetxo kaxkarretatik. Batzubatuetan argi izpi bat zegoen, eta itzal bat, karramarroa iduri, pasatzen zen leiho ondotik. Laurak burua makurtu eta arin-arin jarraitu zuen. Zamarrik gabe etorri izanaz damutu zen. Hura distira soinekoak! Eta kapelu handi hura belusezko zinta hegan zuela. Beste kapelu bat izan balitz! Berari begira ote zegoen jendea? Bai, inondik ere. Gaizki egin zuen etortzea; hasieratik zekien gaizki egin zuela. Eta atzera egitea? Ez, beranduegi. Huraxe zen etxea. Inondik ere. Jende multzo beltz bat zegoen kanpoan zutik. Ate ondoan emakume oso zahar bat zegoen ese-

rita aulki batean makuluarekin, erne begira. Egunkari baten gainean zituen oinak. Laura hurbildu ahala, isilduz joan ziren ahotsak. Taldea erdibitu zen. Bazirudien beraren zain egon zirela, jakinean zeudela etorriko zela. Laura izugarri urduri zegoen. Belusezko zinta sorbaldan behera botaz, ondoko emakume bati galdetu zion:

— Hau da Scott andrearen etxea?

Eta emakumeak, irribarre bitxi batekin, esan zion:

— Bai, neskatxa.

O, handik urruti balego! Bere artean «Lagundu, Jainkoa» esanda, bidexka txiki hartan gora joan eta atea jo zuen. Begi zorrotz haiengandik urruti balego, edo edozein gauzaren azpian gordeta, baita emakume haien txal baten azpian ere. «Saskia utzi eta joango naun —erabaki zuen—. Ez dinat hustu zain itxarongo.»

Atea zabaldu zen. Beltzeko emakume bat azaldu zen ilunpean.

Lurak esan zuen:

— Zu zara Scott andrea?

Baina latza izan zen emakumeak erantzun zuenean:

— Aurrera, andereño. —Eta korridorean geratu zen itxita.

— Ez —esan zuen Laurak—. Ez dut sartu nahi. Saski hau uztea bakarrik. Amak bidaltzen dizue...

Korridore ilun hartako emakume txikiak ez zion nonbait aditu.

— Zatoz hemendik, mesedez, andereño —esan zuen ahots koipetsuz, eta atzetik joan zen Laura.

Lanpara ketsu batek argitutako sukalde baxu txiki zazar batean aurkitu zuen bere burua. Emakume bat zegoen sutondoan eserita.

— Em! —esan zuen sartzen utzi zion andre txikiak—. Em! Andereño bat dun. —Laurarengana jiratu eta modu esanguratsuan esan zuen—: Ni ahizpa naiz. Barkatuko diozu, ezta?

— Noski! —esan zuen Laurak—. Mesedez, mesedez, ez iozu galarazi. Hau uztera etorri naiz...

Baina orduantxe sutondoko emakumea jiratu zen. Haren aurpegiak, gorri-gorri puztuta, begiak handituta eta ezpainak handituta, itxura beldurgarria zuen. Bazirudien ez zuela ulertzen zerga-

tik zegoen Laura han. Zer nahi zuen? Zergatik zegoen arrotz hura saski bat hartuta sukaldean? Zer zen hura dena? Eta aurpegi gaixo hura berriro zimurtu zen.

— Lasai, bihotza —esan zuen besteak—. Nik emango zizkionat eskerrak andereñoari. —Eta berriro hasi zen—: Barkaiozu, mesedez, andereño. —Eta haren aurpegia, handitua hau ere, irribarre koipetsu bat egiten saiatu zen.

Lurak handik joatea besterik ez zuen nahi, alde egitea. Korridorean zegoen ostera. Atea zabaldu zen. Zuzenean sartu zen hildako gizona zegoen logelara.

— Ikusi nahiko duzu, ezta? —esan zuen Emen ahizpak, eta ohe aldera zihoala, Laura ukitu zuen—. Ez ikaratu, neskatxa. —Orain eme eta zuri antzekoa zen haren ahotsa, eta emeki tiratuzion atzera maindireari—. Pintura bat ematen du. Ez zaio ezer nabari. Zatoz, laztana.

Laura ondora joan zen.

Gizon gazte bat zen, lozorroan... lo betean, gozo, sakon, biengandik oso-oso urrun. Urruti eta bakean. Ametsetan. Sekula esnatuko ez dena. Burua burkoan hondoratua, begiak itxita,

itsututa betazal itxien azpian. Erabat ametsari emanda. Zer axola hari lorategiko festak eta saskiak eta soineko farfailak? Gauza horietatik bereiz zegoen. Miresgarria zen, ederra. Sheridanengan denak barrez eta orkestra jotzen ari zela, marabila hau gertatu zen kale zuloan. «Zoriontsu... zoriontsu... Dena ongi —zioen aurpegi lokartuak—. Honelaxe izan behar zuen. Pozik nago.»

Baina halere negar egin beharra zegoen, eta ezin zen gelatik irten zer edo zer esan gabe. Laurak ume baten zotin hotsa egin zuen.

— Barkatu kapeluagatik —esan zuen.

Eta oraingoan ez zen egon Emen ahizparen zain. Asmatu zuen nola joan etxe hartatik kanpora, bidexkan behera, jende ilun haren ondotik. Kale zuloa kantoian Laurierekin egin zuen topo. Gerizpetik atera zen hura.

— Hi haiz, Laura?

— Bai.

— Ama larritzen hasia zegonan. Dena ongi joan da?

— Bai, oso. O, Laurie! —Besotik oratu eta beraren kontra estutu zen.

— Ez haiz ba negarrez ariko! —galdetu zuen nebak.

Lurak ezetz egin zuen buruaz. Hala ari zen. Lauriek besoaz inguratu zion sorbalda.

— Ez negar egin —esan zion ahots goxo, maitekor harekin—. Latza izan da?

— Ez —egin zuen Lurak zotin—. Miragarria izan duk. Baina, Laurie —gelditu eta nebari begiratu zion—, ez al da bizitza —toteldu zuen—, ez al da bizitza...

Baina ezin zuen azaldu bizitza zer zen. Berdin zen. Ongi ulertu zuen nebak.

— Bai, ezta maitea? —esan zuen Lauriek.

KORONEL ZENAREN ALABAK



Hurrengo astea beren bizitzako lanpetuene-takoa izan zen. Ohean etzanda ere, beren gorpu-tzak ziren atsedean hartzen zutenak; buruak pen-tsatzen segitzen zuen, eztabaidatzen, zalantza egiten, erabakitzen, gogoratzeko ahaleginak egi-ten ea non...

Estatua baten pare zegoen Constantia etzan-da, eskuak saihetsetan, oinak bata bestearen mutur gainean, izara kokotseraino. Sabaiari begira zegoen.

— Aitari inporta izango ote litzaioke bere kapelu kopaduna atezainari ematea?

— Atezainari? —jaurti zuen Josephinek—. Zer eta atezainari? Hori burutazio xelebrea!

— Izan ere —esan zuen Constantiak astiro—, sarri joango dun hiletetara. Eta han nengoela, kanposantuan, onddo-kapelu hori besterik ez duela ohartu naun. —Eten bat egin zuen—. Buru-

ra etorri zaidan nola estimatuko lukeen kapelu kopaduna. Gainera opari bat egin beharko zionagu. Aitaren oso laguna izan dun beti.

— Baina —hots egin zuen Josephinek, bere burua inarrosiz burkoan, eta ilunpean barrena Constantiari so—, aitaren burua!

Eta bat-batean, instant latz batez, barre egiteko zorian egon zen. Ez, noski, barre egiteko gogorik zuelako. Ohitura izango zen. Aspaldian, gau osoa esna eta hizketan pasatzen zutenean, sekulako algarak ezagutu zituen beren oheak. Eta orain atezainaren burua ikusi zuen, kandela bat bezala, aitaren kapelu azpian desagertzen. Barregura handitzen eta handitzen joan zen; eskuak estutu zituen; nola edo hala eutsi zion; ilunpe aldera kopeta belztu eta «Gogora hadi» esan zion bere buruari, izugarri zorrotz.

— Bihar erabakiko dinagu —esan zuen.

Constantia ez zen ezertaz konturatu; hasperen egin zuen.

— Gure mantalak ere tindatu beharko ote ditugu?

— Beltzez? —ia garrasi egin zuen Josephinek.

— Nola ba? —esan zuen Constantiak—. Pentsatzen aritu naun, ez dela itxura beltzez joatea etxez kanpo eta kalerako jantzita gaudenean, eta etxean berriz...

— Baina hemen inork ez gaitin ikusten —esan zuen Josephinek. Halako tiraldia eman zien oheko arropen, non agerian geratu zitzaizkion bi oinak, eta burkoan gora joan zen arrastaka, haiek berriro tapatzeko.

— Katek bai —esan zuen Constantiak—. Eta posible dun postariak ere ikustea.

Josephineri gogora etorri zitzaizkion bere txapin gorri ilunak, mantalarekin bat zetozenak, eta Constantiaren kuttun ziren berde zehaztezinak, haren mantalarekin bat ere. Beltzez! Bi mantal beltz eta artilezko bi txapin pare beltz, komune-ra bidean arrastaka katu beltzak bezala.

— Ez dinat uste horren premia dagoenik —esan zuen.

Isilunea. Ondoren Constantiak esan zuen:

— Albistea dakarten egunkariak bihar bertan bidali beharko ditinagu, Zeilango postara garaiz irits daitezten... Zenbat gutun jaso ditugu orain arte?

— Hogeita hiru.

Josephinek denak erantzun zituen, eta «Aitaren falta handia sentitzen dugu» idatzi beharre-ra heltzean, hogeita hiru bider tristurak jo eta musuzapia erabili behar izan zuen, eta batzuek baita malko oso urdin argi bat lehortu ere, xukatzeke paper mutur batekin. Zer arraroa! Ezinezkoa zen itxura hutsa izatea, baina hogeita hiru bider... Orain ere, ordea, bere artean goibel esan «Aitaren falta handia sentitzen dugu», eta nahi izan balu negar egingo zukeen.

— Badun nahikoa zigilu? —atera zitzaion Constantiari.

— Nik zer dakit? —erantzun zuen Josephinek, muturtuta—. Zergatik galdetzen didan hori?

— Zalantza ninan —esan zuen Constantiak eztiro.

Berriro isilunea. Zurrumurru, lasterkaldi, salto baten hotsa entzun zen.

— Sagua —esan zuen Constantiak.

— Bai zera sagua, ez zegon ogi papurrik eta —esan zuen Josephinek.

— Baina berak ez zekin —esan zuen Constantiak.

Errukizko pilpira batek bihotza estutu zion. Gaixoa! Besterik ez bada gaileta puxka txiki bat utzi balu apain-mahai gainean! Latza zen, saguak ezer ez zuela topatuko pentsatzea. Zer egingo zuen hark?

— Ez zekinat nola moldatzen diren bizitzeko —esan zuen astiro.

— Nor? —itaundu zuen Josephinek.

Eta asmoa zuena baino ozenago esan zuen Constantiak:

— Saguak.

Josephine sutan jarri zen.

— Hori txorakeria! —esan zuen—. Zer hasten haiz orain sagu kontuan? Hi erdi lotan hago.

— Ez dinat uste —esan zuen Constantiak. Begiak itxi zituen, seguru egoteko. Hala zegoen, bai.

Josephinek bizkarra okertu, belaunak gora luzatu, ukabilak belarri atzean jarriz besoak tolestu, eta gogor sakatu zuen masaila burkoan.

Arazoa korapilatzeko, gainera, aste hartan etxean zuten Andrews erizaina. Beren errua izan zen, berek eskatu zioten. Josephineri bururatu zitzaion. Goizean, bueno, azken goizean, medikua etxetik joan eta Josephinek esan zion Constantiari:

— Zer iruditzen zain Andrews erizaina etxera gonbidatzea astebeterako?

— Oso ongi.

— Pentsatu dinat —jarraitu zuen Josephinek bizkor—, arratsaldean pagatu eta esatea: «Zuk gugatik egin duzuna eta gero ahizpa eta biok asko poztuko ginateke, astebeterako gure gonbidatu izango bazina.» Gonbidapen hitza aipatu beharko zionat, badaezpada...

— O, baina ez din ba espero izango ezer pagatuko diogunik! —hots egin zuen Constantiak.

— Ez zegon jakiterik —esan zuen Josephinek zuhur.

Andrews erizainak, noski, berehala onartu zuen. Baina sekulako nahastea zen. Hura zela

eta, bere garaian mahaira eseri eta egin behar zuten otordua; bakarrik egon balira, aldiz, Kateri mesedez erretilu bat eramateko eskatuko zioten, bakoitza zegoen lekura. Eta lehengo estua-suna joan ondoren, latzak ziren orain janaldiak.

Gurin zale amorratua zen Andrews erizaina. Aitortu beharra zuten: gurin kontuan behintzat, beren esku zabalaz probetxatzen zen. Eta edonor zoratzeko moduko ohitura zeukan: ogi pitin bat gehixeago eskatzen zuen platereko hondarrak bukatzeko, eta gero, azken ahokadarekin, distraita —ez zegoen, noski, batere distraita—, beste errazio bat hartzen zuen. Josephine zeharo gorritzen zen halakoetan, eta zamauan itsasten zituen begi txiki, koxkor antzekoak, jostura artetik xomorro bitxi ñimiño bat ikusi balu bezala arrastaka. Constantiaren aurpegi luze zurbila, berriz, luzatu eta gogortzen zen, eta urrutira so egiten zuen, oso urrutira ere, desertuan barrena, gamelu ilara hura artilezko mataza bat bezala askatzen zen aldera...

— Lady Tukesen etxean —esan zuen Andrews erizainak—, asmakizun xarmanta genuen gurinarentzat. Zilarrezko Cupido bat

kristalezko ontzi baten ertzean, sardetxo bat eskuan zuela. Eta gurina nahi zenuenean, hari oina zapaldu, makurtzen zen eta puxka bat zultzen zuen. Oso joko polita zen.

Josephinek lanak zituen hura jasaten.

— Xelebrekeriak dira horiek —esan zuen, besterik gabe.

— Zer ba? —galdetu zuen Andrews erizainak, betaurrekoen atzetik begiak dir-dir—. Inork ez luke, noski, behar baino gurin gehiago hartuko, ezta?

— Deitu ion, Con —hots egin zuen Josephinek. Ez zen bere buruaz fidatzen, erantzuten hasten bazen.

Eta Kate gazte harroa, printzesa sorgindua agertu zen, ea oraingoan zer nahi zuten neska-zaharrek. Itxura hutseko platerak atzaparka kendu eta lirdinga zuri, izutu bat bota zien.

— Konfitura, mesedez, Kate —eskatu zion Josephinek jator.

Kate makurtu, armairua zakar ireki, konfitura potoari tapa altxatu, hutsik zegoela ikusi, mahai gainean utzi eta alde egin zuen.

— Sentitzen dut —esan zuen Andrews erizainak handik gutxira—. Ez dago batere.

— Hau buruhaustea —esan zuen Josephinek. Hozka egin zion ezpainari—. Zer egingo dugu?

Constantia zalantzan zegoen.

— Ezin diogu Kateri berriro enbarazu egin —esan zuen emeki.

Andrews erizaina zain zegoen, biei irribarrez. Begiak pasieran ibili zituen, betaurreko atzetik guztia zelatatuz. Constantia, etsitua, gamelueta-
ra itzuli zen. Josephinek zeharo ilundu zuen kopeta, kontzentraturik. Emakume erdiero honengatik izan ez balitz, Conek eta berak, noski, ezer gabe jango zuten blancmange hura. Bat-batean bururatu zitzaion.

— Horixe —esan zuen—. Marmelada dago armairuan. Ekatzan, Con.

— Ez ahal da... —egin zuen barre Andrews erizainak, eta haren barrea koilara bat bezalakoa zen, botikaren basoa joka—, ez ahal da oso marmelada mikatza izango.

Baina, kontuak kontu, laster joango zen betiko. Eta ezin zen ahaztu oso jatorra izan zela aitarekin. Gau eta egun kasu egin zion bukaera aldeara. Berez, bai Constantiari bai Josephineri gehiegizkoa iruditu zitzaien hark amaieran ere ondoan jarraitzea. Izan ere, azken agurra ematera sartu zirenean, Andrews erizaina ohe alboan egon zen denbora guztian eserita, gaixoari eskumuturretik heldu eta ordulariari begira dagoenaren itxura egiten. Ez zen beharrezkoa. Gainera, fintasun gutxi izan zuen. Aitak zerbait esan nahi izan balie-edo, zerbait pribatua. Baina ez zuen nahi. Bai zera! Etzanda zegoen, moretuta, aurpegia more zuela haserrearekin, eta ez zien begiratu ere egin, sartu zirenean. Orduan, hantxe zutik zeudela, zer egin zalantzan, begi bat zabaldu zuen bat-batean. O, zer aldea izango zen, zer aldea beren oroimenerako, zenbatez errazago jendeari kontatzeko, begi biak zabaldu balitu! Baina ez, bakarra. Une batean suminez begiratu eta... joan zen.

—IV—

Hori dela eta oso desatsegina gertatu zitzaien, Saint Johneko Farolles jauna etorri zenean arratsalde hartantxe.

— Azken baketsua izango zuen, ezta? —esan zituen lehenbiziko hitzak, haiengana irristan zetorrela sala ilunean.

— Guztiz —esan zuen Josephinek ahul.

Biek apaldu zuten burua. Seguru zeuden biak, begi hura ez zela inola ere begi baketsua izan.

— Eseri nahi? —esan zuen Josephinek.

— Eskerrik asko, Pinner andereñoa —esan zuen Farolles jaunak esker onez. Zamarraren atzeko barrenak bildu eta makurtzen hasi zen aitaren besaulki gainera, baina hura ukitu bezain laster, ia salto eginez aldatu zen aldameneko eserlekura.

Eztul egin zuen. Josephinek eskuak estutu zituen; Constantiak joanda ematen zuen.

— Jakin ezazu, Pinner andereñoa —esan zuen Farolles jaunak—, eta zuk, Constantia andere-

ñoa, lagundu nahian ari naizela. Bioi lagundu nahi dizuet, uzten badidazue behintzat. Honelako momentuetan —esan zuen Farolles jaunak, soil eta irmo—, Jainkoak elkarri laguntzeko agintzen digu.

— Eskertzen dizugu, Farolles jauna —esan zuten Josephine eta Constantiak.

— Ez da ezeri —esan zuen Farolles jaunak eztiro. Antxumezko eskularruak erantzi hatzetan behera, eta aurrera makurtu zen.

— Eta zuetako edozeinek Jauna hartu nahi balu, batek edo biok, orain eta hemen, esatea besterik ez duzue. Jauna hartzea laguntza handia da sarri... gozotasun handia —gaineratu zuen emeki.

Baina arras izutu zituen Jauna hartzearen ideiak. Zer! Salan beste inor gabe... ez aldare ez ezer! Pianoa goregi egongo zen, pentsatu zuen Constantiak, eta Farolles jaunak ezingo zukeen noski haren ganean makurtu kalizarekin. Eta jakina zegoen Kate zapla sartu eta etengo zituela, pentsatu zuen Josephinek. Eta deskuiduan hartan ari zirela txirrinak joko balu? Norbait inportantea izan zitekeen... doluagatik etorria.

Begirunez zutitu eta irten, ala itxaron egin beharko ote zuten... oinazez puskatzen?

— Nahi izanez gero, bidal ezazue abisua Kate jatorrarekin —esan zuen Farolles jaunak.

— O bai, eskerrik asko! —esan zuten biek.

Farolles jauna zutitu eta lastozko kapelu beltza hartu zuen mahai biribiletik.

— Hileta, berriz —esan zuen goxo—, utzi neure esku, zuen aitaren aspaldiko laguna naiz, eta baita zuena ere, Pinner andereñoa eta... Constantia andereñoa?

Josephine eta Constantia ere zutitu ziren.

— Gauza soil a nahi nuke —esan zuen Josephinek tinko—, garestiegia ere ez. Horretaz gain, nahi nuke...

«Ona eta iraungo duena», pentsatu zuen Constantia ameslariak, Josephine gau-atorra erosten ari balitz bezala. Baina Josephinek ez zuen, noski, hori esan.

— Gure aitaren mailakoa.

Oso urduri zegoen.

— Gure lagun on Knight jaunarengana azalduko naiz —esan zuen Farolles jaunak, giroa

lasaitzeko—. Zuengana etortzeko eskatuko diot.
Ikusiko duzue zer mesede ederra.

—V—

Kontuak kontu, bukatu zen hori dena, nahiz eta biek ala biek ere ezin sinetsi aita ez zela sekula itzuliko. Josephinek izu-laborrizko momentu bat izan zuen kanposantuan, hilkutxa beheratzen zutela, pentsatuz aitari baimen eskatu gabe ari zirela hau egiten Constantia eta bera. Zer esango zuen aitak konturatzen zenean? Bai, jakina zegoen konturatuko zela, lehenago edo geroago. Beti konturatzen zen. «Lurpean. Lurpean sartu nauzue!» Haren makilaren danbatekoa aditu zuen. O, zer esan orduan? Zer aitzakia emango zioten? Izugarri latza zen, hain zital inortaz probetxatzea, zer eta une hartan ezindua zegoelako. Beste guztientzat, nonbait, ohiko gauza zen. Arrotzak ziren; ezin zitzaien ulertarazi aita zela azken pertsona halakorik gertatzeko. Ez, bera eta Constantiarena izango zen kulpa guztia. Eta gastua, pentsatu zuen, zalgurdi doto-

rera igotzerakoan. Fakturak erakusten zizkionean. Zer esango zuen orduan aitak? Haren marru hotsa entzun zuen: «Zer uste duzue, nik pagatuko dudala zuen ibilera eskas hori?»

— Ai! —ozen egin zuen intziri Josephine gaitxoak—, ez geninan egin behar, Con!

Eta Constantiak, limoia bezain zurbil belztasun haren erdian, xuxurla beldurtu batez esan zuen:

— Egin zer, Jug?

— Aitari horrela lur eman —esan zuen Josephinek, dolurako musuzapi berri, usain arrarokotan negarrez, tristurak jota.

— Zer egin behar genuen ba? —galdetu zuen Constantiak ezbaikor—. Ezin geninan eduki, Jug... ezin geninan eduki lur eman gabe. Ez behintzat gurea bezain etxe txikian.

Josephinek zintz egin zuen; sekulako zoko usaina zegoen zalgurdian.

— Ez zekinat —esan zuen etsian—. Hain dun latza! Saiatu behar geninan, besterik ez bada bolada batean. Erabat seguru egon arte. Gauza bat behintzat jakina zegoen —eta malko artean

lehertu zen berriro—, aitak ez zigin hau sekula barkatuko... sekula!

—VI—

Aitak ez zien sekula barkatuko. Are indar handiagoz sentitu zuten hori handik bi egunera, haren gelara sartu zirenean gauzak ikertzera. Lasaitasun osoz hartutako erabakia zuten. Josephinek zereginen zerrendan eta guzti zuen: Aitaren gauzak ikertu eta zer egin erabaki. Baina oso bestelako kontua zen gosalongoan aipatzea:

- Prest hago, Con?
- Bai, Jug... Nahi dunanean.
- Behingoz buka dezagun.

Ilun zegoen sarrera. Edozein gauza gertatuta ere, urteetako araua izan zen goizean aitari enbarazu ez egitea. Eta orain jo ere egin gabe zihoazen atea zabaltzera... Pentsatze hutsarekin ikusgarritu ziren Constantiaren begiak; Josephinek hanketako ahulezia zuen.

— Hi... hi aurretik —esan zuen arnasestuka, Constantia bultzatuz.

Baina halakoetan esan ohi zuena esan zuen Constantiak:

— Ez, Jug, hori ez dun bidezkoa. Hi haiz zaharrena.

Bazihoan Josephine bere azken arma erabiltzera: «Hi haiz ordea garaiena» —besteetan ez zuen hala zenik onartuko—, baina orduan jabetu ziren sukaldeko atea zabalik eta hantxe zegoela zutik Kate...

— Gogorra dago —esan zuen Josephinek, kisketari heldu eta jiratzeko ahaleginean. Baina Katek ez zuen berehalakoan amore emango!

Alferrik zen. Neska hura baino... Orduan atea beren atzean itxi, baina... baina hura ez zen inola ere aitaren gela. Nahasi eta beste etxebizitza batean sartu bide ziren, horman barrena. Atzean ote zegoen atea? Beldur handiegia zuten atzera begiratzeko. Hura han baldin bazegoen, Josephinek ongi zekien erabat itxita zegoela. Ametsetako ateetan bezala, hangoak ez zuela inongo kisketik sentitu zuen Constantiak. Hoztasunak egiten zuen egoera hura hain beldurgarri. Ala zurtasuna ote zen? Estalia zegoen dena. Leihosareak itxita, ispiluan zapi bat esekia, ohea

izara batez gordea, paper zurizko haizemaile eskerga bat sutondoan aldez alde. Constantiak herabe luzatu zuen eskua, elur maluta bat eroriko zelakoan. Josephinek azkura bitxi bat sentitu zuen sudurrean, suminduta balu bezala. Orduan zalgurdi baten ferra hotsa aditu zen beheko galzadetan, eta isiltasuna puxka-puxka bezala egin zen.

— Sarea altxatzera noan —esan zuen Josephinek ausart.

— Bai, ideia ona izan liteken —xuxurlatu zuen Constantiak.

Sarea ukitu besterik ez, baina goraino hegan joan zen eta soka ere bai atzetik, sarearen jiran bilduz, eta borla txikia joka hasi zen, bere burua askatu nahian bezala. Gehiegi zen hura Constantiarentzat.

— Ez da hobe... ez da hobe beste baterako uztea? —xuxurlatu zuen.

— Zer ba? —bota zuen Josephinek, beti bezala askoz hobeto sentituz orain, bazekienez Constantia izututa zegoela—. Egin beharra zegon. Eta ez idan isilka hitz egin, Con.

— Ez naun jabetu isilka ari nintzenik —esan zuen Constantiak isilka.

— Eta zergatik hago adi-adi oheari begira? —esan zuen Josephinek, ahotsa ia desfioz altxatuta—. Hor ez zegon ezertxo ere.

— O, Jug, ez hori esan! —esan zuen Connie gaixoak—. Ez behintzat hain ozen.

Bera urrutiegi joan zela iruditu zitzaion Josephineri. Komodarantz baztertu, eskua luzatu, baina berehala atzeratu zuen.

— Connie! —esan zuen arnasestuka, jiratu eta bizkarra komodaren kontra jarritz.

— O, Jug! Zer?

Josephinek sua zeukan begietan. Zerbait izugarritik larri-larri libratu denaren sentsazio bitxia. Baina nola azaldu Constantiari komodaren barruan zegoela aita? Goiko kaxoian musuzapi eta gorbatekin, edo hurrengoan alkandora eta pijamekin, edo behekoan janzkiekin. Zelatan zegoen, ezkutuan, ateko kisketaren atzean, gainera saltatzeko prest.

Aspaldiko keinu bitxi bat egin zion Constantiari, antzina ohitura zuen bezala, negarrez hastera zihoanean.

— Ezin dinat ireki —egin zuen adia.

— Ez ireki, Jug —xuxurlatu zuen Constantiak zorrotz—. Hobe dun. Ez dezagun ezer ireki. Puska batean behintzat.

— Baina hori... ahula izatea dun —esan zuen Josephinek, jota.

— Eta zergatik ez behingoz ahulak izan, Jug? —erantsi zuen Constantiak, gogor samar xuxurlatuz—. Ahula izatea baldin bada.

Eta haren begirada zurbilak utzi idazmahai itxia —erabat segurua—, arropategi erraldoi distiratsura joan zen, eta arnaska hasi zen arraro, ezinean.

— Zergatik ez gara bizitzan behingoz ahulak izaten, Jug? Aitzakia ona dinagu. Izan gaitezen ahulak... ahulak, Jug. Atseginagoa dun ahula izatea, indartsua izatea baino.

Eta bizitzan beste bitan-edo egina zuen gauza izugarri ausart haietako bat egin zuen: arropategira joan, giltzaz itxi eta sarrailatik atera zuen. Sarrailatik atera eta Josephineri luzatu zion, adieraziz, berebiziko irribarrearekin, baze-kiela zer egin zuen, hau da, aita hantxe berokien artean egotearen arriskua onartu.

Arropategi puska hura zambuluka etorri eta Constantiaren gainean lehertu balitz, Josephine ez zen batere harrituko. Aitzitik, horixe irudituko zitzaiokeen gauzarik normalena. Baina ez zen ezer gertatu. Gela barruak lehen baino isilago ematen zuen, eta haize hotzezko maluta gehiago erori ziren Josephinaren sorbalda eta belau-netara. Dardaraka hasi zen.

— Goazen, Jug —esan zuen Constantiak, artean irribarre izugarri nagi harekin, eta Josephinek atzetik segitu zion beste hartan bezala, Constantiak Benny ur-putzu biribilera bota zue-nean.

—VII—

Baina, jangelara itzultzean, estuasunak erasan zien. Eseri, ikarati, eta elkarri begiratu zioten.

— Ez naun ezertan hasteko gauza —esan zuen Josephinek—, ez badut zerbait hartzen. Eskatuko diogu Kateri bi katilukada ur bero?

— Zergatik ez diogu eskatu behar? —esan zuen Constantiak kontu handiz. Bere onera etorrita zegoen—. Ez zionat deituko. Sukaldeko atera joan eta eskatuko zionat.

— Bai, hoa —esan zuen Josephinek, aulki batean murgilduz—. Esaion, bi katilu, besterik ez... erretiluan.

— Ez din pitxerra jarri beharrik, ezta? —esan zuen Constantiak, pitxerra ere ipini beharrak agian Kateren kexa piztuko balu bezala.

— O, ez noski! Ez dinagu pitxer premiarik. Eltzetik zuzenean emango zigun —hots egin zuen Josephinek, horrekin lana gutxituko ziolakotan.

Haien ezpain hotzek dar-dar egin zuten ertz berdexketan. Josephinek katiluaren jiran bildu zituen esku txiki gorriak; Constantiak bizkarra zuzendu eta lurrin uhinei haize eman zien, alde batetik bestera harrotuz.

— Benny dela eta... —esan zuen Josephinek. Eta Benny aipatu ez zuten arren, lehendik aipatu balute bezala begiratu zuen Constantiak berehala.

— Aitaren zerbait bidaliko diogulakoan egongo dun, noski. Baina oso zaila dun Zeilanera zer bidali jakitea.

— Alegia, gauzak hondatzen direla bidean? — murmurikatu zuen Constantiak.

— Ez, galdu —esan zuen Josephinek gogor—. Badakin, han ez zegon postarik. Oinezko mezulariak bakarrik.

Biak geratu ziren gizon beltz bati begira, linozko galtzazpi zuriak zeramatzala, amorratu beharrean lasterka soro zurixketan barrena, eskuetan estraza paperezko pakete handi bat zuela. Josephinaren gizon beltza txikerra zen, txindurria bezala distiratz zihuan ihesi. Baina, Constantiaren erabakiz, bere gizaseme garai, iharrak bazuen zerbait itsu eta nekaezina, oso desatsegin egiten zuena... Etxeko ataripean zegoen Benny, dena zuriz jantzita eta kortxozko kaskoarekin. Gora eta behera zerabilen eskuineko eskua, aitak ohitura zuen bezala urduri zegoenean. Eta atzean, inongo interesik jarri gabe, Hilda zegoen eserita, koinata ezezaguna; zumitzezko aulki kulunkari batean zebilen, *Tatler*-eko orriak zartaka pasatzen.

— Erlojua oso opari egokia izango huke —
esan zuen Josephinek.

Constantiak gora begiratu zuen; harritua
ematen zuen.

— O, utziko huke urrezko erloju bat natibo
baten eskuetan?

— Gordeta, noski —esan zuen Josephinek—.
Inork ez liken jakingo erlojua denik.

Gustatu zitzaion pakete bat egitearen ideia,
forma berezia eman eta zer ote zen ez igartzeko
moduan. Une batez, otu zitzaion erlojua gorde-
tzea kortse baten kartoizko kaxa estu batean,
aspalditik jasota zuena, noiz edo noiz zerbaitera-
ko balioko zuela eta. Kartoi sendo ederrekoa
zen. Baina ez, ez zen aproposa honetarako. Ida-
tzi bat zuen: *Emakumeen erdi neurria, 28. Balea-
bizar sendoak*. Ustekabe handiegia izango zen
Bennyrentzat, ireki eta aitaren erlojua topatzea
barruan.

— Eta ez dun noski ibiliko... tiki-taka alegia —
esan zuen Constantiak, artean ere gogoratzuz
natiboek bitxiei dieten maitasuna—. Behintzat —
gehitu zuen—, harritzekoa izango huke, hainbes-
te denbora pasata gero oraindik ibiltzea.

—VIII—

Josephinek ez zuen ezer erantsi. Hitz beste egin zuen. Bat-batean, Cyrilekin gogoratu zen. Ez zen normalagoa biloba bakarrarentzat izatea erlojua? Eta Cyril maitea hain zen esker onekoa, eta gizon gaztearentzat hain zen baliotsua urrezko erlojua! Bennyk, seguru asko, utzia zuen erlojua eramateko ohitura; klima bero haietan gizon bakan janzten dute txalekoa. Cyrilek, berriz, urtearen hasieratik bukaera arte ibiltzen zuen Londresen. Eta zer ederra izango zen bera eta Constantiarentzat, Cyril tea hartzera etorri eta hura ikustea. «Ibiltzen duzu aitonaren erlojua, Cyril.» Zer pozgarria izango zen!

Kuttuna! Bai latza izan zela haren abisu labur, goxo, errukiorra! Ulertu zuten, noski; baina nahigabe handia izan zen.

— Alde ederra izango zunan, etorri balitz — esan zuen Josephinek.

— Eta poliki asko pasatuko zinan — esan zuen Constantiak, zer esaten ari zen pentsatu gabe.

Halere, itzuli bezain laster etorriko omen zen izebatxoengana tea hartzera. Cyrilekin tea hartzea zen haien plazer bakarretako bat.

— Aizu, Cyril, ez gero gure pastelekin beldurtu. Izeba Conek eta biok erosi ditugu goizean Buszardenean. Ezagutzen dugu gizonen apetitua. Nahikoa egin arte jan ezazu, lotsarik gabe.

Josephinek errukirik gabe zatitu zuen pastel ilun bikaina, nahiz eta hura ekartzeagatik orain berak ezin erosi neguko eskularruak, edo Constantiak ezin jarri takoia eta zolerdiak itxurazko oinetako bakarrei. Baina Cyrilen apetitua ez zen gizonezkoena.

— Ezin dut baina, izeba. Bazkaldu berria naiz.

— O, Cyril, ez da egia izango! Laurak pasatuta dira eta —hots egin zuen Josephinek. Constantia, berriz, labana txokolatezko erroiluaren gainean zintzilik zuela zegoen.

— Ba bai —esan zuen Cyrilek—. Gizon batekin nengoen geratuta Victorian, eta hantxe eduki nau ez dakit noiz arte. Bazkaldu eta hona etortzea egin dut. Eta gainera... fiu! —Cyrilek beko-kira eraman zuen eskua—, sekulako jatea egin dugu.

Hura desilusia... justu egun hartan. Baina Cyrilek ez zekien ezer.

— Merengea behintzat hartuko duzu, ezta Cyril? —esan zuen izeba Josephinek—. Propio zuretzat erosi ditugu merenge hauek. Zure aita maitea oso zalea zen. Zu ere hala izango zara, noski.

— Horixe, izeba Josephine —hots egin zuen Cyrilek gartsuki—. Badaukat erdia hartzea, has-teko?

— Jakina, mutiko; baina ez zara horrekin geratuko.

— Zure aita maitea merenge zalea da oraindik? —galdetu zuen izeba Conek emeki. Dar-dar xume bat egin zuen, bereari azala apurtzean.

— Ez dakit ba, izeba Con —esan zuen Cyrilek bizi-bizi.

Biek begiratu zuten orduan gora.

— Ez dakizu? —bota zuen Josephinek—. Ez dakizu horrelako zerbait zeure aitari buruz, Cyril?

— Egia —esan zuen izeba Conek goxo.

Barre eginez saiatu zen Cyril kontu hura saihesten.

— O, izan ere —esan zuen—, urte asko dira bera...

Hitza trabatu zitzaion. Isildu egin zen. Ezin zituen haien aurpegiak jasan.

— Halere... —esan zuen Josephinek.

Eta izeba Con begira zegoen.

Cyrilek mahaian utzi zuen kikera.

— Itxaron —hots egin zuen—. Itxaron, izeba Josephine. Non dut nik burua?

Gora begiratu zuen. Zabaltzen hasi zen ahizpen irribarrea. Cyrilek belauna jo zuen eskuaz.

— Noski —esan zuen—, merengeak. Nola ahaztu zait ordea? Bai, izeba Josephine, arrazoi osoa duzu. Aitari ikaragarri gustatzen zaizkio merengeak.

Irribarre bakarrik ez. Izeba Josephine zeharo gorritu zen pozez. Izeba Conek sakon-sakon egin zuen intziri.

— Eta orain, Cyril, zatoz aita ikustera —esan zuen Josephinek—. Bazekien gaur etortzekoa zinela.

— Bai —esan zuen Cyrilek, oso tinko eta bihoztun. Aulkitik altxatu zen; bat-batean, kirik egin zion erlojuari.

— Aizu, izeba Con, zuen erlojua atzera dabil, ezta? Gizon batekin hitz hartu dut zera, Paddingtonen, bostak jota. Zoritxarrez, ezingo naiz luze geratu aitonarekin.

— O, ez du espero zu oso luze geratzea! — esan zuen izeba Josephinek.

Constantiak erlojuari so jarraitzen zuen. Ezin zuen erabaki aurrera edo atzera zegoen. Bata edo bestea, hori ia seguru zekien. Lehen ere hala egona zen.

Artean, Cyril atzean zegoen.

— Ez zatoz gurekin, izeba Con?

— Jakina —esan zuen Josephinek—. Denok joango gara. Goazeman, Con.

—IX—

Jo zuten atea, eta Cyrilek izebei jarraitu zien aitonaren gela bero, melengara.

— Aurrera —esan zuen aitona Pinnerek—. Ez hor geratu. Zer dugu? Zer saltsa darabilzue?

Su burrunbatsu baten aurrean zegoen, maki-lari helduta. Tapaki lodi bat zuen belaun gai-

nean. Magalean sedazko musuzapi eder hori argi bat zeukan.

— Cyril da, aita —esan zuen Josephinek lotsati. Eta Cyril eskutik hartuta, aurrera eraman zuen.

— Arratsalde on, aitona —esan zuen Cyrilek, eskua izeba Josephinerenetik libratu nahian.

Aitona Pinnerek Cyrilengan josi zituen begiak, modu ospetsu hartan. Non zegoen izeba Con? Izeba Josephineren beste aldean zegoen, beso luzeak aurrean zintzilik, eskuak estututa. Ez zituen begiak aitonagandik baztertzen.

— Eta? —esan zuen aitona Pinnerek, lurra joz—. Zer berri dakarkidak?

Zer berri, zer berri zekarkion? Txoroaren moduan irribarrez ikusi zuen Cyrilek bere burua. Gelako giroa, gainera, itogarria zen.

Baina izeba Josephine etorri zitzaion salbartzera. Ozen hots egin zuen:

— Cyril en aitari oraindik asko gustatzen omen zaio merengea, aitatxo.

— E? —esan zuen aitona Pinnerek, merengeazal more bat bezala okertuz eskua belarri parean.

Josephinek errepikatu zuen:

— Cyrilen aitari oraindik asko gustatzen omen zaio merengea.

— Ez dut aditzen —esan zuen Pinner koronel zaharrak. Eta Josephine makilaz uxatu ondoren, Cyril keinatu zuen makilaz.

— Esaidak zer adierazi nahi didan —esan zuen.

«Jainko santua!»

— Esango diot? —galdetu zuen Cyrilek, gorritu eta adi-adi izeba Josephineri begira.

— Bai, maitea —egin zion irribarre—. Poz handia emango dio.

— Ea, bota ezak! —hots egin zuen Pinner koronelak erretxinduta, berriro lurra astinduz.

Cyril makurtu eta garrasi egin zuen:

— Aitari oraindik asko gustatzen zaio merengea.

Orduan aitona Pinnerek salto egin zuen, tiroz jota bezala.

— Marrurik ez! —hots egin zuen—. Zer arraio du mutil honek? Merengea! Niri ze axola!

— O, izeba Josephine, segitu beharra dugu? —kexatu zen Cyril etsipenez.

— Lasai, maitea —esan zion izeba Josephinek, biak elkarrekin dentistarenean baleude bezala—. Segituan ulertuko du.

Eta Cyrili belarrira esan zion:

— Gorreria hasi zaio.

Orduan izeba makurtu zen eta deiadarka ekin zion osaba Pinneri:

— Cyrilek esan nahi dizun bakarra da, aita-txo, bere aitari oraindik asko gustatzen zaiola merengea.

Pinner koronelak oraingoan ongi entzun, eta hausnartzen jarri zen, Cyrili goitik behera begira.

— Harrigarria! —esan zuen aitona Pinnerek—. Etorri haiz ba hi hain urrutitik honaino, niri kontu harrigarri hori esatera!

Eta Cyrili ere hala iruditu zitzaion.

— Bai, Cyrili bidaliko zionat erlojua —esan zuen Josephinek.

— Ederki legoken —esan zuen Constantiak—. Uste dinat azkeneko etorri zenean arazotxoren bat izan genuela orduarekin.

Katek eten zituen, betiko moduan atetik zala-partan sartuta, horman panel sekretu bat aurkitu balu bezala.

— Frijitua ala egosia? —galdetu zuen ahots lotsagabeak.

Frijitua ala egosia? Josephine eta Constantia txundituta geratu ziren une batez. Ezin zioten tankera hartu.

— Frijitua ala egosia zer, Kate? —galdetu zuen Josephinek, kontzentratzen hasteko ahaleginetan.

Katek purrustada bota zuen.

— Arraina.

— Zergatik ez zara hortik hasi? —aurpegiratu zion Josephinek goxo—. Nola nahi duzu ulertzea? Mundu honetan gauza asko dira, izan ere, frijitu ala egosten direnak.

Eta adorezko erakustaldi haren ostean, guztiz argi esan zion Constantiari:

— Hik ze nahiago dun, Con?

— Ederra egongo huken frijitua —esan zuen Constantiak—. Bestela, egosia ere ederra dun,

noski. Niri berdin zaidan edonola... Hik ez badun nahiago... Hartara...

— Frijitua! —esan zuen Katek, eta berriro indarrean joan zen, beren atea zabalik utzi eta sukaldekoa danba itxiz.

Constantiari begira jarri zen Josephine; bekain zurixkak goratu zituen, ile zurixkako zimur artean desagertu ziren arte. Zutitu zen. Oso modu goren, tinkoan esan zuen:

— Hator mesedez nirekin salara, Constantia. Garrantzi handiko zerbait dinat hirekin eztabai-datzeko.

Izan ere, salara biltzen ziren Kateren gainean hitz egitekoak zirenero.

Josephinek esanguratsu itxi zuen atea.

— Eseri, Constantia —esan zuen, artean ere handikiro. Bazirudien estreinako aldia zuela Constantia errezibitzen. Hau zalantzati ari zen ingurura begira aulki baten bila, zinez arrotz sentituz bezala.

— Hauxe dinagu kontua —esan zuen Josephinek, aurrera makurtuz—: berarekin jarraitu ala ez.

— Horixe dun kontua —baieztatu zuen Constantiak.

— Eta oraingo honetan —esan zuen Josephinek irmo—, behin betiko erabakia hartu behar dinagu.

Une batez, bazirudien aurreko aldi haiek denak aztertzen hastera zihoala Constantia, baina bere buruari eutsi eta esan zuen:

— Bai, Jug.

— Aizan, Con —azaldu zion Josephinek—, dena aldatu dun orain.

Constantiak gora begiratu zuen bizkor.

— Izan ere —jarraitu zuen Josephinek—, ez dinagu lehen bezala Kateren premiarik. —Pitin bat gorritu zen—. Ez zeukan aitaren janaria pres-tatu beharrik.

— Egia galanta —baietsi zuen Constantiak—. Aitak ez din noski orain ez janaririk, ez ezer nahi...

Josephinek zorrotz moztu zion:

— Ez haiz ba erdi lotan egongo, e Con?

— Erdi lotan, Jug? —Constantiak zabal-zabal zituen begiak.

— Ba jar ezan arreta gehiago —esan zuen Josephinek zorrotz, eta berriro gaiari heldu zion—. Hori horrela dela —eta hau ahots izpi batez xuxurlatu zuen, ateari zelatan—, Kate bidali —berriro altxatu zuen ahotsa—, eta geuk prestatuko geniken janaria.

— Zergatik ez? —hots egin zuen Constantiak. Ezin zion irribarreari eutsi. Hura zirrarara! Eskuak estutu zituen—. Zer janda biziko gara, Jug?

— O, arrautza forma guztietan! —esan zuen Jugek, berriro goren—. Eta gainera bazegon makina bat janari prestatu ere.

— Baina nik beti entzun dinat —esan zuen Constantiak—, oso garestiak direla.

— Neurrian erosi behar —esan zuen Josephinek. Baina bere burua bidezidor liluragarri honetatik baztertu eta atzetik joanarazi zuen Constantia.— Orain, halere, Katerekin fidatzen garen ala ez erabaki behar dinagu.

Constantiak bizkarra atzeratu zuen. Barre txiki motel batek alde egin zion ezpainetatik.

— Bitxia dun, Jug —esan zuen—, baina behin ere ez naun gauza izan, gai honi buruz erabakia hartzeko.

Behin ere ez zen gauza izan. Frogak ematea zen arazo nagusia. Nola frogatu gauzak, nola? Esate baterako Katek beraren aurrean keinu itsusi bat egitea. Ez zen posible minagatik egitea? Nola galdetuko zion, bada, ea keinu itsusi bat egin zuen? Katek «Ez» erantzunez gero —eta jakina zegoen hala esango zukeela—, hura larria! Hura lotsaizuna! Gainera, Constantiak susmoa zuen, ia seguru zegoen, Kate komodara joaten zela bera eta Josephine kanpoan zirenean; ez lapurretara, baizik bazterrak miatzera. Etxeratu, eta sarri topatu zuen amatistazko gurutzea leku harrigarrienean: farfailazko zinten azpian edo gaueko bertharen gainean. Behin baino gehiagotan jarri zion Kateri tranpa. Gauzak ordena berezi batean utzi, eta gero Josephineri deitzen zion, lekuko gisa.

— Ikusten, Jug?

— Argi eta garbi, Con.

— Orain jakingo dinagu.

Baina, ai ene, gero begiratzen hasi eta hura ez zen inongo froga! Zerbait mugituta bazegoen, oso posible zen berak komoda ixterakoan gertatu izana; kolpe batengatik izan zitekeen.

— Hik erabaki, Jug. Nik ezin dinat. Zailegia dun.

Baina tarte bat eta azterketa luze baten ostean, Josephinek hasperen egiten zuen:

— Zalantza sortu didan, Con, neronek ere ez zekinat.

— Ezin dinagu berriro beste baterako utzi — esan zuen Josephinek—. Beste baterako uzten badugu...

—XII—

Baina, une hartantxe, organilo bat hasi zen joka beheko kalean. Josephine eta Constantia batera jarri ziren hanka gainean.

— Azkar, Con —esan zuen Josephinek—. Joan hadi azkar. Sei penikekoa zegon horko...

Orduan oroitu ziren. Berdin zen. Ez zuten gehiago organilo-jotzailea isildu beharko. Bera eta Constantiari ez zieten gehiago aginduko tximu hura musika eta guzti handik bidaltzeko. Ez zuten gehiago entzungo deiadar ozen, arraro hura, aitak pentsatzen zuenean ez zebiltzala presaka. Egun osoa organiloari eragiten arituta ere, makilak ez zuen lurra joko.

*Ez du lurra joko,
Ez du lurra joko,*

zioen organiloak.

Zer ari zen Constantia pentsatzen? Oso irribarre bitxia zuen; besteetan ez bezala zegoen. Ez ahal zen behintzat negarrez hasiko.

— Jug, Jug —esan zuen Constantiak goxo, eskuak atxikiz—. Badakin zer egun den gaur? Larunbata. Astea joan dun, astebete.

*Astebete aita hil dela,
Astebete aita hil dela,*

hots egin zuen organiloak. Eta Josephineri ere ahaztu zitzaion buruz eta zentzuz jokatzeari; irribarre egin zuen xume, arraro. Indiako tapi-zean eguzkizko lauki batek jotzen zuen, gorri zurixka; etorri, joan, etorri —azkenean bertan geratu zen, indarrez—, ia urretsu distiratu zuen arte.

— Atera dun eguzkia —esan zuen Josephinek, horrek inporta balu bezala.

Organiloa bor-bor ari zen akorde jario paregabe bat dardaraka isurtzen, akorde biribil argiak, axolagabe sakabanatuak.

Haiek harrapatu nahian bezala, Constantiak bere esku handi, hotzak jaso, eta ondoren berriro jaitsi zituen. Tximiniako koska aldera joan zen, bere Buda kuttuna zegoen lekura. Eta harrizko eta urre itxurako irudi hartan —haren irribarreak sentrazio bitxi bat sortzen zion beti, ia mina ere bai, baina min atsegina—, bazirudien gaur irribarrea baino gehiago ageri zela. Bazekien hark zerbait; bazuen sekreturen bat. «Badakit nik zuk ez dakizun zerbait», zioen Budak. O, zer ote zen, zer izan zitekeen? Baina sentitu zuen bazegoe-la... zerbait.

Eguzki printzak bultzaka ari ziren leiho arte-
tik, itzalgaizka sartzen, argiaz jotzen altzariak
eta argazkiak. Josephine haiei begira zegoen.
Amaren argazkira, piano gaineko argazki handi-
tura iritsi zirenean, harrituta bezala gelditu ziren
hantxe, izan ere oso gutxi geratzen zen amaren
iruditik; bakar-bakarrik pagoda ñimiño baten for-
mako belarritakoak, eta lepoko katu luma-bel-
tza. Zergatik lausotzen ziren hildakoen argazkiak
beti horrela?, galdetu zuen Josephinek bere
artean. Norbait hil bezain laster hiltzen zen
haren argazkia. Baina jakina, amaren hau oso
zaharra zen. Hogeita hamabost urte. Josephine
bere buruaz gogoratzen zen, aulki baten gainean
zutik eta lumazko katua seinalatzen Constantia-
ri, eta esanez suge harexek hil zuela ama Zeila-
nen... Ama hil ez balitz, dena desberdin izango
ote zen? Berak ez zuen horretarako arrazoirik
ikusten. Izeba Florence etorri zen berekin bizitze-
ra eskola bukatu zuten arte, eta hiru bider alda-
tu ziren etxez eta urtero joan ziren oporretan
eta... eta neskame aldaketak ere izan zituzten,
noski.

Txolarre txiki batzuk —jaio berriak ematen zuten—, txioka zeuden leihoko koskan. Pi-pi-pi. Baina Josephineri iruditu zitzaion ez zirela txolarrak, ez zeudela leihoko koskan. Barrutik zetorkion negar hots bitxi, ñimiño hura. Pi-pi-pi. A!, zer ari zen negarrez, hain ahul eta etsi?

Ezkondu izango ote ziren ama bizi izan balitz? Baina ez zuten izan norekin ezkondurik. Han ibili ziren aitaren lagun anglo-indiarrak, aita haiekin haserretu zen arte. Handik aurrera, bera eta Constantia ez ziren inoiz gizon ezkongabe bakar batekin ere topatu, elizgizonekin izan ezik. Nola topatu gizonak? Eta topatuta ere, nola eza-gutu arrotz izateari uzteraino? Irakurriak zituzten jendearen abenturak, atzetik norbait zutenenak eta. Baina Constantiak eta berak sekula ez zuten inor izan atzetik. O bai, izan zen urte batean Eastbournen gizon misterioitsu bat beren ostatuan, ohar bat utzi ziena beren gelaren kanpoko ate aurrean, ur beroaren antoxinean! Baina Conniek aurkitu zuenerako, lurrinak desegina zuen idatzia, irakurtezin bihurtzeraino; ez zuten antzematerik izan bietako zeinentzat zen ere. Eta gainera, hurrengo egunean joan zen. Hori

izan zen dena. Beste guztia aita zaintzea izan zen, eta aldi berean aitaren ondotik alde eginka ibiltzea. Baina orain? Orain? Lapur batek bezala ukitu zuen eguzkiak Josephine, emeki. Burua jaso zuen. Argi printza emeek leihora eramane zuten.

Organiloak jotzeari utzi arte Budaren aurrean egon zen Constantia, pentsakor, baina ez besteetan bezala burua joanda. Oraingo honetan, irrika baten modukoa zen bere pentsamendua. Gogora etorri zitzaion honaino etorri —ezkutuan jaiki eta lo-atorrean—, ilargi betez, eta lurrean etzaten zenean, besoak zabal-zabal eginda, gurutziltzatua bezala. Zergatik? Ilargi handi, zurbilak behartuta. Zur landuko bionbotik zehar-begirada botatzen zioten irudi dantzari izugarriek, baina berari ez zion axola. Gogora etorri zitzaion ere nola, kostaldean zirenero, bere kasa alde egiten zuen ur ertzeraino, eta zerbait kantatzen zuen, berak asmatutako zerbait, ur pila harro hari arretaz begira. Izan zen bestelako bizitza bat ere: irten lasterka, ekarri gauzak etxera poltsatan, probatu, eztabaidatu Jugekin, atzera eramane, ondoren gauza gehiago ekarri eta pro-

batu, eta prestatu aitaren erretiluak, eta saiatu aita ez amorrarazten. Baina bazirudien hori dena tunel moduko batean gertatu zela. Ez zen benetakoa. Soilik tuneletik irteten zenean, ilargi argitara edo itsasertzera edo trumoi-tximista artera, sentitzen zen bera zen bezalakoa. Zer esan nahi zuen horrek? Zeren bila zebilen beti? Nora zihonan hortik? Eta orain? Orain?

Budaren paretik jiratu zen, bere imintzio zalantzati haietako bat eginez. Josephine zutik zegoen aldera joan zen. Zerbait esan nahi zion Josephineri, zerbait izugarri inportantea, alegia... alegia etorkizuna eta zer...

— Ez dun uste, agian... —hasi zen.

Baina eten zuen Josephinek.

— Neure artean pentsatzen nagon, ea orain... —murmurikatu zuen.

Biak isildu ziren; bata bestearen zain geratu ziren.

— Segi, Con —esan zuen Josephinek.

— Ez, ez, Jug; hi lehenbizi —esan zuen Constantiak.

— Ez, esazan zer dunan esateko. Hi hasi haiz —esan zuen Josephinek.

— Ba... ba nahiago dinat lehenbizi hirea entzun —esan zuen Constantiak.

— Ez hadi txoroa izan, Con.

— Benetan, Jug.

— Connie!

— O, Jug!

Tarte bat. Ondoren Constantiak esan zuen, oso xume:

— Ezin dinat esan esatera nindoana, Jug, ahaztu zaidan eta... zer nindoan esatera.

Josephine isilik geratu zen pixka batean. Lehenago eguzkia egondako lekuan zegoen hodei handiari so jarri zen. Ondoren, labur gehitu zuen:

— Niri ere ahaztu zaidan.

USO JAUN-ANDREAK

Berak ongi zekien —inork baino hobeto—, ez zuela aukera bakar baten arrastorik, ezta izpirik ere. Hartan pentsatze hutsa ergela zen. Hain zen ergela, gainera, non ederki ulertuko baitzuen, baldin eta neskaren aitak... bueno, ederki ulertuko zuen neskaren aitak zernahi eginda ere. Izan ere desesperazioa zen, auskalo noiz arte Ingalaterran pasatzen zuen azken eguna izatea zen, bera kinka hartan jarri zuena. Eta oraindik ere... Komodatik gorbata bat aukeratu, lauki urdin eta krema kolorekoa, eta ohe ertzean eseri zen. Dama gazteak «Lotsagabea halakoa!» esaten bazion, harrituko zen? Ezta batere, pentsatu zuen, lepo biguna goratu eta gorbataren gainera jaitsiz. Horrelako zerbait esango zion, seguru asko. Ezin zuen igarri, arazoari hotz-hotzean begiratzuz gero, zer beste erantzun jaso zezakeen.

Horratx! Ispilu aurrean zinta urduri lotu, ilea esku biekini behera sakatu, eta kanpora atera zituen zamarraren sakela barrenak. Urtean bos-

tehun edo seiehun libra inguru ematen zituen fruitu plantazioak, non eta Rodesiako puntan. Kapitalik ez. Diru iturririk ez. Aukerarik ez hurrengo lau urteetan irabaziak handitzeko. Kanpoko itxura, berriz, hutsaren hurrengoa. Osasun bikainez ere ezin harrotu, zeren Afrika Sortaldeko negozio harekin sekulako egurra jaso, eta sei hilabeteko atsedena hartu behar izan baitzuen. Artean izugarri zurbil zegoen —gaur inoiz baino okerrago—, pentsatu zuen, aurrera makurtu eta ispilua aztertuz. Jainko santua! Zer gertatu zen? Ilea berdexka zeukan. Hor konpon, berak ez zuen ile berderik, eta kito. Hori gehiegi zen. Orduan argi berdeak dar-dar egin zuen kristalean: kanpoko zuhaitzaren errainua zen. Reggie jiratu, zigarro-kutxatila atera, baina berak logelari erretzeak amatxori zer nazka ematen zion gogoratu zuenean, berriro lehengo lekuan utzi eta komoda aldera hurreratu zen. Ez, ezin, alajaina, bere buruari ezer onik aurkitu, eta beste hari berriz... A! Bertan gelditu, besoak antxumatu eta gogor bermatu zen komodan.

Nahiz hark halako posizioa eduki, aita aberatsa, alaba bakarra eta askogatik ere auzoko nes-

karik ongien ikusia; nahiz hain ederra eta argia izan... Argia? Hori gutxi esatea zen: ez zegoen ezer, hark egiten ez zekienik; bistakoa zen, beharrezkoa izan balitz, hura jeinu bat izango zen edozertan; nahiz gurasoek alaba eta alabak gurasoak maite, eta hari joaten utzi baino nahia-go izango zuten... Nahiz hau nahiz hura, hainbestekoa zen bere amodioa, non ezin zuen itxaropena baztertu. Baina itxaropena ote zen? Aitzitik, hari goxo-goxo kasu egiteko, hari zer-nahihura emateko, hari ondora perfektu dena bakarrik ametitzeko irrika bitxi, herabe hau, maitasuna bakarrik ote zen? Berak bai hura maite! Komodaren kontra gorputza estutu eta murmuriatu zuen: «Maite dut, maite dut!» Eta, orduantxe, harekin zihoan Umtalira bidean. Gaua zen. Ertz batean zegoen hura, eserita lo. Kokots xamurra lepo xamurrean gordea, betile beltzaran urretsuekin masaila gainetan kokatuak. Txoraturik zegoen haren sudurtxo finarekin, haren ezpain perfektuekin, haurarena bezalako haren belarriarekin, eta hau erdi estaltzen zuten kizkur beltzaran urretsuekin. Oihanean barrena zihoazen. Bero eta ilun eta urruti. Orduan hura esna-

tu eta esan zuen: «Lo egin dut?», eta berak erantzun: «Bai. Ongi zaude? Utzidazu...» Eta bera hurreratu eta ondoan makurtu zitzaion. Ezin zuen ametsetan jarraitu, hainbestekoa zen bere zoriona. Baina halere kemena izan zuen behera jaitsi, lastozko kapeluari atzaparra bota sarrean, eta kaleko atea ixterakoan zera esateko:

— Saiatuko nauk, ea zortea dudan.

Baina zortek ia berehala eman zion, gutxi esaten jarrita, astindu gogor bat. Lorategiko bidean gora eta behera pasieran, Chinny eta Bidy pekinés zaharrekin, amatxo zebilen. Reginaldek asko nahi zion amatxori, noski. Hura... hura beti on beharrez aritzen zen eta ez zuen berehalakoan amore ematen. Baina guraso zakarra zen, hori ez zegoen ukatzerik. Eta bizi-tzan zehar batzuetan, sarri —osaba Alick hil eta berari fruitu plantazioa utzi aurretik—, Reggiek argi izan zuen, mutiko batentzat ez dagoela zigor okerragorik alargun baten seme bakarra izatea baino. Eta berak zeukan guztia amatxo izatea are latzagoa zen. Nola edo hala aita eta ama batera izateaz gain, beraren eta tutorearen senide guztiekin izan zuen sesioa, Reggie

lurrean agertzen hasi aurretik. Hori horrela, Reggiek, etxeminez zegoenero, izarren azpian eserita ataripe ilunean, eta gramofonoa joka, «Bihotz, bizitza ez al da maitatzea?», begi aurrera zetorkion bakarra amatxo zen, garai eta sendo, lorategiko bidexkan tirriki-tarraka, hankapean Chinny eta Bidy zituela...

Amatxo, guraizeak zabalik, hildako zer edo zeren burua moztera zihoala, Reggie begiztatzean gelditu zen.

— Ez haiz ba inora joango, e Reginald? —galdetu zuen, ikusirik bazihoala.

— Tearen ordurako hemen izango naiz —esan zuen Reggiek ahul, eskuak zamarraren sakeletan sartuz.

Zast. Buru bat mozturik. Reggiek ia salto egin zuen.

— Uste nian amarentzat gordeko huela azken arratsaldea —esan zuen.

Isiltasuna. Pekinesak erne begira. Amatxok zioen guztia ulertzen zuten. Bidy etzanda zegoen, mingaina zintzilik; lodi eta distiratsu, toffee puska bat ematen zuen, erdi urtua. Baina Chinnyren portzelanazko begiek ilun so egin zio-

ten Reginaldi, eta sudurrari tiratu zion xuabe, mundu osoa usain txar bat balitz bezala. Zast, berriro guraizeek moztu. Gaixo errukarriak; ikusten ari zirenak!

— Eta nora hoa, amak jakiterik badauka? — galdetu zuen amatxok.

Noizbait amaitu zuten, baina Reggiek ez zuen pausoa mantsotu, etxearen bistatik ezkutatu eta Proctor koronelaren etxerainoko erdibidea egin arte. Orduantxe jabetu zen zer arratsalde giro bikaina zegoen. Goiz guztian euria aritu zuen, uda bukaerako euria, epela, astuna, bizia, eta orain zerua oskarbi zegoen, salbu hodei txikien zerrenda luze bat, ahatekumeen antzera baso gainetik nabigatzen. Justu zuhaitzetako azken tantak botatzeko adina zebilen haizea; izar bero batek zipriztindu zion eskua. Ttan...! Kapeluan jo zuen beste batek. Errepide hutsa argitsu zegoen, landare-hesiek txilar usaina zuten, eta zer distirra handi eta nabaria zuen malbak baserrietako baratzeetan! Hara Proctor koronelaren etxea. Iritsi zen. Eskua atakan, ukondoarekin lilak ukitu, eta hostoak eta polena zabaldu zitzaion zamarraren besoan. Baina itxaron. Azkarregi ari zen.

Kontua berriro aztertzeko asmoa zuen. Horrela, lasai. Baina halere bazihoan bidexkan gora, arrosa landare erraldoiak alde banatan. Honela ezin duk. Baina eskuekin txilinari heldu, eragin, eta lehertu beharrean jarri zuen hoska, etxea sutan zegoela abisatzeko bezala. Neskamea sarreran bertan zegokeen, zeren aurreko atea airean zabaldu baitzen, eta txilin nazkagarri hura isildu aurretik Reggie itxita geratu zen sala hutsean. Arraroa izan arren, hura isildu zenean eta bere burua ikusi gela handi hartan —iluna, piano itzelaren gainean eguzkitako bat zegoela—, erabat bizkortu zen, areago, kitzikatu. Hango isiltasuna! Baina noiznahi atea zabaldu eta erabakiko zen bere patua. Sentsazioa, berriz, dentistarenean egotea bezalatsu zen; zalaparta handiegia zen bere hura. Baina aldi berean, eta gogotik harritu zen Reggie, bere buruari esaten entzun zion: «Jauna, ongi dakizu orain artean ez didazula ezer asko lagundu...» Horrek ekarri zuen bere senera; horrek erakutsi zion zer larria zen kontu hura. Beranduegi. Kisketa jiratu zuten. Anne sartu, bien arteko tarte ilunean barrena etorri, eskua eman, eta ahots txiki, gozo harekin esan zion:

— Asko sentitzen dut, baina aita joana da. Eta ama herrira joan da egun-pasa, kapelu bat erostekotan. Ni bakarrik nago zuri ongi etorria emateko, Reggie.

Reggiek arnasestu egin, kapelua sakatu zamarreko botoien kontra, eta toteldu zuen:

— Zera besterik ez nator... adio esatera.

— O! —hots egin zuen Annek gozo. Pauso batzuk atzeratu eta bere begi grisak dantzatu zituen—. Zer bisita laburra!

Orduan, Reggieri begira, kokotsa goratu eta ozen egin zuen barre, algara luze, gozoa, eta piano aldera urrunduz hantxe bermatu eta hasi zen jolasten eguzkitakoaren borlarekin.

— Asko sentitzen dut —esan zuen—, honela barre egin izana. Ez dakit zergatik egiten dudan. Ohitura txar bat da.

Eta hark zapata grisaz bat-batean lurra jo, eta eskuzapi bat atera zuen artilezko zamar zuri-tik.

— Menderatu beharra dut joera txoro hau —esan zuen.

— Jainko santua, Anne —hots egin zuen Reggiek—. Zoragarria da zuri barrez entzutea! Ez zait bururatzen beste ezer, horrek adina...

Baina benetan, eta hori biek zekiten, ez zen beti barrez ari; ez zuen ohitura hori. Elkar ezagutu zuten egunaz gero, momentu huraxe ezker, auskalo zer arrazoi bedeinkatugatik, Annek barre egin zuen bere bizkar. Zergatik? Berdin zen non zeuden edo zertaz ari ziren hizketan. Litekeena zen erabat serio hastea, ezin serioago —behinik-behin bera—, baina halako batean, esaldi baten erdian, Annek begiratu bota eta dardara txiki bizkor bat pasatzen zitzaion aurpegitik. Ezpainak erdibitu, begiak dantzatu eta barrez hasten zen.

Gainera, bitxia bazen ere, Reggieren ustez hark ez zekien zergatik egiten zuen barre. Ikusia zuen hura bizkarra ematen, kopeta belzten, masailei barrura eragiten, eskuak estutzen. Baina alferrik. Algara luze, gozo hura entzuten zen, baita hots egiten zuenean ere: «Ez dakit zergatik egiten dudan barre». Misterioa zen...

Eskuzapia jaso zuen.

— Eser zaitez —esan zuen—. Eta erre ezazu, nahi baduzu. Zigarrotxoak daude zure ondoko kutxa horretan. Neuk ere hartuko dut bat.

Reggiek pospoloa piztu zion eta, hura makurtzean, haren perlazko eraztuneanugar txiki baten distira ikusi zuen.

— Bihar zara joatekoa, ezta? —esan zuen Annek.

— Bai, bihar, nahitaez —esan zuen Reggiek, ke laino txiki bat botaz. Ze arraiogatik zegoen hain urduri? Baina ez zen urduri hitz egokia—. Lanak... lanak ditut sinesten —gaineratu zuen.

— Bai... ezta? —esan zuen Annek goxo, aurrera makurtu eta zigarrotxo punta igurtziz hautsontzi berdearen jiran. Zer eder zegoen horrela! Zinez eder, txiki-txikia aulki puska hartan. Reginalden bihotza harrotua zegoen xamurki, baina ondokoaren ahotsa zen, haren ahots goxoa, dardara eragiten ziona.

— Hemen urteak daramatzazula iruditzen zait —esan zuen.

Reginaldek tiratu handi bat eman zion zigarrotxoari.

— Latza da itzuli beharra —esan zuen.

«Kru kru kru», entzun zen isilune hartan.

— Baina zuk gustukoa duzu kanpoan ibiltze hori, ezta? —esan zuen Annek. Perlazko lepokotan kiribildu zuen hatza—. Lehengo gauean esaten zuen aitak, bere ustez zer zortea duzun zeure buruaren jabe izanik. —Eta gora begiratu zion. Reginalden irribarrea badaezpadakoa izan zen.

— Nik ez dut zorte izugarririk nabari —esan zuen arin.

«Kru kru kru», heldu zen berriro. Eta Annek murmurikatu zuen:

— Bakardadea, alegia.

— O, ez zait axola bakardadea —esan zuen Reginaldek, zigarrotxoia amorruekin txikituz hautsontzi berdean—. Bota ahala jasango nuke hori, gainera lehen gogoko nuen. Baina hasten naizenean pentsatzen...

Bat-batean hura izua!, gorritasuna sentitu zuen.

«Kru kru kru! Kru kru kru!»

Anne airean zutitu zen.

— Zatoz nire usoei adio esatera —esan zuen—. Saihetseko ataripera aldatu ditugu. Gustatzen zaizkizu usoak, ezta Reggie?

— Ikaragarri —erantzun zion, hain sukartsu non Anneri leiho-atea zabaldu zionean eta bera alboan zutik jarri, Anne lasterka joan baitzen, usoei barrez balego bezala.

Hara eta hona, hara eta hona zebiltzan bi usoak oinez, usategiaren lurreko hondar gorri finean. Bata beti bestearen aurrean. Batek aurrera alde egin, garrasi txiki bat eginez, eta bestea segika, burua handikiro makurtu eta makurtu.

— Begira —azaldu zion Annek—, aurrekoa Uso andrea da. Uso jaunari begiratu, garrasi txiki hori bota eta aurrera alde egiten du, bestea segika duela, burua makurtu eta makurtu. Eta horrek barregura sortzen dio berriro. Orduan berak lasterka egin, eta atzetik du —hots egin zuen Annek, orpoen ganean eseriz—, Uso jaun giza-gaixoa, burua makurtu eta makurtu. Horrelakoxea da beren bizitza. Ez dute beste ezer egiten.

Zutitu eta ale hori batzuk hartu zituen usategiaren teilatuan zegoen zorro batetik.

— Rodesian zaudela gogora baldin badatozki-
zu, Reggie, seguru honetantxe ari direla...

Reggieri ez zitzaion igartzen usoak ikusi edo hitzik entzun zuenik. Momentuz ez zen konturatz-
zen bere ahalegin neketsuaz besterik, hau da,
barruko sekretua erauzi eta Anneri eskaintzea.

— Anne, izango ote naiz ni inoiz zure begi-
koa?

Kito. Esan zuen. Eta ondorengo isilunean,
Reginaldek lorategia ikusi zuen eguzki argitan,
zeru urdin dardaratia, hostoen astindua ataripe-
ko zutabeetan, eta Anne hatz batekin esku ahu-
rreko artaleak jira-biratzten. Orduan hark eskua
astiro itxi, eta mundu berri hura aienatu zen,
astiro murmurikatu zuenean:

— Ez, hainbesteraio ez.

Baina Reggie ezertaz ohartzerako, hura biz-
kor abiatu zen, eta berak eskaileretan behera
jarraitu zion, lorategiko bidexkatik, arrosazko
arku gorrien azpitik, belardian zehar. Han, bela-
rrezko ertz alaia atzean zuela, Anne aurrez-aurre
jarri zen.

— Ez dut esan nahi oso gustuko ez zaitudanik
—esan zuen—. Gustuko zaitut; baina... —zabal-

zabal egin zitzaizkion begiak—, nire hauen da —
dardara bat pasatu zitzaion aurpegitik—, halako-
etan sentitzen den gustu klasea...

Ezpainak erdibitu eta ezin izan zion bere
buruari eutsi. Barrez hasi zen.

— Izan ere, izan ere —hots egin zuen—, zure
gorbata laukitu hori! Oraintxe bertan ere, begiru-
nez aritzeko gaia izan arren, zure gorbatak ika-
ragarri gogorarazten dit katuek argazkietan era-
maten duten xingola! O, barkatu hain zitala
banaiz, mesedez!

Reggiek haren esku txiki epelari heldu zion.

— Ez dago zer barkaturik —esan zuen biz-
kor—. Nola egongo da ba? Nik uste badakidala
zergatik ematen dizudan barregura. Zu denean
ni baino gehiago zara eta ni ergelaren pare naiz.
Ohartzen naiz horretaz, Anne. Baina ni inorekin...

— Ez, ez —Annek gogor estutu zion eskua—.
Ez da hori. Oso oker ari zara. Ni ez naiz, inola
ere, denean zu baino gehiago. Zu ni baino askoz
hobea zara. Miresteko moduan zara besteei
emana eta... eta fina eta xaloa. Nik ez dut horre-
tatik batere. Ez nauzu ezagutzen. Izakera garra-
tza da nirea —esan zuen Annek—. Ez idazu

mesedez hitza eten. Baina ez da hori kontua. Kontua da —ezezkoa egin zuen buruaz—, ezin naizela inola ere ezkondu barre egin diodan gizon batekin. Ulertuko duzu, noski. Nirekin ezkontzen den gizona... —xuxurlatu zuen Annek goxo. Bertan isildu zen. Eskua baztertu, eta, Reggieri begira, irribarre egin zuen arraro, ametsetan—. Nirekin ezkontzen den gizona...

Eta Reggieri iruditu zitzaion, aurrean jarri eta lekua kentzen ziola arrotz garai, egoki, dirdiratsu batek: Annek eta biek antzokian sarri ikusitako gizon mota, antzeztokian azaldu auskalo nondik, tutik esan gabe emakume heroia besoetan hartu, eta begirada luze, itzel baten ostean eramaten zuen auskalo nora...

Reggiek burua makurtu zuen ikuskizun haren aurrean.

— Bai, ulertzen dut —esan zuen lakar.

— Egiatan? —esan zuen Annek—. O, nahiago nuke. Zital ari naizela jokatzeko iruditzen zait. Zaila da azaltzen. Izan ere, ni ez naiz sekula...

Isildu egin zen. Reggie begira geratu zitzaion. Barrez zegoen hura.

— Ez da bitxia? —esan zuen—. Zuri edozein gauza esaten ahal dizut. Hasiera-hasieratik esan ahal izan dizut.

Bera ere saiatu zen barre egin eta «Pozten naiz» esaten. Aurrera jarraitu zuen hark.

— Sekula ez dut inor ezagutu zu adina atsegin zaidanik. Sekula ez naiz inorekin honen zoriontsu sentitu. Baina seguru nago ez dela hau jendeak eta liburuek aipatzen duten maitasuna. Ulertzen duzu? O, bazeneki zer zital sentitzen naizen! Baina gu biok izango ginатеке... Uso jaun-andreak bezala.

Hori aski izan zen. Behin-betikoa iruditu zitzaion Reginaldi, eta ezin zuen jasan halako egia latza.

— Ez horretan sakondu —esan zuen, eta, Anneri bizkarra emanda, belardian zehar begira jarri zen.

Han zegoen lorazainaren baserria, aldamean arte beltz bat zuela. Ke gardeneko izpi urdin, busti bat zegoen tximiniaren gainean zintzilik. Ez zuen benetakoa ematen. Hura eztarriko mina! Hitz egiteko gauza ote zen? Saiatu zen.

— Joan beharra dut etxera —bota zuen muturtuta eta abiatu zen belardian barrena. Baina Anne atzetik joan zitzaion lasterka.

— Ez. Ezin zara oraindik joan —erregutu zion—. Ezin zara inola ere sentimendu horrekin joan.

Eta beltzuri eginez begiratu zion gorantz, ezpainari hozka.

— O, lasai —esan zuen Reggiek, bere buruari gogor eginez—. Ni... ni... —Eta eskuari eragin zion, esanez bezala: «egingo dut aurrera».

— Baina hau izugarria da —esan zuen Annek. Eskuak estututa zegoen aurre-aurrean—. Zu ere ohartuko zara, noski, zer latza izango litzatekeen gu biok ezkontzea, ezta?

— O, horixe, horixe —esan zuen Reggiek, begi akituekin so.

— Okerra, txarra, nire ustez behintzat. Uso jaun-andreak bai ongi. Baina atera kontuak eguneroko bizitzan... atera kontuak!

— Arrazoi osoa duzu —esan zuen Reggiek, eta ibiltzen hasi zen berriro. Baina berriro gelditu zuen Annek. Mahukatik tiratu zion, eta harri-

tzekoa!, barrez ez baizik negarrez hastera doan neska koskorra zirudien oraingoan.

— Orduan zergatik, hain ongi ulertzen duzula eta, zaude hain triste? —egin zuen antsia—. Zergatik inporta zaizu horrenbeste? Zergatik zaude hain penatua?

Reggiek txistua irentsi zuen, eta berriro egin zuen zerbait uxatzeko keinua.

— Ezin dut besterik —esan zuen—. Jota geratu naiz. Orain aldentzen banaiz, nik uste gauza izango naizela...

— Nola aipa dezakezu aldentzea? —esan zuen Annek arbuioz. Lurra jo zuen oinaz; gorri-gorri zegoen—. Nola izan zaitezke hain bihotz-gogorra? Ezin dizut joaten utzi seguru nagoen arte, zuk niri ezkontza eskaini aurretik bezain pozik zaudela. Ulertuko ahal duzu gauza hain simplea.

Baina Reginaldi ez zitzaion batere simplea iruditzen. Ezin zailagoa zirudien.

— Ez daukat zurekin ezkontzerik, baina nola egongo naiz ba pentsatzen hain urruti zaudela, ama bilau horri beste inori ezin idatzi diozula, atsekabeak jota, eta hori dena nire erruz?

— Ez da zure errua. Ez hori pentsa. Destinoa da.

Reggiek haren eskua besotik kendu eta muin eman zion.

— Ez nitaz errukitu, Anne maitea —esan zion xamurki. Eta oraingoan lasterka joan zen kasik, arku arrosen azpitik, lorategiko bidexkan aurre-ra.

«Kru kru kru! Kru kru kru!» entzun zen ataripeko hotsa.

— Reggie, Reggie —lorategitik.

Gelditu eta bizkarra jiratu zuen. Baina Annek, haren begirada lotsati, txunditua ikustean, barre txiki bat egin zuen.

— Zatoz, Uso jauna —esan zuen Annek.

Eta Reginald astiro joan zitzaion atzetik, belardian zehar.

NESKA GAZTEA

Soineko urdinarekin, masailak gorrituxeak, begi urdin-urdinak eta urrezko ile izurrak lehenbiziko aldiz bezala goratuta zituela —hegan has-teko goratuta—, Raddick andrearen alabak zeru distiratsutik jaitsia ematen zuen. Raddick andrearen begirada herabe, apur bat harritu, baina mirespen sakonekoa ere, uste horretan zegoela zirudien; baina alaba ez zen batere pozik ageri —bera pozik?— kasinoko eskailera aurrean hanka jarririk. Izan ere aspertua zegoen... aspertua, zerua kasinoz betea balego bezala, croupierren ordeztatu zahar elkorrak eta fitxen lekuan koroak.

— Berdin zaizu Hennierekin joatea? —esan zuen Raddick andreak—. Seguru zaude? Hor dago autoa, zuek tea hartu eta hemendik ordu betera itzuliko gara atari honetara, honaxe. Bera hor sartzea nahi baitut. Lehenbiziko aldia du eta merezi du ikustea. Bestela ez litzateke gizalegezkoa izango.

— O, ixo, ama —esan zuen berak, nekearekin—. Goazen. Etzazu hainbeste hitz egin. Eta irekita duzu zorroa; berriro galduko duzu diru guztia.

— Barkatu, bihotza —esan zuen Raddick andreak.

— O, goazen barrura! Dirua irabazi nahi dut —esan zuen ahots pazientzia gabeak—. Zuek bai ongi... baina ni miseria gorrian nago!

— Tori. Hartu berrogeita hamar libera, bihotza, hartu ehun!

Raddick andrea ikusi nuen berari eskuan billeteak estutzen, ate jirakorretatik pasatzen ziren bitartean.

Hennie eta biok atarian geratu ginen pixka batean, jendeari begira. Oso irribarre zabal, alaia zuen.

— Hara! —hots egin zuen—. Bulldog ingeles bat. Uzten dute zakurrak sartzen?

— Ez, ez dute uzten.

— Hori bai bikaina, e? Hartuko nuke nik bat. Oso atseginak dira. Ondokoak erabat izutu eta ez dira batere zakarrak jabearekin. —Bat-batean

eskutik heldu zidan—. Hara! Begira atso horri. Nor ote da? Zer itxura da hori? Jokalaria da?

Emakume adineko zimela, soinean satenezko jantzi berde bat zuela, belusezko longain beltza eta kapelu zuri bat luma moreekin, errenka igo zen poliki-poliki eskaileretan gora, burdin hariz tiratuta bezala. Aurrera begira zihoan, bere artean barrez, marmarka eta buruari eraginez; atzaparrekin diru-zorro antzeko zikin bati eusten zion.

Baina orduantxe azaldu zen Raddick andrea, berarekin, beste emakume bat ere atzetik zuela. Lasterka etorri zitzaidan. Masailak gorri-gorri zituela zetorren, alai, zeharo aldatuta. Trena irte-teko zorian dagoela, geltokiko nasan lagunei adio esaten ari den emakumea zirudien.

— A, oraindik hemen zaude. Eskerrak! Ez zara joan. Ze ongi! Izugarri gaizki pasatu dut beste... honekin —eta alaba seinalatu zuen, hantxe geldi-geldi, mesprezios, behera begira zegoela, oinarekin koska haztaka, oso urruti—. Ez diote sartzen uzten! Hogeita bat urte dituela hitz eman diet. Baina ez didate sinesten. Diru poltsa ere erakutsi diot gizonari; ez naiz ausartu beste

ezer egiten. Dena alferrik izan da. Barre egin du gure bizkar... Eta oraintxe egin dut topo New Yorkeko MacEwen andrearekin, hamahiru mila irabazi ditu oraintxe *Salle Privée*-an... eta ni beragana joatea nahi du, bolada onak iraun bitartean. Ezin dut ordea bakarrik utzi... hau. Baina zuk...

Hartan, gora begiratu zuen berak; sua antzematen zitzaion.

— Utz nazazu behingoz! —esan zuen amorruz—. Hau da ergelkeria! Sortu duzu ba zuk saltsa hau! Azkenekoz nator zurekin. Ez dago zurekin burutuko duenik. —Goitik behera begiratu zion amari—. Lasai zaitetz! —gehitu zuen nagusitasunez.

Raddick andrea etsi-etsian zegoen. Desiratzten zegoen MacEwen andrearekin joateko, baina aldi berean...

Nire kemenak bildu nituen.

— Beharbada zuk... nahi zenuke gurekin tea hartzera etorri?

— Bai, bai, pozik joango da. Horixe nahi ninan, bihotza. MacEwen andrea... Hemen egongo naiz ordu bete barru... edo gutxiago... Ni...

Raddick andreak zitzuan igo zituen eskaile-
rak. Berrero ere poltsa zabalik zuela ikusi nuen.

Bakarrik geratu ginen, beraz, hirurok. Baina
izatez, ez zen neure errua izan. Henniek ere
leher eginda begiratzen zuen lurrera. Autoa
heldu zenean, berak musu aldean bil-bil egin
zuen bere beroki beltza, kutsaduraren kontra.
Bere oin txikiak muzinez bezala ekarri zuten
eskailetan behera gugana.

— Izugarri sentitzen dut —murkurikatu nuen
autoa abiatzean.

— O, hor konpon —esan zuen—. Ez dut hogei-
ta bat urtekoa eman nahi. Izan ere... hamazazpi
urte izanik! Horko... —eta hotzikara xume bat
egin zuen— ergelkeria hori ezin dut eraman, eta
gizon zahar potoloak begira-begira edukitzea.
Basapiztiak!

Henniek begirada bizkor bat bota zion, eta
gero leihotik zelatan hasi zen.

Marmol zuri-arrosazko jauregi itzel baten
aurrean gelditu ginen, atarian upel urre-beltze-
tan laranjondoak zituela.

— Sartu nahi? —eskaini nion.

Berak zalantza egin, begiratu, ezpainari hozka egin eta amore eman zuen.

— Bueno, badirudi ez dagoela beste nora joanik eta —esan zuen—. Atera, Hennie.

Ni sartu nintzen aurrena —mahaia topatzeko, noski—, eta gero bera. Baina denetan okerrena bere hamabi urteko neba txikiarekin ibili beharra zen. Horixe bakarrik falta zen, ume hura bere hankapean.

Bazegoen mahai bat. Krabelin arrosak eta plater arrosak zituen, bela itxurako mahaizapi txiki urdinekin.

— Hementxe eseriko gara?

Berak gogaiturik ipini zuen eskua zumitzezko aulki zuri baten bizkarrean.

— Eser gintezke. Zergatik ez? —esan zuen.

Hennie bere ondotik estu-estu igaro eta izkinako aulki batean eseri zen, gorputza bihurrituz. Erabat lekuz kanpo sentitzen zen. Berak, berriz, ez zituen eskularruak kendu ere egin. Begiak beheratu eta mahaia joka hasi zen hatzekin. Bio-lin hots xume bat zabaldu zenean, dar-dar egin eta berriro hozkatu zuen ezpaina. Isiltasuna.

Zerbitzaria agertu zen. Ia ez nintzen ausartzen galdetzera:

— Tea? Kafea? Txinako tea... edo te hotza limoiarekin?

Ez zitzaion ardura. Berarentzat dena berdin zen. Berez, ez zuen ezertxo ere nahi. Henniek xuxurlatu zuen:

— Txokolatea!

Baina zerbitzaria jiratu bezain laster, axolagabe hots egin zuen:

— O, niri ere txokolatea ekartzen badidazu...

Zain geunden bitartean, hauts-kutxatila urrezko bat atera zuen, tapan ispiluduna, gorrotoa balio bezala kotoi gaixoa astindu eta igurtzi zuen bere sudur xarmanta.

— Hennie —esan zuen—, ken itzak lore horiek. —Kotoiarekin seinalatu zituen krabelinak, eta ahopean entzun nion—: Ezin ditut jasan loreak mahai gainean. —Bistan zen atsekabe handia sortzen ziotela, izan ere begiak itxi baitzitu-
tuen nik haiek baztertzerakoan.

Zerbitzariak txokolatea eta tea ekarri zuen. Kikera handi, apartsuak haien aurrean ipini eta nigana bultzatu zuen baso argia. Henniek sudu-

rra sartu eta han agertu zen, une beldurgarri batez, puntan krema tanta ikarati bat zuela. Baina bizkor garbitu zuen, jaun txiki batek bezala. Zalantza nuen, berari adierazi ala ez aurrean zeukala kikera. Ez zen ohartu —ez zuen ikusi—, harik eta bat-batean, kasualitate hutsez, txurrut egin zion arte. Estu eta larri begiratzen nion; dardar xume bat egin zuen.

— Gozoegia! —esan zuen.

Mutil koskor bat, burua mahaspasa bezalako eta gorputza txokolatezkoa, han etorri zen pasta erretilu batekin, lerro-lerro kutixi txikiak, inspirazio txikiak, amets deseginkor txikiak. Berari eskaini zizkion.

— O, ez naiz batere gose. Eramaitzazu.

Hennieri eskaini zizkion. Henniek begiratu bizkor bat bota zidan —nirea onespenezkoa izan, nonbait—, eta txokolatezko kremadun bat hartu zuen, kafezko éclair bat, merenge bat barrena gaztainekin, eta marrubi freskoz betetako adar-txo bat. Bere ezineramana neba ikusita! Baina mutila jiratu bezain laster jaso zuen platera.

— Bueno, bakar bat emaidazu —esan zuen.

Zilarrezko kurrikak bat, bi, hiru bota zituen...
eta baita gerezizko tartatxo bat ere.

— Ari zara ba zu niri hauek denak ematen! —
esan zuen, erdi irribarrez—. Ez ditut jango. Ezin-
go nuke!

Askoz erosoago sentitu nintzen. Nire teari
txurrut egin, bizkarra atzeratu eta erretzeko bai-
mena eskatu nuen. Orduan bera gelditu, sardex-
ka eskuan zuela, begiak zabaldu eta nabarmen
egin zuen irribarre.

— Jakina —esan zuen—. Beti espero dut
ondokoek erretzea.

Baina orduan izugarria gertatu zitzaion Hen-
nieri. Pasta adar hura gogorregi zulatu, bi zati
egin, eta erdi bat mahai gainera erori zen! Hura
estuasuna! Gorri-gorri jarri zen. Belarriak ere
sutan zituen, eta esku lotsatu bat arrastatu zen
mahaian zehar, gorputzaren hondarra kentzeko.

— Basapiztia! —esan zion berak.

Jainko santua! Airean joan behar nuen salba-
tzera. Presaka hots egin nuen:

— Denbora askorako zoaz atzerrira?

Baina ja ahaztua zegoen Hennierekin. Ahaztua zegoen nirekin ere. Zerbait gogoratu nahian ari zen... Oso urruti.

— Ez... ez dakit —esan zuen astiro, urruti haietatik.

— Londres baino nahiago izango duzu noski? Hura da... da...

Ez nuenez jarraitzen, bera itzuli eta begira jarri zitzaidan, txunditua.

— Da...

— *Enfin...* alaiagoa —hots egin nuen, nire zigarrotxo astinduz.

Pastel oso bat behar izan zuen, hartan pentsatzen. Eta ondoren:

— Bueno, nondik begiratzen den... —izan zen lasai esan ahal izan zuen bakarra.

Henniek bukatu zuen. Bero-bero jarraitzen zuen.

Tximeleta itxurako zerrenda hartu nuen mahaitik.

— Aizu eta... izozki bat, Hennie? Mandarina eta jengibrezkoa. Ez, zerbait freskoagoa. Zer iruditzen pinazko krema hotza?

Henniek baiezko biribila. Guri begira zegoen zerbitzaria. Eskaria hartua zuenean, berak burua altxatu zuen apurretatik.

— Mandarina eta jengibrea esan duzu? Ni jengibre zalea naiz. Ekar idazu bat. —Eta segidan—: Nahiago nuke orkestra horrek garai bateko gauzak joko ez balitu. Horrekin ibili ginen dantzan aurreko Gabon denbora guztian. Nazka ematen du!

Baina doinu xarmagarria zen. Honetaz konturatzek goxotasuna eman zidan.

— Oso leku atsegina da hau, ezta Hennie? — esan nuen.

Eta Henniek:

— Sekulakoa! —Asmoa oso isilik esatekoa zuen, baina oso ozen atera zitzaion, garrasiaren antzera.

Atsegina? Leku hau? Atsegina? Lehenbiziko aldiz begiratu zuen ingurura, zer ote zegoen ikusteko... Begiak kliskatu zituen; zalantzan geratu ziren bere begi zoragarriak. Itxura oso ederreko gizon adineko bat berari begira zegoen, zinta beltzeko monokulo baten bitartez. Baina berak ezin zuen hura ikusi. Zulo bat zego-

en haren tokian. Berak beste alderaino begiratzzen zuen.

Azkenean, kristalezko plateretan geratu ziren koilara txiki xapalak. Henniek leher eginda ematen zuen, baina berak berriro jantzi zituen eskularru zuriak. Ezin zuen asmatu diamantezko ordulariarekin; trabatu egin zitzaion. Gogor tiratu —traste txoro hura hautsi eta kito—, baina ezin. Azkenean, gainetik jarri behar izan zuen eskularrua. Antzeman nion ezin zuela han jarraitu, eta baita bera zutitu eta jiratu ere, ni tea ordaintzeko zeregin arruntean ari nintzela.

Berriro kanpoan ginen. Iluntzen hasia zegoen. Zeruan izar txikien ziliportak zeuden; kaleargi handiek dir-dir egiten zuten. Autoa iritsi zain geundela koskara igo zen, lehen bezala oina dantzatzen zuela, behera begira.

Henniek aurrera salto eginez atea ireki, eta bera berriz han eseri zen —oi!— hasperen eta guzti.

— Esaiozu —bota zuen arnasestuka—, ahal duen arinen joateko.

Henniek barre iduri egin zion bere lagun txo-ferrari:

— *Allie vit!* —esan zion. Ondoren, baretu eta gure aurreko eserleku txikian jarri zen.

Berriro agertu zen hauts-kutxatila urrezkoa. Berriro jaso zuen astindua kotoi gaixoak; berriro egon zen begirada bizi, guztiz sekretu bat bera eta ispiluaren artean.

Hiri beltz-urra alde alde moztu genuen, guraizeek brokadua mozten duten bezala. Hennie lan handiak zituen, helduta zihoala ezkutatzeke.

Eta kasinora heldu ginenean, Raddick andrea ez zegoen, noski, bertan. Ez zegoen haren arrastorik eskaileretan, ezta arrastorik ere.

— Nahi duzue autoan geratu, ni bila noan bitartean?

Baina ez, horretarakoxe zegoen! Jainkoaren izenean, nola bada! Hennie bai. Baina bera ez zegoen autoan eserita egoteko. Eskaileretan itxarongo zuen.

— Baina ez zait gustatzen zu hemen uztea — murmurikatu nuen—. Ez zaitut hemen utzi nahi.

Orduan berokia atzeratu zuen; jiratu eta begira jarri zitzaidan; bere ezpainak erdibitu ziren.

— Jainkoaren izenean... zer ba! Ez... ez zait batere axola. Zain.. zain egotea gustatzen zait. —Eta bat-batean gorri-gorri jarri zitzaizkion masailak, begiak ilundu... une batez pentsatu nuen negarrez hastera zihoala—. Utz... utz nazazu, mesedez —toteldu zuen ahots bero, irrikatsuz—. Gustatzen zait. Txoratzen nau zain ego-teak! Benetan... bene-benetan! Beti nago zain... makina bat lekutan...

Bere beroki iluna zabaldu zen, eta bere lepo zuria —bere gorputz gazte goxo guztia, soineko urdinez jantzia—, lore baten antzekoa zen, kimu ilunetik orduantxe jaiotzen.

MA PARKERREN BIZITZA

Jaun literatoak goiz hartan atea ireki Ma Parkerri, asteartero etortzen baitzitzaion etxea garbitzera, eta bilobagatik galdetu zion. Ateko tapizean zegoen Ma Parker, sarrera txiki ilunean, eta besoa luzatuz atea ixten lagundu ondoren jaunari, erantzun zuen:

— Atzo lur eman genion, jauna —esan zuen isilik.

— Ene bada! Asko sentitzen dut —esan zuen jaun literatoak, atsekabezko doinu batekin. Gosaltzen ari zen orduantxe. Oso mantal narra-sa zeraman eta egunkari zimur bat zuen eskuan. Baina txarki sentitu zen. Ezin zen sala epelera itzuli zerbait esan gabe, zerbait gehiago. Orduan, neskamea bezalakoek hainbesteko balioa ematen zietenez hiletei, esan zuen jator:

— Hileta ederra izango zela espero dut.

— Zer esan duzu, jauna? —galdetu zuen Ma Parker zaharrak lehor.

Gaixo errukarria! Erabat jota ematen zuen.

— Hiletak arrakasta izango zuela espero dut
—esan zuen.

Ma Parkerrek ez zuen erantzun. Burua makurtu eta sukaldera joan zen tirriki-tarraka, gogor eutsiz arrain poltsari, barruan baitzituen garbigarriak eta aurreko mantala eta feltrozko oinetakoak. Jaun literatoak bekainak goratu eta gosariari ekin zion berriro.

— Sena galduta, noski —esan zuen ozenki, marmelada hartzen zuela.

Ma Parkerrek buruko tokatik bi orratz bel-bel-tzak kendu eta ate atzean eseki zuen. Zamar gastatua askatu eta hura ere eseki zuen. Ondoren aurreko mantala lotu eta botak kentzeko eseri zen. Botak kentzea edo janztea berebiziko oinazea zen, baina urteak zeramatzan oinaze harekin. Minarekin ohitua zegoenez, aurpegia okertuta eta bihurrituta edukitzen zuen ziztadaren zain, baita txibistak lasaitu aurretik ere. Bukatutakoan, bizkarra atzeratu intziri bat eginenez eta leun-leun igurtzi zituen belaunak...

— Amona! Amona! —Magalean zeukan biloba txikia, botoizko botak jantzita. Kanean jolastetik zetorren.

— Begira nola utzi dioan amonari gona, bihurri hori!

Baina mutikoak amona lepotik hartu eta haren masailak berea igurtzi zuen.

— Amona, eman txanpona! —hasi zitzaion zurikerian.

— Alde hemendik; amonak ez dik txanponik.

— Bai, baduzu.

— Ezetz ba.

— Baietz ba. Eman bat.

Baina bera larruzko poltsa zahar, beltz, zantatuaren bila ari zen ordurako.

— Eta hik zer emango amonari?

Mutikoak barre txiki lotsati bat egin, eta gehiago hurreratu zitzaion. Ilobaren betazala sentitu zuen masailan ikaraz.

— Nik ez dut ezer... —xuxurlatu zuen...

Andre zaharra airean zutitu, gasezko sukalde gaineratik burdinazko lapikoa hartu eta harraskara eramane zuen. Ur hotsak, lapiko barrena astin-

tzen, itxuraz behintzat mina gutxitu zion. Perraila ere bete zuen, eta garbiketarako ontzia.

Liburu osoa beharko litzateke sukalde hura nola zegoen azaltzeko. Astean zehar jauna «bere kasa» moldatzen zen. Hau da, justu horretarako jarritako marmelada ontzi batera botatzen zituen te hostoak, eta sardexka garbirik gabe geratzen bazen, bat edo bi garbitzen zituen eskuoihalean. Gainerakoan, lagunei esplikatzen zien moduan, oso «sistema» sinplea zeukan, eta ez zuen ulertzen jendearen kezka etxeko gobernu zela eta.

— Duzun guztia zikindu, astean behin atso bat hartu garbiketarako, eta kito.

Ondorioak ikaragarritzko zabortegei baten antza zuen. Lurra bera ere beteta zegoen ogi txigortuen azal, paper zorro, zigarrotxo puntaz. Baina Ma Parkerrek ez zion amorrazorik horregatik. Errukia zion jaun gazte gizagaixoari, hark ez baitzuen inortxo ere kasu egingo zionik. Leiho txiki zikinetik triste itxurako zero puska zabal bat ikusten zen, eta hodeiak ageri zirenero oso higuatuak ematen zuten, hodei zaharrak, ertzak janda, zuloekin, edo tearen mantxak bezalakoak.

Ura berotzen zen bitartean, Ma Parker lurra erraztatzen hasi zen. «Bai», pentsatu zuen, erratzaz bazterrak joka, «bata dela eta bestea dela, latzak ikusia naun. Bizitza gogorra izan dinat».

Auzoek ere horixe esaten zuten berari buruz. Bere arrain poltsa hartuta etxe aldera arrastaka zihoala, sarritan aditzen zien kale kantoian zain zeudela, edo burdin hesian jarririk bata besteari esaka: «Horrena bai bizitza gogorra, Ma Parke-rrena». Egia latza zen eta ez zegoen batere harro. 27garrenaren atzeko etxe azpian bizi zela esatea bezala. Gogorra bizitza!

Hamasei urterekin Stratfordetik irten eta Londredera etorri zen, sukaldeko neskame. Bai, Stratford-on-Avonen jaioa zen. Shakespeare esan duzu, jauna? Ez, jendeak beti hartaz galde-tzen zion. Baina berak ez zuen sekula izen hori aditu, antzokietan ikusi arte.

Ez zen ezer oroitzen Stratfordekoaz, salbu «iluntzean sutondoan eserita izarrak ikusten zirela tximiniatik», eta «amak beti hirugiharra edukitzen zuela sabaian zintzilik». Eta bazen zer-bait atarian —zuhaixka bat—, beti usain ederra

zuena. Baina zuhaixkaz zalantza zuen. Behin edo bitan etorri zitzaion gogora ospitalean, gaizkituta eraman zutenean.

Leku latza izan zen, laneko lehen etxea. Ez zioten irteten uzten. Ezin zen gora igo, goizeko eta iluntzeko otoitzerako ez bazen. Benetako sotoa zen. Eta sukaldaria emakume ankerra zen. Irakurri ahal izan baino lehen kentzen zizkion familiaren kartak, edo bestela, haiekin lo hartzen zuela eta, ekonomikara botatzen zizkion... Eta kakalardoak! Sinestea ere! Londresera iritsi arte sekula ez zuen kakalardo beltzik ikusi. Honetan, Mak barre txiki bat egin zuen, izan ere kakalardo beltzik ikusi ez izana! Tira! Zeure oinak sekula ez dituzula ikusi esatea bezala zen.

Familia hark zorpean etxea jan zuenean, «laguntzaile» joan zen mediku baten etxera, eta han bi urte egin ondoren gau eta egun etenik gabe, ezkondu zen. Senarra okina zen.

— Zer eta okina, Parker andrea! —esan zuen jaun literatoak. Izan ere, noiz edo noiz liburuko-teak alde batera utzi eta belarri bat eskaintzen zion Bizitza izeneko zera horri—. Oso atsegina izan behar du okin baten emazte izateak!

Parker andreak ez zuen seguru ematen.

— Lanbide garbi askoa —esan zuen jaunak.

Parker andreak ez zuen gogatua ematen.

— Ez zitzaizun gustatzen bezeroei ogi berria ematea?

— Zera, jauna —esan zuen Parker andreak—, nik ez nuen goiko dendan denbora asko egiten. Hamahiru txikitatik zazpi ehortzi genituen. Ospitalea ez zenean anbulatorioa, esan liteke!

— Horixe bai, Parker andrea! —esan zuen jaunak hotzikaraz, berriro luma hartuz.

Bai, zazpi joan ziren, eta beste seiak artean txikiak zirela, bularretik gaixotu zen senarra. Biriketan irina, esan zion medikuak berari... Senarra ohean eserita zegoen, alkandora burutik gora igota, eta medikuak biribil bat egin zion bizkarrean hatzekin.

— Hemendik irekiko bagenu, Parker andrea —esan zuen medikuak—, birikak hauts zuriz lepo ikusiko zenizkioke. Hartu arnasa, adiskidea! — Eta Parker andreak inoiz ez zuen seguru jakin, benetan ikusi zuen ala iruditu zitzaion hauts zurizko laino handi bat ateratzen senar gizagai-xoaren ezpainenatik...

Baina zenbat borroka sei seme-alaba horiek hazteko eta bere buruari eusteko! Latza izan zen! Gero, orduantxe eskolarako adina iritsi zitzaientean, senarraren arreba etorri zen berekin bizi eta etxeko gobernuan laguntzera, baina artean bi hilabete bertan ez eta eskaileretan behera erori eta bizkarrezurretik jota geratu zen. Eta bost urtez Ma Parkerrek beste haur bat eduki zuen —haren negar saioak!— zaindu beharra. Gero, Maudie txikia bide txarretik abiatu eta berarekin eraman zuen Alice ahizpa; bi mutilak kanpora joan ziren, eta Jim txikia Indiara joan zen soldadu, eta Ethel, gazteena, ezkondu egin zen zerbitzari txiki alferrontzi batekin, gero ultzerekin hil zena Lennie ttikia jaiotako urte berean. Eta orain nire Lennie ttikia... nire biloba...

Kikera zikin, ontzi zikin pilak garbitu eta lehortu zituen. Labanak, ikatza baino beltzago, patata zati batekin garbitu eta kortxo zati batekin bukatu zituen. Mahaia eskuilatu zuen, eta baita arasa eta harraska ere, non sardin isatsak zebiltzan igeri...

Mutikoa ez zen sekula indartsua izan, hasieran bertan ere. Denek neskatzat hartzen duten haur eder horietakoa zen. Ile kizkur zilartsuak zituen, begi urdinak, eta diamante baten antzeko orina sudurraren alde batean. Berak eta Ethelek izandako buruhaustek umek hura hazten! Egunkarietako zenbat gauzarekin saiatu ziren! Igande goizero Ethelek ozen irakurtzen zuen, Ma Parkerrek lixiba egin bitartean.

«Jauna: Bi hitz bakarrik, zuri esateko nire Myrtil ttikia hiletsi zutela... Lau botila hartu eta... 9 astetan 8 libra irabazi, *eta oraindik gizentzen ari da*».

Eta orduan arasatik tintaren arrautzontzia hartu eta gutuna idatzi ohi zuten, eta Mak posta-agindu bat bidali ohi zuen biharamunean, lanera bidean. Baina alferrik zen. Lennie ez zen ezerekin gizentzen. Kanposantura eramateak ere ez zion inoiz kolorea hobetu; autobusean zihoala astindu on bat emateak ez zion inoiz apetitua ireki.

Baina hura amonaren mutikoa zen hasieratik...

— Noren mutikoa haiz hi? —esaten zion Ma Parkerrek, labe aurrean zutitu eta leiho zikinerantz zihoala.

Eta ahots ttiki hura, oso epela, oso hurbila, itogarria —Ma Parkerrek bular barruan sentitzen zuen, bihotz azpian—, barrez lehertzen zen, esanez:

— Ni amonaren mutikoa naiz.

Une hartan pauso hotsa aditu zen, eta jaun literatoa agertu zen, kalerako jantzita.

— O, Parker andrea, kanpora noa.

— Oso ondo, jauna.

— Tintontziaren erretiluan aurkituko duzu zure koroa erdia.

— Eskerrik asko, jauna.

— A, aizu, Parker andrea —esan zuen jaun literatoak bizkor—, azkeneko hemen izan zinean ez zenuen kakaorik zakarretara botako, ezta?

— Ez , jauna.

— Arraroa da oso. Lepoa jokatuko nukeen koilarakada txiki bat kakao utzi nuela potoan. — Bat-batean isildu zen. Goxo eta tinko jarraitu zuen—: Zerbait harrika botatzen baduzu esango

didazu, ezta, Parker andrea? —Eta han joan zen, bere buruarekin oso pozik, erabat seguru, hain zuzen ere, argi utzi ziola Parker andreari bera emakume bat bezain ernea zela, nahiz eta axo-lagabe itxura eduki.

Atea danba itxi zen. Eskuilak eta zapiak hartuta logelara joan zen. Baina ohea egiten hasi zenean, berdintzen, sartzen, astintzen, jasanezina gertatu zitzaion Lennie ttikiaren oroitzapena. Zergatik sofritu behar izan zuen hainbeste? Hori xe zen ulertu ezin zuena. Halako aingeru ttikiak zergatik borrokatu arnasa hartzeko? Ez zuen zentzurik haur bati horrela sofriarazteak.

...Lennieren bularreko kutxa ttikitik irakitearen antzeko hotsa aditzen zen. Koskor handi bat zeukan bularrean egosten, bota ezin zuena. Eztul egitean izerdia azaltzen zitzaion bekokian; begiak handitu, eskuak dar-dar, eta koskor handi hura egosten, patata bat eltze barruan kolpeka bezala. Baina denetan latzena zen eztulka ari ez zenean, burkoaren kontra eseri eta ez zuen hitz egin edo erantzuten, ezta aditzen zuen itxurarik egiten ere. Muturtuta jartzen zen.

— Ez duk amona xahar gaixoaren kulpa, pottoko —esaten zion Ma Parker gaixoak, hari belarri ttiki purpuretatik ile bustia atzeratuz. Baina Lenniek burua mugitu eta baztertzen zen. Zeharo haserre begiratzen zion amonari, irmo. Burua okertu eta saiheska begiratzen zion, amonagandik halakorik espero izan ez balu bezala.

Baina azkenean... Ma Parkerrek estalkia bota zuen ohe gainera. Ez, ez zeukan hartan pentsatzerik. Gehiegizkoa zen... gehiegi jasan behar izan zuen bizitzan. Orain arte jasan zuen, bere buruari zutik eutsi zion, eta sekula ez zuten negarrez ikusi. Ezta inortxok ere. Seme-alabek ere ez zuten ikusi behea jotzen. Beti atxiki zuen burua harro. Baina orain! Lennie gabe... zer geratzen zitzaion? Deus ez. Huraxe zen bizitzan geratzen zitzaion bakarra, eta orain hura ere ez. Zergatik gertatu behar zait hori dena?, galdetu zuen berekiko.

— Zer egin dut? —esan zuen Ma Parker gaixoak—. Zer egin dut?

Hitz horiek esatearekin batera, lurrera erori zitzaion eskuila. Sukaldean topatu zuen bere burua. Bere miseria hain zen gogorra non kape-

lua jarri, zamarra jantzi eta etxebizitzatik irten baitzen, ametsetan bezala. Ez zekien zer egitera zihoan. Gertatu zaionarekin izu-izu eginik doan norbait bezala, edonora joanaz ihes egitea balego bezala...

Kalea hotz zegoen. Haize izoztua zebilen. Jendea ziztuan zihoan, oso bizi; gizonak guraizeak bezala oinez; emakumeak katuak bezala tipi-tapa. Eta inork ez zekien; inori ez zitzaion axola. Bertan lehertzen bazen ere, azkenean, hainbeste urte eta gero negarrari ematen bazion, giltzaperara bidaliko zuten.

Baina negar egitean pentsatu, eta iruditu zitzaion Lennie ttikiak besoetara salto egiten ziola. Bai, horixe nahi dik, laztana. Amonak negar egin nahi dik. Orain negar egiterik baleuka, denbora askoan negar, hainbeste gauzagatik, bateko lehen etxe hura eta hango sukaldari ankerra, besteko medikuarena, gero zazpi ttikiak, senarraren heriotza, seme-alaben joera, eta Lennierena bitarteko urte garratz guztiak. Baina gauza hauekin denekin behar bezala negar egiteko, denbora asko beharko zuen.

Halere, iritsi zen garaia. Egin beharra zeukan. Ezin zuen gehiago atzeratu; ezin zuen luzaroago itxaron... Nora joan?

«Horrena bai bizitza gogorra, Ma Parkerrena». Bai, bizitza gogorra, ongi ere! Dardaraka hasi zitzaion kokotsa; ez zeukan denbora galtzerik. Baina non? Non?

Ez zeukan etxera joaterik; Ethel zegoen han. Beldurrez akabatzen jarriko zen. Ezin zen edozein bankutan eseri; jendea etorriko zitzaion galdetzka. Ezin zen, noski, jaunaren etxera itzuli; ez zuen eskubiderik besteren etxean negar egiteko. Harmailetan edo esertzen bazen, polizia batek zerbait esango zion.

Ai, ezin ote zen inon gorde eta bere kasa egon, eta nahi zuen arte bertan egon, inori galaz gabe, inork estutu gabe? Mundu osoan ezin ote zuen ase arteko negar saio bat egin... azkenean?

Ma Parker bertan gelditu zen, batera eta bestera begira. Haize izoztuak mantala harrotu zion, puxika baten antzera. Eta orain euria hasi zuen. Ez, inon ez.

EZKONTZA À LA MODE

Geltoki aldera zihoala, Williamek atsekabezko zizta min bat nabaritu zuen, txikientzat ezer ez zeramala oroitzean. Ume gaixoak! Haiek pagatu behar. Agurtzera etortzean haien lehenbiziko hitzak: «Zer ekarri, aitatxo?», eta bera esku hutsik. Goxoki batzuk erosi beharko zizkien geltokian. Baina horixe bera egin zuen aurreko lau larunbatetan; betiko kutxatila berdinak ikusteak aurpegia erasan zien.

Eta Paddyk esan zuen:

— Lehengoan zinta gorria zuen nireak.

Eta Johnnyk:

— Nirea beti arrosa da. Ez zait arrosa gustatzen.

Baina zer egin behar zuen Williamek? Ez zen erraza erabaki bat hartzea. Garai batean bai, taxuzko jostailu denda batera taxian joan eta zerbait aukeratuko zien bost minututan. Baina orain ja bazituzten Errusiako jostailuak, Frantziako jostailuak, Serbiako jostailuak... bazter guztietako jostailuak. Urtebetetik gora zen Isabelek

astoak, moto zaharrak eta bestelakoak zokoratu zituela, «arras sentimentalak» eta «haurrak hezteko guztiz desegokiak» zirelako.

— Oso garrantzitsua da —azaldu zion Isabel berriak—, hasieratik zaletasun zuzenak hartzea. Gerora denbora asko aurreratzen da horrela. Izan ere, ume gaixoek haurtzaro guztia mustro hauei begira pasatzen badute, gutxi fida hazten direnean Royal Academyra joan nahi izatea.

Eta Royal Academy bisitatzeak berehalako heriotza balekar bezala hitz egin zuen...

— Ez dakit ba —esan zuen Williamek astiro—. Nik beren adina nuenean, muturrean korapiloa egindako eskuoihal bati helduta oheratzen nintzen.

Isabel berriak begiratu zion, begiak kizkur, ezpainak erdibituta.

— Ene, William! Sinesten dizut, bai! —eta barre egin zuen, era berri hartan.

Bada goxokiak izan beharko zuten, pentsatu zuen Williamek goibel, taxi gidariarentzat diru xehe bila sakelak miatzerakoan. Eta han ikusi zituen neska-mutilak kutxatilik besteri eskaintzen —ume ikaragarri eskuzabalak ziren—, eta

Isabelen lagun xarmentak haiek hartzen, zalan-tza handirik gabe...

Eta fruituak? Geltoki barruko saltegi baten inguruan ibili zen. Meloi bana edo? Hori ere banatu beharko ote zuten? Edo pina bat Paden-tzat eta meloi bat Johnnyrentzat? Isabelen lagunak ez ziren, baldinbaitere, bazkalorduan umeen gelara sartuko ezkutuan. Halere, meloia erostekoan, Williamek ikuspen beldurgarri bat izan zuen: Isabelen poeta gazte haietako bat xerra bat miazkatzen, auskalo zergatik, umeen gelako ate atzean.

Bi zorro trakets haiekin lehiatu zen trene-rantz. Nasa gainezka zegoen eta trena bertan. Ateak itxi eta ireki zebiltzan, danbaka. Lokomoto-rreko txistu hots ozenarekin jendea txundituta zebilen, batera eta bestera presaka. Williamek zuzenean jo erretzaileen lehen klasera, maleta eta zorroak kokatu, eta barruko sakelatik agiri pilo handi bat ateraz, txokoan zapla eseri eta hasi zen irakurtzen.

«Gure bezeroa seguru dago... Prest gaude berriz aztertzeko... gertatuko balitz...» A, horrela bai ongi. Bere ile zapaldua atzeraka berdindu eta

Williamek hankak luzatu zituen bagoiko solairuan. Gutxitua zeukan besteetako sastada motela bularrean. «Geure erabakiari dagokionez...» Arkatz urdin bat atera eta astiro azpimarratu zuen paragrafo bat.

Bi gizon sartu, bere hanken gainetik pasatu eta beste puntan jarri ziren. Mutil gazte batek golf makilak goiko txokora bota eta aurrean eseri zen. Trenaren balantza ezti batekin abiatu ziren. Williamek gora begiratu eta geltoki bero, argia ikusi zuen irristan joaten. Neska musu-gorri bat igaro zen bagoietatik lasterka; haren imintzio eta deiek bazuten estuasunezko eta etsipe-nezko zera bat. «Histerikoa», pentsatu zuen Williamek geldoki. Ondoren, langile koipetsu muturbeltz batek, nasaren muturretik, barre iduri egin zion bazihoan trenari. Eta Williamek bere artean: «Hori bizimodu nazkagarria!», eta berriro itzuli zen agirietara.

Berriro burua altxatu zuenean soroak ageri ziren, eta abereak zuhaitz ilunen gerizpean. Ibai zabal bat —ur axalean umeak biluzik plisti-plasta— azaldu eta ezkutatu zen. Zeruak distira zur-

bila zuen, eta txori bat nabigatu zen aldez alde, bitxi bateko orban iluna bezala.

«Ikertu ditugu gure bezeroen posta txostenak...» Irakurritako azken esaldi haren oihartzuna entzun zuen bere baitan. «Ikertu ditugu...» Williamek esaldi horri heldu nahi izan zion, baina alferrik zen; erditik apurtu zitzaion, eta soroa, zerua, txori marinela, ura, dena ari zen esaten: «Isabel.» Horixe bera gertatzen zen larunbat arratsaldero. Isabelekin elkartzeko bidean zihoa-la hasten ziren ametsezko elkartze haiek. Gelto-kian zegoen hura, beste guztiengandik bazter samarrean; kanpoko taxi irekian eserita; lorategiko atakan; belar txigortuan oinez; atean, edo hallean bertan.

Eta haren ahots argi, gardenak zioen: «William da»; edo «Kaixo, William!», edo «Hemen da William.» Berak esku hotz hura ukitzen zion, masaila hotz hura.

Isabelen freskura bikaina! Mutil koskorretan ez zegoen halako gozaturik: euri jasaren ondoren lorategira lasterka irten eta arrosategia bere burura astintzea. Orain, berriz, Isabel zuen arrosategi, hostoa bezain leun, txinpartari eta hotz.

Eta bera, berriz, mutil koskor hura. Baina orain ez zegoen ez lorategira irtenik, ez barrerik, ez astindurik. Berriro hasi zitzaion ohiko sastada motela bularrean. Hankak goratu, agiriak baztertu eta begiak itxi zituen.

— Zer duzu, Isabel? Zer duzu? —esan zion xamur. Etxe berriko logelan zeuden. Isabel aulki pintatu batean zegoen eserita; aurreko apainmahaiaren gaina kutxatila beltz eta berdez betea zegoen.

— Zer esan nahi duzu, William? —eta aurrera makurtuz masailen gainera jausi zitzaion ile argi eder hura.

— O, badakizu! —Gela ezezagunaren erdian zutik, bera ere ezezagun sentitu zen. Orduan, Isabel jiratu eta aurrez aurre jarri zen.

— O, William! —hots egin zuen erreguka, ileko eskuila airean zuela—. Ez zaitez mesedez izan horren zozoa eta... tragikoa. Beti ari zara esaten, adierazten edo aipatzen, aldatua nagoela. Zer eta oso jende jatorra ezagutu dudalako, eta gehiago irteten naizelako, eta oso gustura nagoelako guztiarekin, badirudi nik... —Isabelek ilea atzeratu eta barre egin zuen— elkarrenga-

nako amodioa apurtu edo dudala. Erabat absurdua da —ezpaina hozkatu zuen—, eta erotzekoa, William. Baita etxe berri hau eta gogo txarrez ametitu dizkidazun mirabeak ere.

— Isabel!

— Bai, bai, egia da neurri batean —esan zuen Isabelek bizkor—. Gaizki irizten diezu. O, badakit bai. Argi antzematen dut —esan zuen goxo—, eskaileretan gora zatozenero. Baina ezin genuen bizitzen jarraitu beste zulo zaztar hartan, William. Gutxienez praktikoa izan zaitez! Umeentzat ere ez zegoen lekurik eta!

Bai, egia zen. Goizero epaitegitik zetorrene-ro, atzeko salan topatzen zituen umeak Isabelekin. Lehoinabar larrua sofaren bizkarrera botata zaldi gainean zebiltzan, edo dendetan jolasten Isabelen lan-mahaia saltoki gisa zutela, edo Pad txikia sutondoko tapiz gainean eserita jo eta ke arraunean kobrezko su-pala txiki batekin, eta Johnny berriz piratei tiroka kurrikekin. Iluntzero bizkarrean igotzen ziren, banaka-banaka, eskailera meharrean gora, amona zahar lodiarengana.

Bai, agian etxe zulo zaztarra zen. Etxe zuri txiki bat errezela urdinekin eta leihoko lore ontzian petuniekin. Atean bertan esaten zien Williamek lagunei: «Ikusi dituzue gure petuniak? Berebizikoa da Londres batean, ezta?»

Baina gauzarik txoroena, gauzarik harrigarriena, Isabeli ez zion inondik inora igarri ez zegoela pozik, ez behintzat bera bezain pozik. Ene, hura itsukeria! Garai haietan gutxi pentsatzen zuen hark ezin zuela eraman hain etxe txiki eskasa, amona lodia umeak gaizki ohitzen ari zela, bakardade gorrian zegoela, irrika bizian jende berria, musika eta film berriak noiz azalduko. Festa hartara joan ez balira Moira Morrisonen estudioan... Bazihoazenean Moira Morrisonek esan ez balu: «Zure emaztea salbatuko dut, zeurekoia. Titania txiki bakan bat bezala da»... Isabel Parisera joan ez balitz Moirarekin... Eta abar eta abar.

Trena beste geltoki batean zen. Bettingford! Jainko santua! Hamar minututan helduko ziren. Williamek poltsiko barrura sakatu zituen berriro agiri guztiak; pareko gizon gaztea aspaldi desagertua zen. Orain beste biak irten ziren. Arrats

apaleko eguzkiak erdiz erdi jotzen zituen emakumeak, kotoizko soinekoekin jantziak, eta umeak, eguzkiarekin erreta ortutsik. Eguzkiak galda bizian argitu zuen hosto zakarreko lore horixka sedatsu bat, haitzezko gain batean hedatua. Hai-zeak, leihotik zalapartan, itsas usaina zuen. Betiko talde hura ote zuen Isabelek asteburu honetan ere?, egin zuen Williamek galdera.

Eta beren lehengo oporrez oroitu zen, laurak batera, baserriko neska batek, Rosek, haurrak zaintzen zituela. Isabel jertsearekin eta ilea txirikordaturik; hamalau urtekoa ematen zuen. Ene, berari berriz nola harrotu zitzaion sudurreko azala! Eta haiek jateak, haiek loak lumazko ohe izugarri hartan beren oinak elkarloturik... Williamek ezin izan zuen gorde irribarre lehor bat, bere sentimenduen berri baleki Isabel nola izutuko zen pentsaturik.

— Kaixo, William!

Geltokian zegoen hura, lehen pentsatu bezala jendeagandik bereiz, eta —jauzi egin zuen Williamek bihotzak—, bakar-bakarrik.

— Kaixo, Isabel! —Williamek adi-adi begiratu zion. Hain eder zegoela iruditu eta zerbait esan behar ziola pentsatu zuen—: Oso itxura onekoa ikusten zaitut.

— Bai? —esan zuen Isabelek—. Ba ez naiz oso ongi sentitzen. Goazen, berandu iritsi da-eta zure tren zahar hori. Kanpoan dago taxia. —Isabelek oso goxo jarri zion eskua besoan, txartelen gizonaren ondotik—. Denok etorri gara zure bila —esan zuen—. Gozoki dendan utzi dugu Bobby Kane, ondoren jasotzekotan.

— O! —esan zuen Williamek. Momentuz ezin izan zuen besterik esan.

Eguzki galdan zegoen taxia zain, Bill Hunt eta Dennis Green alde batean zabal etzanda, kape-luak aurpegi gainera okertuta zituztela, eta bestean Moira Morrison, marrubi erraldoi baten antzeko txano batekin, gora eta behera saltoka.

— Izotzik ez! Izotzik ez! Izotzik ez! —ari zen oihuka, alai.

Eta Dennisek kapelu azpitik gehitu zuen:

— Arrandegian erosi beharko.

Eta Bill Huntetik, agerira etorritz, gaineratu zuen:

— Arrain eta guzti.

— Hau amorrazioa! —kexatu zen Isabel. Eta herri guztian izotz bila ibili zirela azaldu zion Williami, bera zain zegoen bitartean—. Dena ari da pikutara joaten, gurinetik hasita.

— Gurinez igurtzi beharko dugu gorputza —esan zuen Dennisek—. Beldurrik gabe eman ukendua buruan, William.

— Aizue —esan zuen Williamek—. Nola eseri behar dugu? Hobe izango dut gidariaren aldamean jartzea.

— Ez, Bobby Kane dago hor —esan zuen Isabellek—. Zu eseri Moira eta nire artean.

Abiatu zen taxia.

— Zer duzu zorro arraro horietan?

— Moztutako buruak! —esan zuen Bill Huntetek, kapelu azpian hotzikaraz.

— O, fruituak! —Isabel asko poztu zen, itxuraz—. Zu bai azkarra! Meloi bat eta pina bat. Ze ondo!

— Ez, itxaron —esan zuen Williamek irribarre-tsu. Baina berez urduri zegoen—. Umeentzat ekarri ditut.

— Ene bada! —Isabelek barre egin eta besoa laztandu zion—. Oinaze batean jarriko lirateke horiek janda. Ez —ttaka jo zion eskuan—, hurrengoan ekarriko diezu zerbait. Ni ez nago neure pinari uko egiteko.

— Bihotz-gogorra! Utzidan usaintzen! —esan zuen Moirak. Otoi eginez luzatu zituen besoak, Williamen aurretik—. O! —Marrubizko txanoa erori zitzaion: oso ahul entzun zen.

— Andereño bat pina batez maitemindua —esan zuen Dennisek, taxia leihosare marraduneko denda txiki baten atarian gelditzean. Handik atera zen Bobby Kane, besoak zorro txikiz beteta.

— Ea goxoak diren. Koloreagatik aukeratu ditut. Badaude tartean biribil batzuk itxuraz zerutiarrak. Eta begiraiozue nougat honi —hots egin zuen aztoratua—, begiraiozue! Ballet txiki perfektu bat da!

Baina dendaria azaldu zen orduantxe.

— O, ahaztuta nengoen. Ordaindu gabe daude —esan zuen Bobbyk, beldurtu itxurarekin. Isabelek billete bat eman dendariari eta Bobby txoratzen zen berriro—. Kaixo, William! Ni gida-

riaren aldamenean. —Eta burua agerian zuela, erabat zuriz jantzia, alkandoraren besoak sorbaldaraino goratuta, salto egin zuen bere lekura—. Avanti! —hots egin zuen...

Tea hartu ondoren bainatzera joan ziren denak, baina William etxean geratu zen, txikiekin bakeak egiteko. Baina lo zeuden Johnny eta Paddy, moteldu zen argitasun gorri arrosa, saguzarrak hegan, eta haiek artean bainutik itzuli gabe. William eskaileretan behera zihoala, neska mea pasatu zen sarreratik lanpara batekin. Salaraino segitu zion hari. Gela luze bat zen, horiz margotua. Williamen pareko horman norbaitek gizon gazte bat pintatu zuen, berezkoa baino handiagoa, hankokerra, bitxilore zabal bat eskaintzen ziola andre gazte bati, beso bat oso motza eta bestea oso luze eta mehea. Aulkietan eta sofa gainean zapi zerrenda beltzak zeuden zintzilik —zipriztin handiz estaliak, arrautza hautsienak bezalakoak—, eta noranahi begiraturik zigarrotxo puntaz betetako hautsontzi bat ageri zen. Besaulkietako batean eseri zen William. Gaur egunean, eskuaz saihets barrenak aztertu eta ez zen topatzen hiru hankako ardirik edo

behi adarmotzik edo Noeren Arkako uso gizenik. Liburu azal-mehe haietako bat harrapatzen zen, kedarrez zikindutako olerkiekin... Sakelan zera-man agiri mordoaz oroitu zen, baina nekaturia eta gosetuegia zegoen irakurtzen hasteko. Atea zabalik zegoen; hotsa zetorren sukaldetik. Etxean bakarrik baleude bezala ari ziren neska-meak hizketan. Halako batean, barre zantzo ozen bat zabaldu zen, eta horrekin batera «Ix!» bat, ozena hau ere. Berarekin gogoratu ziren. Altxatu eta ate biko leihotik irten zen lorategira, eta hango ilunpean zutik zegoela entzun zituen bainu-hartzaileak, bide hondartsuan gora zetozela; haien ahotsek isiltasuna urratu zuten.

— Erabil dezala Moirak bere abildadea.

Moirak orduan hasperen tragiko bat.

— Asteburuetan gramofono bat eduki behar genuke, «Mendiko Neskatxa» aditzeko.

— O ez! O ez! —entzun zen Isabel hoska—. Williamekin oker jokatzeari da hori. Jatorrak izan zaitezte berarekin, umeak! Bihar iluntzera arte besterik ez da geratuko.

— Utzi neure kontu! —hots egin zuen Bobby Kanek—. Ni oso iaioa naiz jendeari kasu egiten.

Lorategiko ataka zabaldu eta itxi zen. William terrazara agertu zen; ikusi zuten.

— Kaixo, William! —Eta Bobby Kane, eskuoihala astintzen, belardi txigortuan salto eta zilipurdika hasi zen—. Lastima da zu ez etorria. Zoragarria zegoen ura. Gero denok taberna txiki batera joan eta pattarra edan dugu.

Besteak ja etxean ziren.

— Aizu, Isabel —deitu zion Bobbyk—, nahi duzu nik gaur gauean nire Nijinskyren soinekoa janztea?

— Ez —esan zuen Isabelek—, ez gara orain aldatzen hasiko. Gosetuta gaude. William ere gosetuta dago. Etorri, *mes amis*. Hasteko, sardinak.

— Topatu ditut sardinak. —Moirak esan eta sarrerara etorri zen lasterka, ontzi bati goian eusten ziola.

— Andereñoa sardina ontzi batekin —esan zuen Dennisek itzaltsu.

— Eta, William, zer berri Londresen? —galde-tu zuen Bill Hunttek, whisky botila bati kortxo ateraz.

— O, ezer gutxi aldatu da Londres —erantzun zuen berak.

— Londres zahar ederra —esan zuen Bobbyk bihozkoia, sardina bat zulatuz.

Baina laster ahaztu ziren Williamekin. Moira Morrisonek zalantza zuen, ea zer kolore hartzen duten hankek ur azpian.

— Nireak dira zurbilenak, txanpinoi kolore zurbila.

Billek eta Dennisek sekulako jatea ari zuten. Isabel, berriz, basoak betetzen, eta platerak aldatzen, eta pospiloak bilatzen, zoriontsu irribarrez. Halako batean esan zuen:

— Ze ondo, Bill, hau margotuko bazenu.

— Margotu zer? —esan zuen Billek ozen, ahoan ogia galkatuz.

— Gu denok —esan zuen Isabelek—. Mahaian. Liluragarria izango litzateke hemendik hogeia urtera.

Billek begiak kizkurtu zituen, janaria txikitzen.

— Ez dago argi egokirik —esan zuen elkor—. Oso horixka. —Eta jaten jarraitu zuen. Eta bazi-rudien horrekin ere txoratu zuela Isabel.

Afalondoko nekearekin aho zabalka aritzea besterik ez zuten egin, oherako ordua heldu zen arte...

Hurrengo arratsaldean taxiaren zain zegoen momentua arte, Williamek ezin izan zuen Isabelekin bakarrik egon. Sarrerara maleta jaistean, Isabel, besteak utzita, beragana joan zen. Makurtu eta maleta jaso zuen.

— Hau pisua! —esan zuen, barre txiki, behartu bat eginez—. Utzi eramaten! Atakaraino.

— Ez, zer dela eta? —esan zuen Williamek—. Baita zera ere. Eman.

— O, utzidazu mesedez —esan zuen Isabelek—. Gogoia dut.

Elkarren ondoan joan ziren, isilik. Williamek ez zuen orain ezer esatekorik sentitzen.

— Horratx —esan zuen Isabelek, garaipenez maleta lurrean uzterakoan, eta urduri begiratu zuen bide hondartsura—. Oraingo honetan ez dakit ikusi zaitudan ere —esan zuen arnasa estututa—. Zer laburra den, ezta? Iritsi berria zarela iruditzen zait. Hurrengoan... —Taxia agertu zen—. Ea behar den bezala kasu egiten dizuten

Londresen. Pena izan da umeek eguna kanpoan pasatu izana, baina halaxe antolatu zuen Neil andereñoak. Min ona edukiko dute zu gabe! Gizagaixoa, berriro Londresera itzuli beharra. — Taxiak jira hartu zuen—. Agur! —Isabelek musu txiki bat eman zion presaka; ondoren, joan zen.

Soroak, zuhaitzak, hesiak igaro ziren jarioan. Huts eta itsu tankerako herrixka astindu eta geltokiko aldapa gora erraustu zuten. Hantxe zegoen trena. Williamek zuzenean jo erretzaileen lehen klasera, txokoan zapla eseri, baina oraingoan bakean utzi zituen agiriak. Betiko hozkada motel haren gainean besoak gurutzatu, eta bere artean gutun bat idazten hasi zen Isabeli.

Berandu iritsi zen posta, ohi bezala. Denak etxe aurrean zeuden, eserleku luzeetan jarrita, kolorezko eguzkitakoen azpian. Bobby Kane soilik zegoen belardian, Isabelen oinetan. Sargori zegoen, laino; eguna abaildua zegoen, bandera bat bezala.

— Zeruan ba ote da astelehenik? —galdetu zuen Bobbyk ume batek bezala.

Eta Dennisek xuxurlatu zuen:

— Zerua astelehen luze bat izango da.

Baina Isabeli ez zitzaion burutik joaten zer gertatu zen afariko izokinarekin bezperan. Arrain maionesa egiteko asmoa zuen bazkarirako, baina orain...

Moira lo zegoen. Lo egotea zen haren azken aurkikundea. «Zoragarria da. Begiak itxi eta kito. Xarmagarria da».

Postari zahar musu-gorria bide hondartsutik agertu zen trizikloan tirriki-tarraka, eskulekuek arraunak ematen zutela.

Billek liburua baztertu zuen.

— Gutunak —esan zuen pozez, eta denak zain jarri ziren. Baina postari bihozgabea... Zitala mundua! Bakarra zegoen, lodikote bat Isabelentzat. Ezta egunkari bakar bat ere.

— Eta gainera Williamena —esan zuen Isabellek arrenkuraz.

— Williamena... hain agudo?

— Ezkontzako agiria bidaliko zizun, oroigarri kuttun bezala.

— Denek izaten dute ezkontzako agiria? Mirabeen gauza zela uste nuen nik.

— Hori orri pila! Ikusi! Andereñoa gutuna irakurtzen —esan zuen Dennisek.

Ene Isabel maite, bihotzekoa. Orri pila bat zegoen. Irakurri ahala, hasierako harridura itolarrri bihurtu zitzaion Isabeli. Zer arraiok bultzatu zuen William...? Hura gauza bitxia... Nondik nora...? Nahasirik sentitu zen, gero eta urduria-go, baita beldurtua ere. Williamen ero joera bat. Ba ote? Absurdua zen, noski, absurdua izan behar zuen, barregarria.

— Ha, ha, ha! Ene bada! —Zer egin orain? Eserlekuan bizkarra atzeratu, eta Isabel barrez hasi zen eutsi ezin arte.

— Esaiguzu —zioten besteek—. Esan zer idazten dizun.

— Desiratzen nago —karraskatu zuen Isabellek. Bizkarra zuzendu, gutuna txukundu eta haiek zeuden aldera astindu zuen—. Etorri hona —esan zuen—. Zoragarria da eta entzun ezazue. Maitasunezko gutun bat da!

— Maitasunezko gutun bat! Hori kutixia!

Isabel maite, bihotzekoa. Baina hasi orduko, haien algarak eten zuen.

— Segi, Isabel, sekulakoa da.

— Berebizikoa.

— O, segi ezazu, Isabel.

Jainkoak guarda, maitea, ni traba bat izatea zure zorionean.

— O! O! O!

— Ix! Ix! Ix!

Eta Isabelek aurrera segitu zuen. Denak beren onetik aterata zeuden bukaerarako: Bobby piririka zebilen belardian, ia zotinka.

— Bere horretan utzi behar didazu, oso-osorik, nire liburu berrirako —esan zuen Dennisek tinko—. Kapitulu osoa emango diot.

— O, Isabel —egin zuen Moirak hasperen—, zu besoetan hartzea aipatzen duen zati xarmant hori!

— Nik beti uste izan dut dibortzio garaiko beste gutun horiek asmatuak izaten direla. Baina honen ondoan ez dira ezer.

— Utzidazu. Utzi neure kasa irakurtzen —esan zuen Bobby Kanek.

Baina, haien harridura!, Isabelek gogor atxiki zion gutunari. Utziak zituen barreak. Denei begiratu zien bizkor; zeharo nekatua zirudien.

— Ez, orain ez. Orain ez —toteldu zuen.

Eta haiek ezertaz ohartzera, ihesi sartu zen etxera, sarreran barrena, goiko logelara. Ohe ertzean eseri zen.

— Zer arrunta, zirtzila, zatarra, narrasa! — esan zuen Isabelek bere golkorako. Hatz koskorrekin begiak estutu eta gorputzari eragin zion batera eta bestera. Eta berriro ikusi zituen, lau ez baizik laurogei, barreka, imintzioka, sinuka, eskuak luzatzen, berak Williamen gutuna irakurtzen zien bitartean. O, zer gauza higuingarria egin zuen! Nola egin zuen berak hori! *Jainkoak guarda, maitea, ni traba bat izatea zure zorionean.* William! Isabelek burkoan estutu zuen aurpegia. Baina iruditu zitzaion logela hits hark ere bazekiela bera nolakoa zen: exkaxa, ahula, ilauna...

Ahotsak heldu ziren laster beheko lorategitik.

— Isabel, uretara goaz denok. Etorri!

— Zatoz, Williamen emazte fin hori!

— Berriro dei diezaiogun joan baino lehen, berriro deitu!

Isabelek bizkarra zuzendu zuen. Orain zen momentua, orain erabaki behar zuen. Haiekin joan ala bertan geratu, Williampi idazten. Zer

egin, zer? «Zirt edo zart egin behar dinat». O, baina zalantza egitea ere! Horixe, idazten gera-tuko zen!

— Titania! —egin zuen Moirak txilio.

— Isabel?

Ez, zailegia zen. «Orain... orain joan eta gero idatziko zionat Williami. Beste noizbait. Gero. Orain ez. Baina idatziko zionat, noski», pentsatu zuen Isabelek presaka.

Eta, era berri hartan barrez, lasterka jaitsi zituen eskailerak.

BIDAIA

Picton ontzia hamaika eta erdietan zen irteteko. Gau giro ederra zegoen, epel, izartsu, baina taxitik irten zirenean eta portu muturrera luzatzen zen moila zaharrea zehar ibiltzen hasi, itsasotik zetorren haize ahul batek gora harrotu zuen Fenellaren kapelua, eta hark eskua gainean jarrita eutsi zion. Moila ilun zegoen, oso ilun; artilearen estalpeak, abereen kamioiak, garabiak goian zutik, lokomotor txiki mozkotea, dena ilunpe trinko batean bezala zegoen landua. Hanhemenka, egur pila biribil baten gainean —perretxiko beltz erraldoi baten kirtena ematen zuen—, kriseilu bat zegoen zintzilik, baina bazarudien beldur zela bere argi herabe, dardaratia ilunpe hartan guztian zabaltzeko; eztiro egiten zuen su, bere buruarentzat bezala.

Fenellaren aita urrats bizi, urduriz lehiatzen zen. Aldamenean zetorren amama zalapartan, beroki beltz zaratatsua soinean; oso bizkor zihozten eta berak, aldian behin, jauzi txiki lotsatu bat egin behar zuen haien parean jartzeko.

Lukainka txukun baten gisa lotutako maletari ezezik, Fenellak gogor heltzen zion amamaren aterkiari ere, eta kirtenak, zisne buru bat, atximur txiki zorrotz bat egiten zion sorbaldan, hark ere arinka joanarazi nahian bezala... Ondotik zebiltzan gizonezkoak, kapelua barrura, lepoaldean gora zutela; emakume bakar batzuk igaro ziren lasterka, tapa-tapa eginik; eta mutiltxo bat, artilezko txal zuri baten artetik beso eta hanka beltz txikiak bakarrik ageri zituela, aitak eta amak zeramaten haserre tiraka; kremaren gainera eroritako eulikumea zirudien.

Ustekabe, hain ustekabe non Fenellak eta amamak dar-dar egin baitzuten, orduantxe entzun zen artilearen estalpe handienaren atzetik, goian ke adar bat zintzilik zuenetik, *Tuuuuut!*

— Lehenbiziko txistua! —esan zuen aitak labur, eta une hartantxe iritsi ziren Picton ontziaren bistara. Moila ilunaren alboan etzana, erabat lotua, erabat urrezko argi biribilez tantotua, Picton ontziak gehiago ematen zuen izar artetik nabigatzera zihoala, itsaso hotzetik baino. Jendea mailadian zegoen bildua. Amama igo zen aurrena, gero aita, eta azkena Fenella. Koska

handi bat zegoen ontzi gainera jaisteko, eta ondoko marinel zahar jertsedun batek esku lehor, zakar bat eman zion. Iritsi ziren, bada; jende presatuaren bidetik kendu, eta ontziaren goiko gainera ematen zuen eskailera txiki, burdinazko baten azpian hasi ziren despeditzen.

— Tori, ama, zure hatuak! —esan zuen Fenellaren aitak, amamari beste lukainka lokarritu bat eman ez.

— Eskerrik asko, Frank.

— Hor dituzu gelako txartelak?

— Bai, seme.

— Eta beste txartelak?

Amamak eskularruaren barrena haztatu eta haien punta erakutsi zion.

— Ederki.

Zakar ari zen, baina Fenellak, aitari adi-adi begira, itxura nekatu eta tristea hartu zion. *Tuuuuut!* Bigarren txistuak beren buru gainean-txe burrunbatu zuen, eta garrasi baten antzera hots egin zuen ahots batek:

— Beste inor behera?

— Eskumuinak aitari —ikusitu zuen Fenellak aitaren ezpaineak ziotela.

Eta amamak, aztoratua, erantzun zion:

— Hire partetik, seme. Baina hoa. Hemen utziko haute. Hoa, Frank. Hoa.

— Lasai, ama. Oraindik hiru minutu ditut.

Harritu zen Fenella, aita kapelua kentzen ikusi zuenean. Hark amama besarkatu eta bere kontra estutu zuen.

— Jainkoak gorde zaitzala, ama! —aditu zion esaten.

Eta amamak masailan ipini zion eskua — harizko eskularru beltza, eraztunaren hatza sareturik zuena—, eta zotinka esan zion:

— Hi ere berdin, seme maitea!

Hura jasan ezinik, Fenellak bizkarra eman, txistua irentsi behin, bitan, eta begirasun latza bota zion masta gaineko izar berde txiki bati. Baina jiratu beharra zuen berriro; bazihoan aita.

— Agur, Fenella. Txintxo ibili.

Haren bibote hotz, bustiak masaila igurtzi zion. Baina Fenellak paparretik oratu zion.

— Noiz arte geratu beharko dut han? — xuxurlatu zuen estuasunez.

Aitak ez zion begiratu ere egin. Eztiro bazterreratu eta eztiro esan zion:

— Ikusiko dinagu. Hartu! Non dun eskua? —
Zerbaitekin estutu zion esku barrena—. Hor dun
txelin bat, behartzen bahaiz ere.

Txelin bat! Betiko zihoan, inondik ere.

— Aita! —hots egin zuen Fenellak.

Baina ordurako joana zen. Azkena irten zen
ontzitik. Marinelek mailadiari ekin zioten. Soka
ilunezko txibista handi bat airean joan eta «plasta»
erori zen moilan. Kanpai batek hots egin
zuen; txistu batek garrasi. Isil-isilik moila iluna
irristatzen hasi zen, lerratzen, urruntzen. Tarteko
ura zalapartan zebilen. Fenellak ahalegin guztiak
egin zituen ikusteko. Aita ote zen jiratu zen
hura? edo agur egiten ari zena? edo bakar-bakarrik
zutik zegoena? edo bere kasa zihoana? Ur
zerrenda zabalduz joan zen, ilunduz. Picton
ontzia jiratzeko hasi zen astiro, itsaso aldera. Alferrik
zen begira jarraitzea. Ez zen ezer igartzen
argi bakar batzuk besterik, herriko erlojuaren
aurpegia airean zintzilik, eta argi gehiago, gune
txikiak, kasko ilunetan.

Haize freskatuak Fenellari gonatik tiratu zion;
amamaren ondora itzuli zen. Asko lasaitu zen,
amamari itxura tristeja joan zitzaiola ikusita. Bi

maleta lukainkak bata bestearen gainean jarri eta hantxe zegoen eserita, eskuak bilduta, burua apur bat saiheska zuela. Aurpegian begirada argi, ernea zuen. Orduan Fenellak mugitzen ikusi zizkion ezpainak, eta otoitzean ariko zela iruditu zitzaion. Baina andre zaharrak keinu nabarmen bat egin zion buruaz, esanez bezala aurki bukatuko zuela otoitza. Eskuak askatu, hasperen egin, berriro bildu, aurrera makurtu eta azkenean astindu xume bat eman zion bere buruari.

— Ea ba, umea —esan zuen, txanoko soken txibista ukituz—, ikusi beharko ditinagu gure gelak ere. Nire ondoan joan eta kontuz gero laprast egin.

— Bai, amama!

— Eta begiron aterkiak ez katigatu eskailera-ko barandan. Honakoan aterki eder bat ikusi dinat erditik puskatuta.

— Bai, amama.

Giza errainu ilunak zeuden barandetan nagi jarrita. Haien pipen galdak sudur bat argitzen zuen, edo kapelu baten ertza, edo harritu itxurako bekain batzuk. Fenellak gora begiratu zuen. Airean esekia, irudi txiki bat zegoen itsasora so,

eskuak zamar motzeko sakeletan sartuta. Ezer gutxi kulunkatzen zen ontzia, eta bazirudien izarrak ere kulunkatzen zirela. Eta orain zerbitzari zurbil bat —linozko zamarra jantzirik eta esku barrenarekin erretilu bati goian eusten ziola—, ate argitu batetik irten eta beren ondotik igarozen. Ate hartatik sartu ziren biak. Koska altu, ertz letoizkotik gomazko tapiz batera kontu handiarekin pasatu, eta gero eskailera batetik jaitsi ziren, hain pikoa non amamak bi oinak jarri behar izan baitzituen maila bakoitzean, eta Fenellak letoizko baranda likatsuari eutsi, aterki zisne-lepoduna batere gogoan izan gabe.

Amama behean gelditu zen; Fenella apur bat beldurtu zen, berriro otoitzean hastera ote zihoran. Baina ez, gelako txartelak atera baino ez. Jangelan zeuden. Argitasun itsu eta itogarria zegoen han; giroan pinturaren usaina, saiheskihezur erreena eta kautxoarena. Fenellak nahia-go zuen amamak aurrera jarraitzea, baina andre zaharra ez zegoen presaka ibiltzeko. Sekulako otarre bat hauteman zuen, urdaiazpikozko ogitartekoz betea. Haietaraino joan eta fintasunez ukitu zuen goikoa hatzarekin.

— Zenbatean dira ogitartekoak? —galdetu zuen.

— Bi penike! —jaurti zuen zerbitzari zakar batek, labana eta sardea zartako batekin utziaz. Amamak lanak zituen hura sinesten.

— Bakoitza bi penike? —galdetu zuen.

— Hori da —erantzun zuen besteak, ondoko lagunari begia keinatuz.

Amamak harritu aurpegia jarri zuen. Ondoren irmoki xuxurlatu zion Fenellari:

— Lotsagarria! —eta bestaldeko atetik joan eta igarobide bat zeharkatu zuten, alde banatan gelak zituena. Zerbitzari bat etorri zitzaien, ikusgarri jatorra. Erabat urdinez jantzia, lepoa eta eskumuturrak letoizko botoi handiz lotuak zituela. Amama ongi ezagutzen zuela zirudien.

— Hara Crane andrea! —esan zuen, beren konketa irekiz—. Hemen zaitugu berriro ere. Ez diozu zeure buruari gela bat askotan opatzen.

— Ez —esan zuen amamak—. Baina oraingo honetan nire seme maitearen arretari esker...

— Espero dut... —hasi zen zerbitzaria. Baina orduan jiratu eta luze, goibel begiratzuz ikusi zuen amamaren belztasuna eta Fenellaren

zamar eta gona beltza, blusa beltza etakapelua krepezko arrosa batekin.

Amamak baiezkoa egin zuen.

— Jainkoaren borondatea egin da —esan zuen.

Zerbitzariak ezpainak itxi eta, arnasa sakon hartuz, puztu bezala egin zen.

— Nik beti diot —esan zuen, haren aurkikunde berezia bailitzan—, lehenxeago edo geroxeago denok joan behar dugula. Horrek ez du erremediorik. —Eten bat egin zuen—. Nahi duzu zer-bait ekartzea, Crane andrea? Kikera bat te? Badakit halako ezdeuskeria bat alferrik dela kanpoko hotza uxatzeko baina...

Amamak ezezko keinua egin zion buruaz.

— Ez, mila esker. Ardozko bizkotxoak dauzka-gu, eta Fenellak oso banana ederra.

— Orduan geroxeago etorriko naiz, ea zer moduz zaudeten —esan zuen zerbitzariak, eta joan zen atea itxiaz.

Hura bai gela txikia! Amamarekin kutxa batean sartuta egotea bezala zen. Konketa gaineko begi biribil beltzak motel begiratzen zien. Fenella lotsatuta zegoen. Atearen kontra zutik

zegoen, pardelari eta aterkiari eusten. Han erantziko ote ziren? Amamak kendua zuen ja txanoa, sokak bildu, eta bakoitza orratz batez lotu ondoren eseki zuen txanoa. Seda balitz bezala distiratzion ile zuriak; sare beltz batek estaltzen zion atzeko motots txikia. Fenellak oso gutxitan ikusi zuen amama buruhas; itxura arraroa zuen.

— Hire ama maiteak niretzat egindako artilezko mantelina jantziko dinat —esan zuen amamak, eta lukainkari lokarria kenduz, hura atera eta jira-biratu zuen buruan; izkinako borla grisak begi inguruan dantzan ibili zitzaizkion, Fenellari goxo eta triste irribarre egin bitartean. Ondoren gerruntzea askatu zuen, eta azpiko zerbait, eta azpiagoko beste zerbait. Ondoren borroka labur, gogor baten antzekoa egon zen, eta amama pitin bat gorritu zen. Di-da, askatu zuen kortsea. Hasperen egin lasai, eta felpazko sofan eseriaz, bota saihets elastikoak astiro eta kontuz erantzi eta elkarren ondoan jarri zituen.

Fenellak zamarra eta gona kendu eta flanelazko mantala jantzi zuenerako, amama prest zegoen.

— Botak ere kendu behar ditut, amama? Gorainoko txibista dute.

Amamak arretaz aztertu zituen pixka batean.

— Eranzten baditun askoz erosoago sentituko haiz, ume —esan zuen. Musu eman zion Fenellari—. Ez ahaztu otoitz egitea. Jainko maitea gure ondoan zegon lehorrean, baino are gehiago itsasoan. Eta bidai kontuan ni esperientzia handiaren jabe naizenez —esan zuen amamak zalu—, goiko ohetxo hartuko dinat.

— Baina amama, nola igoko zara hor gora?

Amaraun antzeko hiru maila txiki besterik ez zituen Fenellak ikusten. Andre zaharrak barre txiki isil bat egin zuen haiei bixkor ekin aurretik, eta goiko ohexkatik egin zion kirik Fenella harrituari.

— Ez huen uste amama gauza izango zenik, e? —esan zuen. Hura etzaten eta Fenellak barre arin bat aditu zion.

Xaboi marroiaren koskor gogor hark ez zuen aparrik egiten, eta botilako urak gelatina urdina ematen zuen. Zer zaila zen izara elkor haiek zabaltzea ere; indarka sartu behar zenuen. Kontuak bestela izan balira Fenellak barre egingo

zukeen... Azkenean barruratu zen, eta arnases-tuka zegoen bitartean, marmar luze, eme bat entzun zuen goitik zetorrela, norbait sedazko paper bat eztiro-eztiro zimurtzen bezala zerbaiten bila. Amama zen otoitz egiten...

Denbora puska bat igaro zen. Orduan zerbitzaria sartu zen; emeki-emeki etorri eta amamaren ohetxoan ipini zuen eskua.

— Oraintxe ari gara itsasartean sartzen — esan zuen.

— A bai?

— Gau giro ederra dugu baina hutsik samar goaz. Baliteke dantzatu batzuk ematea.

Eta, hain zuzen ere, orduantxe igo zen Picton ontzia gora eta gora, airean zintzilik geratu arte, hotzikara bat sentitzeko adina, eta ondoren berriro jaitsi, eta uraren zartada gogorra entzun zen alboetan. Aterki zisne-lepoduna sofa txikian zutik utzi zuela gogoratu zen Fenella. Hautsiko ote zen eroriz gero? Baina amama ere orduantxe oroitu zen.

— Mesedez aterkia etzango bazenu, andereño... —xuxurlatu zuen.

— Noski, Crane andrea. —Eta zerbitzariak, amamarengana itzulita, ahopean esan zion—: Zure biloba txikia goxo-goxo dago lo.

— Eskerrak Jainkoari —esan zuen amamak.

— Poxpolin gaixoa, ama galduta! —esan zuen zerbitzariak. Eta amama zerbitzariari dena kon-tatzen ari zitzaiola lokartu zen Fenella.

Baina ametsetan hasteko beta ere eduki aurretik esnatu zen berriro, eta ikusi zuen zer-bait buru gainean mugitzen. Zer ote zen? Zer izan zitekeen? Oin txiki gris bat. Eta atzetik bes-tea. Zerbaiten bila bezala; hasperen bat entzun zen.

— Esna nago, amama —esan zuen Fenellak.

— Ai ene, hor dago koska? —galdetu zuen amamak—. Alde honetan zegoela uste ninan.

— Ez, amama, bestean dago. Ipiniko dizut oina. Iritsi gara? —galdetu zuen Fenellak.

— Portuan gaitun —esan zuen amamak—. Jaiki beharra dinagu, ume. Altxatu aurretik jan ezan bizkotxo bat, indartzeko.

Baina Fenella etzantegitik salto eginda zego-en. Artean piztuta zegoen lanpara, baina gaua joana zen eta hotz egiten zuen. Begi biribil har-

tatik kirika, haitz batzuk ikusi ahal izan zituen urruti. Gero aparrak estali zituen; gero kaio bat ziztuan pasatu zen; eta gero benetako lehor puska bat azaldu zen.

— Lehorra, amama —esan zuen Fenellak, miretsita, itsasoan asteak eramán balituzte bezala. Bere burua besarkatu zuen; txingoka jarri eta hanka bat bestearen behatzekin igurtzi zuen; dardaraka zegoen. O, dena oso triste izan zen azkenaldian. Aldatuko ote zen? Baina amamak zera bakarrik esan zuen:

— Agudo, ume. Zerbitzariari utzi beharko zionat hire banana ederra, ez dun jan eta.

Eta Fenellak berriro jantzi zituen arropa beltzak, eta eskularru batetik botoia erori eta iritsi ezin zen leku bateraino joan zen piririka. Ontzi gainera igo ziren.

Baina gela hotz bazegoen, ontzi gaina jelatua zegoen. Artean eguzkia atera gabe baina izarrak motel zeuden, eta zeru zurbil hotzak itsaso zurbil hotzaren kolore berdina zuen. Lehorrean gandu zuri bat zebilen gora eta beheara. Orain argi ikusi zuten sasiarte iluna. Nabari ziren garo burumakurrak ere, eta eskeleto antzeko zuhaitz

ihar zilartsu bitxi horiek... Gero ur ertzeko plataforma eta etxe txiki batzuk ikusi zituzten, haiek ere zurbil, elkarren ondo-ondoan, txirlak bezala kutxatila baten tapan. Beste bidaiariak hara eta hona zebiltzan, baina aurreko gauean baino astiroago, eta itxuraz goibel.

Eta orain berengana abiatu zen ur ertzeko plataforma. Astiro egiten zuen igeri Picton ontzi aldera, eta han gizon bat zetorren soka bildu bati eusten, eta gurdi bat zaldi txiki burumakur batekin, eta beste gizon bat koskan eserita.

— Penreddy jauna dun, Fenella, gugana etortzen —esan zuen amamak. Pozik ematen zuen. Masaila zuri argizaritsuak urdinduta zeuzkan hotzarekin, kokotsa dar-dar, eta behin eta berriro lehortu behar zituen begiak eta sudur txiki arrosa.

— Hik dun nire...

— Bai, amama.

Erakutsi zion Fenellak.

Hegan etorri zen soka eta danba erori zen ontzi gainean. Mailadia jaitsi zuten. Fenellak berriro segitu zion amamari moilatik gurdi txiki-raino, eta laster ziren trostan. Zaldi txikiaren

ferrek zurezko zutabeak astindu eta ondoren goxo barneratu ziren bide hondartsuan. Ez zen arimarik ageri; ezta ke laino bakar bat bera ere. Harrotu eta abaildu zebilen gandua, eta itsasoak lo zirudien, hondartzan atzera eta aurrera mantsoki.

— Atzo ikusi nuen Crane jauna —esan zuen Penreddy jaunak—. Itxura ona zeukan. Joan den astean nire andreak opilak egin zizkion korrika batean.

Eta orain zaldi txikia txirla antzeko etxeetako baten aurrean gelditu zen. Hantxe jaitsi ziren. Fenellak eskua atakan jarri eta ihintz tanta handi, dardaratiek eskularru puntak basitu zizkioten. Hartxintzar zuri biribileko bidexka batean gora joan ziren, alde bietan lore lokartu blaituak zeudela. Amamaren krabelin zuri finak erasanda zeuden ihintz gogorrarekin, baina haien usain gozoa zeukan goiz hotzak. Etxe txikiko saretak itxita zeuden; ataripeko eskailerak igo zituzten. Gomazko bota pare zahar bat zegoen atearen alde batean, eta ureztontzi gorri handi bat bestean.

— Aitita arraio hori! —esan zuen amamak.
Kisketa jiratu zuen. Hotsik ez. Dei egin zuen—:
Walter!

Eta berehala erantzun zuen ahots lodi, erdi
ito itxurako batek:

— Zu zara, Mary?

— Itxaron, maitea —esan zuen amamak—.
Sartu hor —eta goxo bultzatu zuen Fenella sala
txiki goibel batera.

Mahai gaineko katu zuri bat, gamelu baten
antzera hankak tolesturik egona, zutitu zen, tira-
galeak atera zituen, aharrausi egin zuen eta
behatz punten gainera saltatu zen. Fenellak
esku txiki hotz bat murgildu zuen ilaje zuri, epel
hartan, eta lotsati egin zuen irribarre, katua igur-
tzitzen eta amamaren ahots leuna eta aititaren
solas ozena entzuten.

Ate baten kirrinka aditu zen.

— Aurrera, bihotza. —Andre zaharrak keinu
egin eta Fenella hara abiatu zen. Han, sekulako
ohearen alde batean, aitita zegoen etzanda.
Bakar-bakarrik burua gandor zuri batekin, eta
musu gorria eta bizar luze zilartsua ageri ziren

tapaki gainean. Txori zahar bat ematen zuen, adi-adi.

— Hara gure neskatoa! —esan zuen aititak—
. Eman muxu!

Fenellak musu eman zion.

— A! —esan zuen aititak—. Izoztua du sudurtxoa. Zer dauka eskuetan? Amamaren aterkia?

Fenellak berriro egin zuen irribarre, eta oheko baranda gainetik okertu zuen zisnearen lepoa. Ohe buruan idatzi handi bat zegoen lauki bel-beltz batean:

*Urrezko ordu bat galdu da,
Diamantezko hirurogei minutu ditu.
EZ da saririk eskaintzen
BETIKO JOAN DA ETA!*

— Amamak margotu zuen hori —esan zuen aititak. Eta haren gandor zuri banatua eta begirada alaia ikusita, begia keinatu ziola iruditu zitzaion Fenellari.

BRILL ANDEREÑOIA

Nahiz eta hain giro ederra egon —zeru urdinean urre hautsa eta ardo zuriaren zipriztin antzeko argiune handiak Jardins Publiquesetan—, Brill andereñoa pozik zegoen lepoko larrukia hartu izanaz. Airea geldi-geldi zegoen, baina ahoa zabalduz gero freskura xume bat igartzen zenuen, ur izoztuko edontzi baten freskura bezalakoa txurrut egin baino lehen, eta noizean behin hosto bat azaltzen zen —inondik ez, zerutik. Brill andereñoak eskua goratu eta larrukia ukitu zuen. Zer gauza kuttuna! Atsegina zen hura berriro sentitzea. Arratsalde hartantxe kutxatik atera, sitsa-bolak kendu, ongi eskuilatu, eta begitxo lauso haiek berpiztu zituen, ongi igurtziz. «Zer gertatu zait orain arte?» zioten begi txiki trisitek. O, zer gauza ezia, haiexek edredoi gorritik berari zelatan ikustea...! Baina haren mutturra, nahastura beltzen batez egina, ez zegoen batere sendo. Kolperen bat hartu zuen, nonbait. Berdin zen, zigilatzeko ezko beltz pitin bat garaia iritsitakoan, ezinbestekoa zenean... Ai

alproja! Bai, halaxe irizten zion. Alproja, buztanari hozka ezkerreko belarritik. Lepotik kendu, magalean hartu eta laztantzeko gogoia ematen zuen. Brill andereñoak txindurrituta zeramatzan eskuak eta besoak, baina hori, ustez behintzat, oinez zihoalako zen. Eta arnasa hartzen zuenero, zerbait arin eta tristea —ez, tristea ere ez—, zerbait goxoa mugitzen zitzaion bularrean.

Bazegoen jendez arratsalde hartan, aurreko igandean baino askoz gehiago. Eta orkestra ere ozenago eta alaiago aditzen zen. Sasoia hasi zelako zen hori. Izan ere, orkestrak igandero jotzen zuen urte osoan zehar, baina sasoiz kanpo ez zen berdin. Jotzailearen familiak bakarrik entzutea bezala zen; ez zion inporta nola aritzen zen, ez bazegoen arrotzik. Zuzendariaren zamarra ere ez ote zen berria? Bai, inondik ere. Kantari hastera doan oilarrak bezala aztarrikatzen zuen lurra eta astintzen zituen besoak, eta musikariek, kiosko berdean eserita, masailak puztu eta gartsuki begiratzen zioten partiturari. Orain txirula pitin bat iritsi zen —polit polita!—, tanta bixizko kate ttiki bat. Seguru zegoen berriro

entzungo zela. Bai entzun ere; burua altxatu eta irribarre egin zuen.

Beste bi lagun soilik zeuden bere eserleku «berezian»: aitona egoki bat belusezko zamar batekin, eskuak josita zituela makila landu izugarri batean, eta amona handi bat, bizkarra tente eserita, mantal bordatuan puntuzko lan bat zuela. Ez zuten hitz egiten. Pena handia zen, zeren Brill andereñoa beti baitzegoen elkarrizketen zain. Oso iaioa bihurtu zen, bere ustetan, ez entzunarena eginez besteena entzuten, inguruan hizketan ari zirenen bizitzan esertzen unetxo baterako.

Zeharka begiratu zien aitona-amonei. Agian laster joango ziren. Aurreko igandea ere ez zen izan besteetan bezain interesgarria. Ingeles bat eta emaztea, gizonak panama kapelu zatar bat eta andreak botoidun botak zeramatzan. Eta emakumea isildu gabe aritu zen, alegia betaurrekoak komeni zitzaizkiola; behar zituela; baina alferrik zela erostea; ongi eutsi ezin eta hautsiko zitzaizkiola. Eta gizonaren pazientzia, berriz! Denetik proposatu zion: urrezko montura, belarrietan heltzen diren horietakoak, zubi barruan

goxagarri txikiekin. Ez, ez zegoen ezer hura aseko zuenik. «Sudurrean behera irristatuko zaizkit!» Brill andereñoak pozik emango ziokeen astindu bat.

Bankuko aitona-amonak bertan goxo zeuden eserita. Ez zion inporta, makina bat jende zegoen begira egoteko. Hara eta hona, lore multzoak eta orkestraren kiosko aurretik lerroan zebiltzan bikote nahiz taldeak, gelditu eta hizketan, agur egiten, lore sorta bat erosten erretilua barandan esekia zuen arlote zaharrari. Ume koskorak zebiltzan tarteetan lasterka, zalapartan eta barreka; mutil koskorak kokots azpian sedazko txibista zuri handiak zituztela, neska koskorak, panpina frantsesak, belusez eta farfailaz jantziak. Eta aldian behin pottoko baldartzio bat arbolpetik azaldu, bertan gelditu, begira jarri, eta bat-batean zapla esertzen zen, ama hankaluzea etortzen zen arte, oilanda baten antzera lasterka, errieta eginez hura salbatzera. Beste batzuk bankuetan eta aulki berdeetan zeuden eserita, baina ia beti jende bera zen, igandea joan eta igandea etorri, eta —askotan konturatu zen Brill andereñoa— ia denek zuten bitxikeria

bat. Arraroak, isilak, ia denak zaharrak, haien begirada ikusita bazirudien gela zulo ilun batetik irten berriak zirela, edo bestela... armairu bate-tik!

Kiosko atzean arbola lerdenak, hosto horiak beheara zituztela, eta haien tartetik itsas lerro bat, eta harago zero urdina urre-litsezko hodeiekin.

Parara pa pa! Parara pa pa! jotzen zuen orkestrak.

Soineko gorriko bi neska gazte agertu ziren eta uniforme urdineko bi soldadu gazte elkartu zitzaizkien, eta denek barre egin eta binaka jarri eta besotik helduta joan ziren. Lastozko kapelu xebleko bi emakume baserritar pasatu ziren, ke koloreko asto eder bana zeramatela seriotasunez. Moja hotz, zurbil bat igaro zen presaka. Inguratzen ari zela, emakume eder bati eskuko bioleta sorta erori zitzaion, mutil koskor batek lasterka joanda eman zion, baina hark orduan hartu eta harrika bota zituen, pozoituak baleude bezala. Ene! Brill andereñoak ez zekien harritu ala ez! Eta orain erbinudezko toka bat eta griseko gizon bat elkartu ziren bere pare-parean.

Gizona garaia zen, tentea, burgoia, eta erbinudezko toka bat zeraman andreak, lehenago ilehoria zen garaikoa. Orain guztia, haren ilea, aurpegia, baita begiak ere, erbinude narras haren kolore berekoa zen, eta haren eskua —eskularru maiz garbitu batean, ezpainak txukuntzen ibilia—, atzapar ttattar horixka bat zen. Oi haren poza gizonarekin elkartuta... haren zoriona! Pentsatzen zuen, bai, arratsalde hartan topo egingo zutela. Non ibili zen azaldu zion: batean eta bestean, han, hemen, itsasaldean. Egun bikaina, ezta? Eta ez ote zuen nahi... Baina gizonak ezezkoa egin, zigarrotxo piztu, andreari laino trinko bat haize eman aurpegira astiro, eta andrea hizketan eta barrez ari zen bitartean, hark pospoloa jaurti eta alde egin zuen. Erbinudezko toka baka-rik geratu zen; inoiz baino zabalago egin zuen irribarre. Baina bazirudien orkestrak ere igarri zuela zer ari zen hura sentitzen eta goxoago jotzen hasi zen, xamurrago jotzen, eta danborra kolpeka, «Zakarra! Zakarra!» behin eta berriro. Zer egingo ote zuen? Zer gertatuko ote zen orain? Baina Brill andereñoa zalantzan zegoela, erbinudezko toka jiratu eta eskua altxatu zuen

beste norbait ikusi balu bezala, askoz jatorragoa, harago, eta bixi-bixi abiatu zen. Eta orkestra berriro aldatu eta bizkorrago hasi zen, inoiz baino alaiago, eta Brill andereñoaren eserlekuko aitona-amonak zutitu eta joan ziren, eta masail-bizar luzeko agure xeblete batek konpasean egiten zuen herren eta ia muturrez aurrera bota zuten lau neskek, elkarren ondoan zihoazela.

O, hango lilura! Zer ongi pasatzen zuen! Zenbat gustatzen zitzaion hantxe eseri eta begira egotea! Antzerki baten antzekoa zen. Nork sine-tsiko zuen atzeko zerua pintatua ez zegoenik? Baina harik eta zakur marroi bat tipi-tapa irmoki etorri eta tipi-tapa joan zen arte, drogatutako «antzez» zakur baten antzera, Brill andereñoa ez zen ohartu zergatik nabari zuen zirrara hura. Denak zeuden agertokian. Ez ziren entzule huts, ikusle huts; antzezten ari ziren. Berak ere bazuen zer egina: igandero etortzea. Zalantzarik gabe, bera ez baletor konturatuko litzateke norbait; azken batean, bera ere emanaldiko parte zen. Zer arraroa lehenago horrelakorik bururatu ez izana! Horrexegatik, ordea, ematen zion hainbesteko garrantzia astero etxetik beti ordu

berean ateratzeari —emanaldira beranduegi ez iristearren—, eta horrexegatik sentitzen zuen lotsa bitxi bat, ingeleseko ikasleei kontatu behar zienean zertan pasatzen zuen igande arratsaldea. Ez zen harritzekoa! Brill andereñoak ia ozen egin zuen barre. Agertokian zegoen. Gogora etorri zitzaion nola asteen lau arratsaldez egunkaria irakurtzen zion gizon zahar elbarri bati, hura lorategian lo zegoela. Ohituta zegoen ja kotoizko burkoan haren buru ahula ikustearekin, begi zuloak, aho irekia eta sudur zorrotza. Hura hiltzen bazen ere, bera ez zen astetan konturatuko; axola ere gutxi. Baina, halako batean, agureak jakin zuen aktore batek irakurtzen ziola egunkaria! «Aktorea!» Altxatu zen buru zaharra; bi argiren distira agertu zen begi zaharretan. «Aktorea... zara?» Eta Brill andereñoak egunkaria tolestu, bere partearen haria balitz bezala, eta esan zuen goxoki: «Bai, aspalditik naiz aktorea».

Orkestrak atsedena izan zuen. Orain hasi ziren berriro. Eta jotzen ari zirena epela zen, eguzkitsua, baina bazuen freskura xume bat —zerbait, zer ote zen?—, ez zen tristura —ez, tristura ez—, kantatzeko gogoia ematen zizun zer-

bait. Doinua gora igo zen, gora, argia distiraz zegoen; eta Brill andereñoari iruditu zitzaion ezen hango denak, hango konpainia guztia, kantari hasiko zela laster. Gazteak, taldean barrez zihoazen haiek, kantari ekingo zioten, eta gizonen ahotsek, tinko eta ausart, bat egingo zuten haiekin. Eta gero berak ere bai, berak ere bai, eta bankuetako besteek —akonpainamendu antzeko bat eginez—, hasiko zuten zerbait isila, ozta-ozta gora eta behera, zinez ederra, hunkigarria... Brill andereñoaren begiak malkoz bete ziren eta irribarrez begiratu zien konpainiako beste kideei. Bai, ulertzen dugu, ulertzen dugu, pentsatu zuen, nahiz eta ez jakin haiek zer ulertzen zuten.

Orduantxe mutil bat eta neska bat etorri eta lehen aitona-amonak egondako lekuan eseri ziren. Oso poliki zeuden jantzita; maiteminduta zeuden. Bi protagonista nagusiak ziren, noski, mutilaren aitaren yatean etorri berriak. Eta artean hotsik gabe kantari, artean irribarre dardarati harekin, entzuteko prest jarri zen Brill andereñoa.

— Ez, orain ez —esan zuen neskak—. Hemen ez, ezin dut.

— Baina zergatik? Horko atso figura zahar horrengatik? —galdetu zuen mutilak—. Zertara etortzen ote da? Nork esanda? Zergatik ez ote du etxean gordetzen bere mutur txoro hori?

— Larrukia du xelebrea —egin zuen neskak barre txikia—. Legatz frijitua ematen du.

— Utzi berriketak! —bota zuen mutilak xuxur-la haserre batean. Eta ondoren—: Esaidazu, ma petite chère...

— Ez, hemen ez —neskak—. Oraindik ez.

Etxera bidean, okindegitik ezti-tarta xerra bat erosteko ohitura zuen. Horixe zuen igandeko kutixia. Batzuetan xerrak almendra bat zuen, besteetan ez. Sekulako aldea zen. Almendra bat baldin bazuen, etxera opari ttiki batekin joatea bezala zen —sorpresa bat—, oso posible baitzen batere ez edukitzea ere. Igande almendradunetan azkar joan eta kementsu pizten zuen teontzi-rako pospoloa.

Baina gaur okindegi aurretik pasatu, eskaile-rak igo, gela txiki ilunean sartu —armairu bat

ematen zuen—, eta edredoi gorrian eseri zen. Puska batean egon zen hantxe eserita. Ohe gainean zegoen larrukiaren kutxa. Lepokoa libratu zuen bizkor; bizkor, begiratu gabe, kutxan sartu zuen. Baina tapa jarri zionean, zerbaiten negarra iruditu zitzaion.

LEHENBIZIKO DANTZALDIA

Leilak ez zekien noiz hasi zen dantzaldia zehazki. Agian taxia bera izan zuen lehenbiziko dantza-laguna. Berdin zen taxi berean Sheridan neska eta haien neba joanda ere. Bazterreko txoko batean jarri, eta heldulekua, eskua gainean ipini zuenean, gizon gazte ezezagun baten janzkiko besoa iruditu zitzaion; eta ziztuan abiatu ziren, atzean utziz balsean zebiltzan kaleargiak eta etxeak eta hesiak eta zuhaitzak.

— Lehen aldia dun dantzaldi batera joaten, Leila? Baina neska, zer gauza xelebrea... —hots egin zuten Sheridan neskek.

— Hamabost miliara ninan auzo hurbilena — esan zuen Leilak goxo-goxo, emeki ireki eta itxiz haizemailea.

O, bai zaila zela besteak bezain axolagabe egotea! Irribarre zabalegia ez egiten saiatzen zen; garrantzirik ez ematen saiatzen zen. Baina gauza bakoitza hain zen berria eta zoratzekoa... Megen akara loreak, Joserren anbarezko lepoko luzea, Lauraren buru txiki beltza larruki zuritik

agertzen, lore bat elur artean bezala. Beti gordeko zuen gogoan. Zarrada ere sentitu zuen, lehengusu Lauriek eskularru berrien itxigailuko seda paper izpiak bota zituenean. Gustura gordeko zituen berak izpi haiek eskuerakutsi gisa, oroigarri gisa. Laurie aurreratu eta belaunean jarri zion eskua Laurari.

— Aizan, hi —esan zuen—. Beti bezala hirugarrena eta bederatzigarrena. Aittu?

O, zer ederra neba bat edukitzea! Aztoraturik, Leilak sentitu zuen ezen astia egon balitz, ezinezkoa izan ez balitz, ezingo zion negarrari eutsi, bera alaba bakarra baitzen, eta sekula ez zion nebak berari «Aittu?» esan; ahizpak ere ez zion sekula esango, orduantxe Megek Joseri bezala, «Behin ere ez dinat hire ilea gaur bezain dotore harrotuta ikusi!»

Baina, jakina, ez zegoen astirik. Dantzalekuan zeuden ja; taxiak aurrean eta taxiak atzean. Ezker eta eskuin ageri ziren errepidean argi mugikorrak, haizemaile gisakoak, eta espaloiko bikote alaiak hegan bezala zihoazen; txorien antzera segitzen zioten elkarri satenezko oinetako txikiek.

— Heldu niri, Leila; galduko haiz bestela —
esan zuen Laurak.

— Ea, arrebak, ekin gogor —esan zuen Lauriek.

Leilak hatz bi ipini zituen Lauraren belusezko kapa arrosan, eta zerbaitek hegan bezala eraman zituen urrezko kaleargi handiaren ondotik, igarobidean zehar, eta bultzatu zituen «Emakumeak» zioen gela txikira. Hango jende pilarekin ozta-ozta zegoen erantzeko lekua; gortzekoa zen zarata. Alde bakoitzeko bankuan tontorka zegoen biltzeko papera. Bi andre zahar, mantal zuriz jantzita, gora eta behera zebiltzan, besakadaz besakada pila handitzen. Eta denak aurrera bultzaka, beste puntako apain-mahaira eta ispilura iritsi nahian.

Gasezko lanpara handi dardarati batek argitzen zuen emakumeen gela. Ezin zuen itxaron; hasia zen dantzan. Atea berriro zabaldu eta dantzalekutik musika jario bat heldu zenean, ia sabairaino saltatu zen.

Neska ile-beltz eta ile-horiak orrazkera txukuntzen ari ziren, zintak berriro lotzen, golkoan behera musuzapiak sartzen, eskularru elur

zuriak berdintzen. Eta denak barrez ari zirenez, Leilari zoragarriak iruditu zitzaizkion denak.

— Ez ote dago ileko urkila ikustezinik? —hots egin zuen ahots batek—. Bai bitxia dela! Sekula ez dinat topatzen urkila ikustezin bakar bat ere.

— Emaidan hautsa bizkarrean, laztana —hots egin zuen besteren batek.

— Orratza eta haria behar dinat. Berebiziko tarratada zeukanat farfailan —ari zen intzirika hirugarren bat.

Ondoren:

— Pasa aurrera, pasa aurrera! —Eskutik eskura ibili zen programen saskia. Programa txiki xarmantak, arrosa eta zilartsuak, arkatz arrosa eta borla harroekin. Leilaren hatzek dardar egin zuten saskitik bat hartzerakoan. Norbaiti galdetzeko gogoia zeukan: «Nik ere hartu behar dut?», baina zera bakarrik irakurri zuen: «3, bals. *Bi lagun kanoan*. 4, polka. *Jarri lumak hegan*», orduantxe hots egin baitzion Megek:

— Prest, Leila? —eta ezinean joan ziren, iga-robidetik estu-estu, dantzalekuko ate bikoitz handirantz.

Hasteko zegoen dantza baina orkestrak bukatua zuen tresnak gozatzea, eta hango zaratarekin bazirudien jotzen hasten zenean ez zela entzungo. Megen ondo-ondoan, haren sorbalda gainetik begira, Leilari iruditu zitzaion sabaian aldez alde zabaldutako zapi koloretsuak ere hizketan ari zirela. Ahaztua zuen lotsa; ahaztua zuen ezen lehenago, prestatzen ari zela, ohean eseri zen oinetako bat kenduta eta bestea jantzita, eta arren eskatu zion amari lehengusuei deitzeko, alegia ezingo zela joan. Eta hasierako irrika —mendi bazterreko beren etxe atarian eserita, hontzakumeen ulua entzuten—, zorion bizi bihurtu zen ilargitan, barruan gordetzeko gozogia. Haizemaileari atxiki, eta begi aurrean zuela lur distiratsu urrezkoa, azaleak, kaleargiak, punta batean taulada hura tapiz gorri eta aulki doratuekin eta ertz batean orkestra, hats-bahitua pentsatu zuen, «Zerutiarra, guztiz zerutiarra!»

Andereño guztiak elkarren ondoan zeuden, atearen alde batean zutik, gizonak bestean, eta beltzeko neskameak, irribarre zoroxkekin, pauso

txiki arretatsuak emanaz zihozen lur argizari-
tuan zehar taulada aldera.

— Hau Leila dun, baserriko nire lehengusu
txikia. Jatorra izan berarekin. Lagunak bilaizkion;
neure ardurapean zegoen —zioen Megek, neska
batengandik besteagana.

Aurpegi ezezagunek egin zioten irribarre Lei-
lari, goxo, xume. Ahots ezezagunek erantzun
zuten:

— Noski, laztana.

Baina Leilari iruditu zitzaion neska haiek ez
zutela bera ikusi ere egin. Gizonen aldera zeu-
den begira. Zergatik ez ziren hasten gizonak?
Zeren zain zeuden? Hantxe zeuden zutik, eskula-
rruak berdintzen, ile likatsua zuzentzen eta bata
besteari barrez. Orduan, ez non eta ez han, hura-
xe egiteko bat eginda bezala, gizonak irristan
etorri ziren parket gainean. Pozezko ardaila bat
harrotu zen neskatilen artean. Gizon egoki, garai
bat hegan hurreratuta, Megi programa hartu eta
zerbait zirriboratu zion; Megek Leila erakutsi
zion:

— Aurkeztuko zaitut?

Gizonak agur egin zuen, irribarretsu. Gizon beltzaran bat etorri zen monokulo batekin, gero lehengusu Laurie lagun batekin, eta gero Laura, gixon txiki, orindun, gorbata okerreko batekin. Gero, gizon zahar samar batek —lodia, buruan soilgune handi bat zuena— berari programa hartu eta ahopean esan zuen:

— Ea ikusi! —eta denbora askoan egon zen bere programarekin konparatzen, dena izenez belztua. Bazirudien ezinean ari zela, eta Leila lotsatu egin zen.

— O, ez larritu —esan zion tinko. Baina, erantzun beharrean, gizon lodiak zerbait idatzi eta berriro so egin zion.

— Beste inon ikusi al dut aurpegitxo alai hori? —esan zuen goxo—. Ezaguna dut lehendik?

Une hartan hasi zen orkestra jotzen; gizon lodia desagertu egin zen: urrutiraino jaurti zuen musikazko olatu handi batek, lur distiratsuan zehar hegan etorria, taldeak binaka jarriz, denak sakabanatu eta jira-bira bidaliz...

Leilak barnetegi eskolan ikasi zuen dantzan. Larunbat arratsaldero, estalpe txiki, burdina ildoxkatuko batean, Eccles andereñoak (Lon-

dreskoa bera) lezio «bikain» haiek ematen zituen. Baina parez pare jarriz gero orduko zoko usaina batetik —perkalezko idazkiak hormetan, andre txiki gaixo izutua belusezko toka marroi untxi-belarri bat jantzita piano hotza astintzen, Eccles andereñoa nesken oinak jotzen makila luze zuri batekin—, eta bestetik hau, bien arteko aldea ikaragarria zen, eta Leila seguru zegoen, dantza-lagunik etorri ez eta musika zoragarri hura entzuten egon behar bazuen eta besteak irristan ikusi urrezko lurrean barrena, gutxienez hil edo zorabiatuko zela, edo besoak goratu eta hegan irtengo zela, han goian izarrak ageri zituzten leiho ilun haietako batetik.

— Gurea dela uste dut...

Norbaitek burua makurtu, irribarre egin, eta besoa eskaini zion. Ez zen behintzat hilko! Gerri-tik heldu zion norbaiten eskuak, eta urmael batera botatako lorea bezala joan zen igeri.

— Lur ederra, ezta? —xuxurlatu zion ahots ahul batek belarri ertzean.

— Irristan ibiltzeko dotorea —esan zuen Leilak.

— Zer? —ahots ahulak harritua zirudien. Leilak berriro esan zuen lehengoa. Eta eten ñimiño bat egon zen, ahotsak oihartzun egin zuen arte— : Bai, egia —eta berriro eraman zuen Leila jirabiran.

Izugarri ongi gidatzen zuen. Neskekin ala gizonekin dantzatu, horixe zen aldea, iritzi zion Leilak. Neskek bata bestearen kontra tupust egin eta batak bestearen oina zapaltzen zuten; gizonarena egiten zuen neskak beti oker heltzen zizun.

Azaleak ez ziren ja banaka ageri; zapi zuri eta arrosen jarioa ziren.

— Izan zinen Belldarreanean iragan astean? — etorri zen ahotsa berriro. Nekatua zirudien. Leilak zalantza egin zuen, gelditu nahi zuen galde-tu ala ez.

— Ez, nire lehen dantzaldia da hau —esan zuen.

Lagunak barre txiki arnasestu bat egin zuen.

— Hara! —bota zuen.

— Bai, hauxe da dantzara natorren lehenbiziko aldia—gaineratu zuen Leilak gartsuki. Seku-

lako arindua zen norbaiti esan ahal izatea—. Izan ere, baserrian bizi izan naiz orain arte...

Une hartan musika gelditu eta esertzera joan ziren, horma ondoko bi aulkitan. Leilak saten arrosazko oinak azpian gorde eta bere buruari haize ematen hasi zen, zoriontsu begiratzuz ate birakarrietatik igaro eta ezkututzen ziren beste bikoteei.

— Ongi ari haiz pasatzen, Leila? —galdetu zion Josek, bere buru urretsuari eraginez.

Lurak ere keinu xume txiki bat egin zion pasaeran; instant batez Leilak zalantza egin zuen, bera erabat heldua ote zen. Ondoko laguna, berriz, ez zen oso hiztuna. Hark ez tul egin, musuzapia gorde, txalekoari behera tiratu, eta hari ñimiño bat kendu zuen mahukatik. Baina berdin zen. Ia berehala ekin zion berriro orkestrak, eta goiko sabaitik salto eginda bezala azaldu zitzaion bigarren dantza-laguna.

— Ez da lur txarra —esan zuen ahots berriak. Ohitura ote zen beti lurrarekin hastea? Eta ondoren—: Izan zinen Neavetarren dantzaldian asteartean? —Eta Leilak berriro argitu zuen. Agian arraro samarra zen dantza-lagunek interes

gehiago ez agertzea. Zirrara ona zen! Lehenbizi-ko dantzaldia! Hasiera-hasiera zen berarentzat. Gaua nolakoa zen ikasi berri zuela iruditzen zitzaion. Orain arte gauza iluna izan zen, isila, sarritan ederra —o bai!—, baina goibel antzekoa. Hotsandikoa. Eta orain ez zen gehiago horrelakoa izango: bizi-bizi ageri zitzaion.

— Izozki bat nahi? —esan zion lagunak. Eta ate birakaritik joan ziren, igarobidean zehar, jangelaraino. Sutan zituen masailak, egarriz puskatzen zegoen. Zer goxoa ematen zuen izozkiak kristalezko plater txikietan, eta zer hotza zegoen koilara lausotua, hura ere izoztua! Eta dantzalekura itzuli zirenean han zegoen gizon lodia beraren zain ate ondoan. Hura hain zahar ikusita berriro ere jota geratu zen; hobeto egongo zen hura tauladan aita eta amen ondoan. Eta lehen-go dantza-lagunekin konparatu zuenean, Leilak itxura narrasa eman zion. Txalekoa zimurturik, eskularruko botoi bat galduta, eta zamarrean, berriz, jostun-xaboiaren arrastoak bezala.

— Zatoz, andereño —esan zuen gizon lodiak. Ez zion berari ia batere heldu, eta goxo-goxo ibili ziren, dantzan ez baizik ibiliz bezala. Baina hark

ez zuen lurrik aipatu—. Lehenbiziko dantzaldia duzu, ezta? —xuxurlatu zuen.

— Nola igarri didazu?

— Aa —esan zuen gizon lodiak—, horra zer den zahar izatea! —eta arnasestu xume bat egin zuen, bikote trakets baten ondotik gidatzen zuela—. Izan ere, hogei eta hamar urte daramatzat honetan.

— Hogei eta hamar urte! —hots egin zuen Leilak. Bera jaio baino hamabi urte lehenago!

— Latza da pentsatze hutsa, e? —esan zuen gizon lodiak goibel. Leilak hari buru soilera begiratu eta errukia sentitu zuen.

— Zoragarria da halere jarraitzea —esan zion jator.

— Zu bai andereño jatorra —esan zuen gizon lodiak, eta hurbilxeagotik helduz, balsaren konpas bat kantatu zuen ahopean—. Jakina —jarraitu zuen—, zuk ez duzu inola ere hainbeste iraungo. Bai zera —esan zuen gizon lodiak—, hori baino askoz lehenago egongo zara hor goiko tauladan, begira jarrita, belus beltz ederrez jantzia. Eta beso polit hauek motz eta lodi edukiko dituzu, eta doinua segituko duzu haizemaile erabat

desberdin batekin, hezurrezko beltz batekin. — Gizon lodiak hotzikara bezala egin zuen—. Eta hor goiko zahar jende gaixoak bezala egingo duzu irribarre, eta zure alaba seinalatuko duzu, eta zure aldameneko andere adinekoari esango diozu gizon zantar batek musu eman nahi izan ziola klubeko dantzaldian. Eta bihotzak min emango dizu, min handia —gizon lodiak are hurbilago estutu zuen, bihotz gaixo hartaz errukitu-ta bezala—, inork ez dizulako ja musu eman nahi. Eta lur argizaritu horietatik ibiltzea zer desegoki den esango duzu, zer arriskutsu diren. E, mademoiselle Hanka Arin? —esan zuen gizon lodiak leun-leun.

Leilak barre txiki arin bat egin zuen, baina ez zuen barre egiteko gogorik. Hala ote zen? Posible ote zen? Egia latza zirudien. Lehenbiziko dantzaldi hau azken dantzaldiaren hasiera besterik ez ote zen? Hartan, aldatu bezala egin zen musika; itxura tristea hartu zuen, oso tristea; hasperen handi bat izateraino goratu zen. O, zer agudo aldatzen ziren gauzak! Zergatik ez zuen zorionak betiko irauten? Betiko irautea ez zen gehiegizkoa.

— Gelditu egin nahi dut —esan zuen Leilak
arnasa joanda. Gizon lodiak ate aldera eraman
zuen.

— Ez —jarraitu zuen—, kanpora ez. Ez dut
eseri nahi. Hementxe geratuko naiz, eskerrik
asko —eta hormaren kontra jarri zen, oinarekin
doinua jarraitzen, eskularruei gora tiraka eta
barre itxura egiten. Baina, barru-barruan, neska
txiki bat mantala burutik behera botata zotinka
ari zen. Zergatik hondatu zion dena beste hark?

— Baina aizu —esan zion gizon lodiak—, ez
nazazu aintzat hartu.

— Horretarakoxe nago! —esan zuen Leilak,
bere buru txiki ilunari eragin eta beheko ezpaina
hurrupatuz...

Berriro desfilatu zuten bikoteek. Ate biraka-
riak ireki eta itxi zebiltzan. Orkestra zuzendariak
musika berri bati ekin zion. Baina Leilak ez zuen
gehiago dantzatu nahi. Etxean egon nahi zuen,
edo ataripean eserita hontzakumeei entzuten.
Leiho ilunetan barrena begiratu izarrei eta haiek
hego antzeko izpi luzeak zituzten...

Baina orduantxe doinu gozo, ezti, zirrargarri
bat hasi zen, eta gazte ile-kizkur bat makurtu

zitzaion aurrean. Dantzatu beharra zeukan giza-
legez, Meg topatu arte. Oso zurrun joan zen
oinez erdi aldera; oso harro ipini zuen eskua bes-
tearen besoan. Baina handik laster, handik jira-
bira batera, han zihoazkion oinak irrist eta irrist.
Argiak, azaleak, soinekoak, aurpegi arrosak,
belusezko aulkiak, guztia bihurtu zen gurpil
hegalari eder bat. Eta ondoko lagunak gizon
lodia joarazi zionean eta hark «Pardon» esan,
Leilak inoiz baino arraiago egin zion irribarre. Ez
zuen hura ezagutu ere egin.

KANTU LEZIOA

Etsipenean erorita —etsipen hotz eta samina bihotz barru-barruraino sartutako labana zital bat bezala—, Meadows andereñoa, toga eta birreta jantzita eta batuta txiki bat eskuan zuela, bizi-bizi zihoan musika aretora igarobide hotzetan zehar. Adin guztietako neskak, freskurarekin musua gorrituta, eta udazken goiz eder batez eskolara lasterka etortzeak dakarren zirrara alaiz gainezka, han zebiltzan presaka, saltoka, zalapartaka; ikasgela barruetatik ahots errepikarinen bat iristen zen; txintxarri hots bat aditu zen, txori antzeko ahots batek hots egin zuen: «Muriel». Eta orduan eskailera aldetik sekulako danbatekoak iritsi ziren. Norbaiti soinketako pisuak erori zitzaizkion.

Zientziako maistrak Meadows andereñoa gelditu zuen.

— Egun on —hots egin zion bere hizkera gozo, itxurati harekin—. Hotz dugu gaur. Negua dirudi.

Meadows andereñoak, bere baitako labanari helduta, gorrotoz begiratu zion zientziako maistrari. Hura bai emakume gozoa, zurbila, ezta bezalakoa. Ez zen harritzekoa izango, ile horixka haren kizkur artean erle bat topatzea itsatsita.

— Zakarra, bai —esan zuen Meadows andereñoak lehor.

Besteak bere irribarre azukretsu hura egin zion.

— Izoztua ematen duzu —esan zuen. Zabal-zabal egin zituen bere begi urdinak; isekazko argi bat agertu zen haietan. (Zerbait igarri ote zuen?)

— O, hainbeste ere ez —esan zuen Meadows andereñoak eta, lehengo irribarrearen ordainetan, zientziako maistrari imintzio bizkor bat egin eta aurrera jarraitu zuen...

Lau, bost eta seigarren gelak musika aretoan zeuden bilduta. Gortzekoa zen hango zarata. Taulada gaineko pianoaren ondoan zegoen Mary Beazley, Meadows andereñoaren kutuna, akonpainamenduen jotzailea. Atrila jiratzen ari zen. Meadows andereñoa ikustean, abisuzko «!xx! Aizue!» ozen bat esan eta andereñoa, eskuak

mahuka barruetan atxikirik, batuta besapean, erdiko korridoretik etorri, mailadia igo, bat-batean jiratu, letoizko atrila hartu, bere aurrean tinkatu, eta bi takateko zorrotz eman zituen batutarekin, isiltasun eske.

— Ixo, mesedez! Bizkor! —eta inorengan erreparatu gabe, begiradarekin zeharkatu zuen itsaso hura, flanelazko blusa koloretsuak, aurpegi eta esku arrosak gora-behera, tximeletazko txibistak buruetan dar-dar, eta musika-liburuak zabalik. Ongi asko zekien zer ari ziren pentsatzen. «Meady zaputzean dago». Pentsatzea zuten bada! Betileek dar-dar egin zioten; burua astindu zuen, desafioka. Zer axola zion umemoko haien pentsamenduak hilzorian odolusten zegoenari, bihotza bi puska eginda halako gutunarekin...

...«Gero eta argiago nabari dut: gu bion ezkontza akats bat izango litzateke. Ez da maite ez zaitudalako. Nik emakume bat maita dezakedana hainbat maite zaitut, baina, egia esateko, ezkontzen diren horiek ez bezalakoa naizela ateratu dut ondorioa, eta familia bat sortzearen ideiak zera sortzen dit,...» eta «nazka» hitza

arin-arin ezabatu eta «damua» zegoen gainean idatzia.

Basil! Meadows andereñoa piano aldera hurreratu zen. Eta Mary Beazleyk, une harexen zain, burua makurtu zuen; masailetan behera erori zitzaizkion ile kizkurrak, xuxurlatu zuenean:

— Egun on deizula, andereño —eta, eman baino areago, krisantemo hori eder bat seinalatu zion andereñoari. Aspalditik zetorren lorearen erritu txiki hau, ikastaldi eta erdi edo. Lezioaren parte bat zen, pianoa irekitzearen pare. Baina goiz honetan, hura hartu beharrean, gerrikoan jarri eta Maryrengana makurtuta esan beharrean: «Eskerrik asko, Mary. Zer ederra! Ireki ezazu hogeita hamabigarren orria», hura izua Maryrena andereñoak krisantemoa batere aintzat hartu ez, diosalari erantzun ez, eta ahots izoztu batez esan zionean:

— Hamalagarren orria, mesedez, eta ongi markatu azentuak.

Hura txunditzea! Begietan malkoak agertu arte gorritu zen Mary, baina andereñoa joana zen atrilera; areto osoan zabaldu zen haren aho-tsa.

— Hamalau garren orria. Hamalau garren orrian hasiko gara. «Lantua». Honezkero jakin behar zenukete. Dena osorik egingo dugu, zatika ez baizik osorik. Eta sentimendurik gabe. Soil-soil kanta ezazue, ezkerreko eskuaz doinua eramanez.

Makila altxatu zuen; bi aldiz jo zuen atrila. Han hasi zen Mary hasierako akordearekin; han hasi ziren ezker esku guztiak airea joka, eta ahots gazte, goibelen korua:

*Bizkor! Ai, bizkor ihartzen da pozaren arrosa;
Laster da udazkena negu beltz.*

*Arina! Ai, arina da musikaren doinu airosa
Badoa belarri ernetik ihes.*

Jainko santua, lantu hura baino garratzagorik! Nota bakoitza intziri bat zen, zotin bat, hasperen goibel latz bat. Andereñoak toga zabalaren besoak goratu eta esku biek hasi zen zuzentzen. «... Gero eta argiago nabari dut: gu bion ezkontza akats bat izango litzateke...» eraman zuen doinua. Eta ahotsek negar egin zuten: *Arina! Ai, arina.* Zer deabruk idatzarazi zion

gutun hura? Zerk eraman zuen horretara! Ez non eta ez han. Hark azken gutunean haritz keztatuko apal bat aipatzen zuen, «gure» liburuentzat eresia, eta «sarrerarako esekileku txiki dotore bat» ere ikusi zuela, «erpinean zurezko hontza bat, atzaparretan hiru eskuila dituen kapeluentzat». Zer barrea hura irakurrita! Gizona izan behar, kapeluentzat hiru eskuila behar direla pentsatzeko! *Belarri ermetik ihes*, kantatu zuten ahotsek.

— Berriro —esan zuen andereñoak—. Baina oraingoan zatika. Sentimendurik gabe atzera.

Bizkor! Ai, bizkor. Lehenaz gain, kontraltoen goibeltasunak hotzikara handitzen zuen. *Ihartzen da pozaren arrosa.* Azkeneko etorri zenean, Basilek arrosa bat zeraman paparrean. Oso egoki zegoen, janzki urdin argi hura eta arrosa gorri ilun harekin! Hark ere bazekien, bai. Jakingo ez zuen! Lehenbizi ilea igurtzi zuen, gero bibotea; irribarre egitean hortzek distiratzen zioten.

— Eskolako zuzendariaren emazteak afaltzera gonbidatu nau berriro ere. Istilu gorria dut.

Ezin arratsalde bakar bat ere neure buruari eskaini leku horretan.

— Ezin diozu ezetz esan?

— Bai baina, nire posizioko gizon bati jendea-
rekikoa izatea komeni zaio.

Musikaren doinu airosoa, egin zuten ahotsek intziri. Sahatsak, leiho garai estuen bestaldean, haizetan zebiltzan. Galduak zituzten hostoen erdiak. Eusten zioten txikitxo bakanak, arrainak amuan bezala bihurritzen ziren. «...Ezkontzen diren horiek ez bezalakoa naizela...» Ahotsak isilik zeuden; pianoa zain.

— Ederto —esan zuen andereñoak, baina oraingoan ere hain doinu berezi, elkorrean non neska gazteenak erabat beldurtzen hasi ziren—. Ikasi dugunez, orain sentimenduarekin egingo dugu. Ahal duzuen sentimendu guztia jarri. Hitzak gogoan izan. Erabili zeuon irudimena. *Bizkor! Ai, bizkor* —hots egin zuen andereñoak—. Lantuaren sarreran, *forte* ozen, indartsu bat. Eta gero bigarren lerroan, *negu beltz*, kanta ezazue *beltz*, tartetik haize hotza balebil bezala. *Beltz!* —esan zuen, hain izugarri non Mary Beazleyk dar-dar egin baitzuen bere aulkian—. Hirugarren

lerroak crescendo bat izan behar du. *Arina! Ai, arina da musikaren doinu airoa*. Gogor ekiteko azken lerroko lehen hitzari, *Badoa*. Eta ondoren, *belarri ernetik* hitzetan, hasi makaltzen... itzaltzen... *ihes* xuxurla ahul bat besterik ez den arte... Nahi hainbat moteldu azken lerroa. Ea bada.

Berriro bi takateko arinak; besoak jaso zituen berriro. *Bizkor! Ai, bizkor*. «...eta familia bat sortzearen ideiak zera sortzen dit, nazka...» Nazka idatzi zuen. Ezkontzeko hitza erabat hautsita zegoela esatea bezala zen. Hautsia! Ezkontzeko hitza! Jendea nahikoa harritu zen ezkontzeko hitz harekin. Zientziako maistrak hasieran ez zuen sinetsi. Baina bera harritu zen gehien. Berak hogeita hamar urte. Basilek hogeita bost. Miraria izan zen, erabateko miraria, gau guztiz ilun hartan elizatik etxera zihoazela hari entzutea, «Aizu, nola edo hala, gustukoa zaitut». Eta hark ostruka-lumazko larrukiaren muturretik heldu zion. *Badoa belarri ernetik ihes*.

— Berriro! Berriro! —esan zuen andereñoak—. Sentimendu gehiago, neskak! Ea beste behin!

Bizkor! Ai, bizkor. Neska zaharrenak gorri-gorri zeuden; gazteenetako batzuk negarrez hasi ziren. Euri zipriztin handiek astindu zituzten leihoak, eta sahasen marmarra ere aditzen zen, «...ez da maite ez zaitudalako...»

«Baina, laztana, maite banauzu», pentsatu zuen andereñoak, «berdin zait zenbat den. Oso gutxi maite nahi banauzu ere». Baina bazekien ez zuela maite. Ez zen bada hura arduratu «nazka» hitza ezabatzeaz, berak irakur ez zezan! *Laster da udazkena negu beltz.* Eskola ere utzi beharko zuen. Kontua zabaltzen zenean, ezingo zien aurre egin zientziako maistrari edo neskei. Norabait ezkutatu beharko zuen. *Badoa.* Hasiak ziren ahotsak makaltzen, itzaltzen, xuxurlatzen... aienatzen...

Bat-batean atea zabaldu zen. Urdinez jantzi-tako neska koskor bat milika joan zen korridorean zehar, burumakur, ezpainei hozka, eta zilarrrezko zirgilo bati eragiten bere ukondo txiki gorrian. Mailadian gora etorri eta andereñoaren aurrean geratu zen.

— Zer dugu, Monika?

— Arren, andereño —esan zuen neska koskorrak hats-bahi—, Wyatt andereñoak zurekin egon nahi du irakasle gelan.

— Ongi —esan zuen Meadows andereñoak. Eta neskei dei egin zien—: Zuen ohoreagatik, isilik mintza zaitezte ni ez nagoen bitartean.

Baina etsiegi zeuden ezertarako. Gehienak sudurrari zintzaka.

Igarobideak isil eta hotz zeuden; oihartzun egiten zuten Meadows andereñoaren urratsekin. Idazmahaian zegoen zuzendaria. Une batez ez zuen gora begiratu. Beti bezala ari zen, lepoko txibistan katigatutako betaurrekoak askatzen.

— Eseri, Meadows andereñoa —esan zuen oso jator. Ondoren gutun arrosa bat hartu zuen ohar-paperen gaineratik—. Zuretzat telegrama hau iritsi berri delako hots egin dizut.

— Telegrama niretzat?

Basil! Bere burua hil zuen, iritzi zion. Eskua luzatu zuen, baina Wyatt andereñoak telegramari eutsi zion pixka batean.

— Ez ahal da ezer txarra izango —esan zuen, jatortasun behartu batez. Meadows andereñoak berehala urratu zuen.

«Ez aintzat hartu gutuna zoroa ote nengoen erosi dut esekilekua Basil», irakurri zuen. Ezin zituen begiak telegramatik kendu.

— Ez ahal da larritasun handikoa izango — esan zuen Wyatt andereñoak, gorputza aurreratuz.

— O, ez, mila esker, Wyatt andereñoa —gorritu zen bera—. Ez da ezer txarra. Zera da —eta barre txiki bat egin zuen barkamen eske—, nire senargaia, esanez... esanez... —eten bat egon zen.

— A bai! —esan zuen Wyatt andereñoak. Eta beste eten bat. Ondoren—: Hamabost minutu geratzen dira zure klasea bukatzeko, ezta, Meadows andereñoa?

— Bai, andereño. —Zutitu eta korrika txikian joan zen ate aldera.

— O, zaude unetxo bat —esan zuen Wyatt andereñoak—. Esan beharra dut ez zaidala ongi iruditzen nire irakasleek telegramak jasotzea eskola orduan, ez badira albiste latzak, heriotzaren bat —argitu zuen Wyatt andereñoak—, edo istripu larriren bat edo. Albiste ona bada, andereño, itxaron dezake.

Esperantzaren, maitasunaren, zorionaren hegoak jantzita, Meadows andereñoa ziztuan joan zen musika aretora, korridorean zehar, mailadian gora, piano aldera.

— Hogeita hamabigarren orria, Mary —esan zuen—, hogeita hamabigarren orria —eta krisantemo horia hartuz ezpainetara eramán zuen, irribarra gordetzeko. Ondoren neskekana jiratu eta batuta astindu zuen—. Hogeita hamabigarren orria, neskek. Hogeita hamabigarren orria.

*Hemen gatoz lorez gainezka,
Saskiak leporaino fruitu eta zintaz,
Ospatzeko...*

— Ixo! Ixo! —egin zuen oihu Meadows andereñoak—. Oso gaizki! Penagarri! —eta irribarre egin zien neskei—. Zer gertatzen zaizue? Gogotan izan, neskek, zer ari zareten kantatzen. Erabili zeuon irudimena. *Lorez gainezka. Saskiak leporaino fruitu eta zintaz. Eta Ospatzeko* —isilune bat egin zuen—. Itxura samin hori gabe, neskek. Beroa, zoriona, grina entzun behar da. *Ospatzeko*. Berriro. Bizkor. Denok batera. Ea ba!

Eta oraingoan andereñoaren ahotsa entzun zen beste ahots guztien gainetik, betea, sakona, sentimendu biziz.

ARROTZA

Moilako jende mordoxkak uste zuen ez zela sekula mugituko. Hantxe zegoen, ikusgarri, geldi-geldi ur gris zimurrean, goiko aldean ke adar bat zuela, kaio saldo ikusgarri bat garrasi eta murgil egiten popa aldean, sukaldeko hondakin artean. Bikote txikien hara eta hona ikus zitekeen: euli txikiak gora eta beheara oinez mahai oihal gris, zimurraren gaineko platerean. Beste euli batzuk ertzean zeuden pilatuta, burrunban. Orain distira zuri bat agertu zen ontziaren behean: sukaldariaren mantala edo agian zerbitzaria. Orain armiarma beltz ttipi bat igo zen lasterka eskailetatik zubira.

Jendetzaren aurrean gizon heldu bat, itxuraz mardula, oso apain jantzia, oso eroso zamar gris batekin, sedazko lepoko grisa, eskularru lodiak eta feltrozko kapelu iluna zituela, gora eta beheara zebilen, aterki bilduari eragiten. Bazirudien bera zela moilako jende mordoxkaren burua, eta aldi berean denak elkarrekin atxikitzen zituena. Artzain-zakur eta artzainaren arteko zerbait zen.

Baina zer txorakeria, zer txorakeria izan zen betaurrekoa ez ekartzea! Hainbesteren artean ez zegoen betaurreko bakar bat ere.

— Xelebrea da, Scott jauna, inor betaurrekoekin gogoratu ez izana. Hartara apur bat animatuko genituen. Seinaletxo batzuk egingo genizkien. *Lasai lehorreratu. Baketsuak gara. Edo: Ongi etorria jasoko duzue. Dena barkatu dizuegu.* Zer iruditzen? E?

Hammond jaunaren begirada bizkor tinkoak, urduria baina jator eta fidakorra, moilako guztiak hartu zituen barruan, kate motzean bildu zituen bi aitona haiek ere, mailadian nagituta zeudenak. Zirenek eta ez zirenek zekiten Hammond andrea zetorrela ontzi hartan, eta senarra hain zegoen aztoratua non ez baitzitzaion sekula burutik pasatu ere egin, gertaera zoragarri hau haiei axola ez zitzaienik. Hala, haiekiko bihotz ona sentitzen zuen. Jende fina zen, iritzi zion — baita mailadiko bi aitona zahar haiek ere—, giza-*seme fin*, taxuzkoak. Haien bularrak, alajaina! Berak ere zabaldu, lodi jantzitako eskuak sakeletan sartu eta orpotik behatz puntara kulunkatu zen.

— Bai, hamar hilabete egin ditu nire emazteak Europan. Alaba zaharrena bisitatzen, iaz ezkondu zitzaiguna. Neronek ekarri nuen honaino, Crawforderraino. Hala, bila etortzea pentsatut. Bai, bai, bai.

Bere begi gris maltzurak berriro kizkurtu, eta larri, bizkor aztertu zuen ontzi geldia. Askatua zeukan berriro zamarra. Erloju mehe, gurina bezain horia berriro atera, eta hogeit berrogeit, berrehungarren aldiz egin zuen kalkulua.

— Ea. Ordu biak eta laurdenetan irten da medikuaren txalupa. Oraintxe laurak eta hogeitazortzi dira. Hau da, bi ordu eta hamahiru minutu dira medikua joan dela. Bi ordu eta hamahiru minutu! Fiuu! —eta txistu motz bitxi bat eginez berriro itxi zuen erlojua—. Baina zerbait gertatu balitz esango ziguten, ezta Gaven jauna?

— O, noski, Hammond jauna! Ez dut uste... ez dut uste estutu behar dugunik —esan zuen Gaven jaunak, oinetakoaren takoia jo eta pipa hustuz—. Gainera...

— Egia! Egia! —hots egin zuen Hammond jaunak—. Kezkak alde batera! —gora eta behera bizkor ibili eta berriro etorri zen lehengo lekura,

Scott jaun-andreak eta Gaven jaunaren artean—
. Iluntzen ari du —eta aterki bilduari eragin zion,
ilunabarrari apur bat atzeratzeko mesedea eska-
tuz bezala. Baina ilunabarra bazetorren geldiro,
orban geldi baten antzera zabalduz ur gainean.
Jean Scott txikiak amari tiratu zion eskutik.

— Tea hartu nahi dut, amatxo! —egin zuen
intziri.

— Horixe —esan zuen Hammond jaunak—.
Horixe nahiko dute hemengo andereño guztiek
—eta bere begirada jator, oparo, ia errukarriak
kate motzean bildu zituen denak berriro. Bere
buruari galdetu zion ea Janey azken te bat har-
tzen ari ote zen hango salan. Hala opa zion;
baina ez zuen uste. Hura ezagututa, ontzi gai-
nean egongo zen. Hartara agian zerbitzariak
ekarriko zion kikera bat. Bera han egon balitz
eramango zion, nola edo hala. Eta une batez
ontzi gainean ikusi zuen bere burua ere, Janey
zaintzen, eta hari begira, ohitura zuen bezala
esku txikiarekin kikera biltzen, ontzi osoan lor-
zitekeen te kikera bakarra edaten... Baina bera
hemen zegoen, eta Jainkoak bakarrik zekien noiz
arte egongo zen kapitain madarikatu hura han-

txe planto eginda. Beste itzuli bat eman zuen, gora eta behera, gora eta behera. Taxi geltokiraino joan zen, gidariak ez zuela alde egin segurtatzeko; eta atzera bildu zen jendearen sailera, banana otarreen gerizpean. Jean Scott txikiak tea hartu nahian jarraitzen zuen. Ume gaixoa! Txokolate mutur bat eduki balu hari emateko!

— Etorri, Jean! —esan zion—. Aupatzea nahi? —eta goiko barrika batera jaso zuen neskatoa aise, goxo. Hura altxatzeak, hura zutik uzteak berebiziko lasaitua eman zion, bihotza arindu zitzaion.

— Heldu —esan zion, beso batez inguratzen zuela.

— O, ez kasurik egin, Hammond jauna! —esan zuen Scott andreak.

— Lasai, andrea. Ez da ezer. Ni pozik. Jean eta biok adiskideak gara, ezta, Jean?

— Bai, Hammond jauna —esan zuen Jeanek, eta hatza pasatu zion feltrozko kapeluaren ertzetik. Baina bat-batean belarritik heldu zion eta garrasi egin zuen—: Begira, jauna! Mugitzen ari da! Begira, badator!

Alajaina! Egia zen. Halere! Astiro-astiro ari zen jiratzen. Kanpai hotsa entzun zen uretan barrena eta lurrin parrastada handi bat isuri zen airera. Kaioek gora egin zuten; paper puska zuriak bezala urrundu ziren. Eta Hammond jaunak ezin zuen antzeman taupada gogor hura motorrena zen ala bere bihotzarena. Kemena behar zuen, zernahi izanda ere aurre egiteko. Orduantxe moilan behera etorri zen Johnson zaharra, portuzaina, beso azpian larruzko zorro bat zuela.

— Uztazu Jean —esan zuen Scott jaunak—. Eutsiko diot.

Doi-doia iritsi zen. Hammond jauna ahaztua zegoen Jeanekin. Salto eginda joan zen Johnson kapitain zaharra agurtzera.

— Kontxo, kapitain —oihu egin zuen ahots urduri, grinatiak berriro—, azkenean errukitu zara gutaz.

— Ez niri errua egotzi, Hammond jauna —esan zuen arnaska Johnson kapitain zaharrak ontziari begira—. Emaztea datorkizu hor, ezta?

— Bai, bai! —esan zuen Hammondek, portuzainaren aldamenetik joan gabe—. Hor datorkit emaztea. Eup! Laster da!

Hango telefonoa hoska eta hoska, helizearen burrunbak airea betetzen zuela, barku handiak zuzen jo zuen berengana, ur iluna garbi moztean txirbil zuri handiak alde bietara kiribilduz. Hammond eta portuzaina beste guztien aurrean zeuden. Hammondek kapelua erantzi zuen; ontzi gainak ikertu zituen: bidaiariz lepo zeuden; kapeluari eragin eta «Eup!» ozen, arraro bat bota zuen uretan zehar, eta ondoren jiratu eta barrez lehertu eta zerbait esan zion —ezer ez— Johnson kapitainari.

— Ikusi duzu? —galdetu zion portuzainak.

— Ez, oraindik ez. Lasai, zaude apur bat! — Eta bat-batean, bi ergel kankailuen artetik — «Kendu paretik!» seinalatu zien aterkiaz—, esku bat ikusi zuen altxatuta, eskularru zuri bat musuzapi bat astintzen. Handik gutxira —Jainkoari eskerrak, Jainkoari eskerrak!— hantxe zegoen. Hantxe zegoen Janey. Hantxe zegoen Hammond andrea, bai, bai, bai... baranda ondoan zutik eta barreka eta keinuka eta musuzapiari eraginka.

— Lehen klasean dator, lehen klasean! Tira tira tira! —Ostikoz jo zuen lurra. Tximista bezala zigarro-kutxa atera eta Johnson kapitain zaharri eskaini zion—. Hartu zigarro bat! Onetakoak dira. Hartu bi! Tori! —eta portuzainari harrarazi zizkion kutxako zigarro guztiak—. Kutxa pare bat ditut hotelean.

— Mila esker, Hammond jauna —esan zuen Johnson kapitain zaharrak arnaska.

Hammondek zigarro-kutxa jaso zuen. Dardaraka zituen eskuak, baina egin zen berriro bere buruaren jabe. Janeyri aurre egiteko moduan zegoen. Hantxe zegoen hura, barandaren kontra, emakume batekin hizketan eta aldi berean berari begira, berarentzat prest. Hammondi otu zitzaion, ur tartea gutxitzen joan ahala, hark oso txikia ematen zuela ontzi eskerga hartan. Zirraz puskatzen zeukan bihotza, negar batean hasteko zorian. Zer txikia ematen zuen, joan-etorri hura guztia bakar-bakarrik eginda! Izan ere, horrelakoxea zen. Horrelakoxea zen Janey. Harena bai kemena! Eta orain eskifaia agertu zen, bidaiariak baztertuz; barandak jaitsi zituzten.

Lehorreko ahotsak eta ontziko ahotsak hegaz elkartu ziren.

— Dena ongi?

— Dena ongi.

— Zer moduz ama?

— Askoz hobeto.

— Kaixo, Jean!

— Kaixo, izeba Emily!

— Bidaia ona izan duzue?

— Bikaina!

— Laster gara elkarrekin.

— Laster, bai.

Gelditu ziren motorrak. Astiro hurbildu zen ontzia moila aldera.

— Egin hor lekua, egin lekua, egin lekua! — eta moilako langileek arrasta bizian ekarri zituzten mailadi astunak. Hammondek keinu egin zion Janeyri, hantxe gera zedin. Portuzain zaharrak aurrera egin zuen; atzetik abiatu zen bera. Ez zen «emakumeak lehenbizi» edo antzeko txorakerien zale.

— Zu aurretik, kapitain —hots egin zuen alegera. Eta, gizon zaharrari orpoz orpo segika, mailadian gora igo zen ontzira, eta zuzen-zuzen

Janeygana joanda, besarkatu zuen—. Ene, ene!
Bai, bai! Azkenean! —toteldu zuen. Ezin zuen
besterik esan. Eta Janeyk begiratu, eta ahots
txiki xume hark —munduko ahots bakarra bera-
rentzat— esan zuen:

— Eta, maitea, denbora askoan zain?

Ez; denbora askoan ez. Edo behintzat ez zuen
axola. Bukatu zen eta kito. Baina moilako puntan
taxia zegoen zain. Joateko prest? Maletak prest?
Hala bazen, gelako maleta hartuta alde egin eta
biharamunerako utziko zuten beste guztia ber-
tan. Senarrak behera eta emazteak gora begira-
tu zion, betiko erdi irribarre harekin. Lehengoa
etorri zen, bai. Fitsik aldatu gabe. Beti ezagutu
zuen bezalakoxea. Bere besoan jarri zion esku
txiki hura.

— Zer moduz haurrak, John? —galdetu zuen.

(Hor konpon haurrak!) — Zoragarri. Inoiz
baino hobeto.

— Ez didate gutunik idatzi?

— Bai, bai, noski! Hotelean utzi ditut, gero
lasai azter ditzazun.

— Ezin gara honen bizkor joan —esan zuen—
. Adio esan behar diet lagun batzuei, eta kapitai-

nari ere bai. —Tristatzen ikusi eta emazteak atximur txiki ulerkor bat egin zion besoan—. Kapitaina zubitik irteten bada emazkiozu arren esker-rak, zure emazteari hain ongi kasu egin diolako.

Behintzat elkarrekin zeuden. Hamar minutu gehiago nahi bazituen... Alde batera egin ahala, jendeak emaztea inguratu zuen. Bazirudien lehen klaseko guztiek nahi ziotela adio esan Janeyri.

— Adio, Hammond andre maitea! Zure espe-roan egongo naiz hurrengoan Sydneyra zoazenean.

— Hammond andre kutuna! Ez ahal zaizu behintzat ahaztuko niri idaztea, e?

— Ene, Hammond andrea, zer izango zen barku hau zu gabe?

Janey zen, argi eta garbi, ontziko emakume begikoena. Eta haren jarrera betikoa zen. Erabat tinko. Halakoxea zen, goitik behera Janey; han-txe beloa atzera botata. Hammond sekula ez zen ohartzen emaztearen janzkeraz. Berdin-berdin zitzaion hark zer eraman. Baina gaur ohartu zen «costume» beltz bat zeramala —ez zuten horrela esaten?— farfaila zuriekin, apaingarriak izan-

go zirela pentsatu zuen, lepoan eta mahuketan. Bitarte guztian Janeyk batera eta bestera ibili zuen bera.

— John, maitea! —Eta ondoren—: Utzidazu aurkezten...

Azkenean ihes egin zuten, eta hark gidatu zuen gelara. Bitxia zen Janeyren atzetik joatea hark hain ongi ezagutzen zituen korridoreetatik; ondoren errezela berdeak zabaldu eta harena izandako gelan sartzeak berebiziko gozamena piztu zion. Baina —komedia zen!— lurrean zegoen zerbitzaria, tapizak lotzen.

— Hau da azkena, Hammond andrea —esan zuen zerbitzariak, zutitu eta mahukak jaitsiz.

Berriro aurkeztu zuten bera, eta ondoren Janey eta zerbitzaria korridore aldera desagertu ziren. Marmarka entzun zituen. Eskupekoa ematen, pentsatu zuen. Sofa barratuan eseri eta kapelua erantzi zuen. Han zeuden emazteak eramandako tapizak; berriak ematen zuten. Haren hatu guztiek freskoak ematen zuten, perfektuak. Haren letra txiki argi ederraz zeuden idatzita etiketak: «John Hammonden andrea».

«John Hammonden andrea!» Atseginezko hasperen luze bat egin eta bizkarra atzeratu zuen, besoak gurutzatuz. Joana zen estuasuna. Betiko hantxe geratzeko gauza izan zitekeen, hasperen eginez arinduta, bihotza estu eta larri eduki ondoren arinduta. Joana zen arriskua. Iru-dipen horixe zuen. Berrero lehorrean ziren. Baina une hartan Janeyren burua agertu zen izkinan.

— Maitea, berdin bazaizu medikuagana joan nahi nuke adio esatera.

Hammond tente jarri zen.

— Lagunduko dizut.

— Ez, ez —esan zion emazteak—. Ez kezkatu. Nahiago dut bakarrik. Unetxo bat izango da.

Eta erantzuteko denbora eman baino lehen desagertua zen. Atzetik segitzekotan egon zen; baina, horren orde, osteria eseri zen.

Laster etorriko ote zen? Zer ordu zen orain? Ordularia atera zuen; ezerezari so egon zen. Jokaera xelebrea Janeyrena, ezta? Zergatik ez zion zerbitzariari eskatu bere partetik adio esateko? Zergatik ibili behar zuen ontziko medikua-ren atzetik? Bazeukan hoteletik ohar bat bidaltzea, kontua hain larria bazen. Larria? Orduan...

gaixo egon ote zen bidaian, zerbait ezkututzen ari ote zitzaion? Horixe! Kapeluari heldu zion. Berehala gizaseme hura bilatu eta egia osoa aterako zion, kosta ahala kosta. Zerbait antzemandako zegoen, bai. Lasaiegi topatu zuen Janey, irmo-egi. Hasiera-hasieratik...

Errezelen hotsa. Han zen Janey. Bera zutik jarri zen.

— Janey, gaixo egon zara bidaia honetan? Bai, ezta?

— Gaixo? —Iseka egin zion haren ahots txiki arinak. Tapizen gainetik pasatu, beragana etorri, bularrean ukitu eta gora aldera begiratu zion—. Maitea, ez nazazu beldurtu. Zera egongo nintzen! Zer dela eta pentsatzen duzu hori? Gaixo itxura hartzen didazu?

Baina Hammondek ez zuen ikusten. Gauza bakarra sentitu zuen: hura berari begira zegoela eta kezka guztiak alferrik zirela. Hura egingo zen kargu. Dena ongi zegoen. Den-dena.

Janeyren eskuko estutu goxoak hainbeste lasaitu zuen non berak ere gainean jarri baitzuen eskua, harena hantxe mantentzeko. Eta Janeyk orduan:

— Egon geldi. Begiratu nahi dizut. Ez zaitut oraindik ikusi. Oso poliki duzu bizarra txukunduta eta ematen duzu... gazteago edo, eta inondik ere argalago! Mutilzahar bizitzak mesede egiten dizu.

— Mesede egiten didala! —Maitasunez intziri egin eta berriro estutu zuen Janey. Eta berriro, beti bezala, iruditu zitzaion berea ez zen zerbaiti ari zela heltzen. Zerbait finegia, bereziegia, askatu orduko hegan joango zena—. Jainkoaren izenean, alde egin dezagun behingoz hotelera, biok bakarrik egoteko! —eta gogor jo zuen txirrina, hatuak behingoz norbaiten bizkar uzteko.

Moilan zehar oinez zihoazela, Janeyk besotik heldu zion. Berriro besoan zuen. Eta hura lasaitua, taxian Janeyren atzetik sartu —bien hankak marra gorri eta horiko tapaki batez estali—, eta gidariari arin joateko esatea, tea hartu gabe zedula eta. Bukatu zen tea ez hartzea edo bakar-bakarrik hartu beharra. Etxean zen emaztea. Harengana jiratu, eskua estutu, eta samur esan zion, burlati, harentzat erabiltzen zuen ahots «bereziarekin»:

— Pozten zara etxera itzulita, laztana?

Hark irribarre egin zuen; erantzuteko ere lanik hartu gabe, emeki baztertu zion eskua kale argiagoetara iristerakoan.

— Hoteleko gelarik onena dugu —esan zuen senarrak—. Ez nengoen beste edozein hartzeko. Eta sua pizteko eskatu diot gelariari, hotzez etortzen bazinen ere. Oso neska jator eta arretatsua da. Eta zera pentsatu dut, biok hemen gaudenez ez dugula bihar bertan etxeratu beharrik, baizik eguna ikusmiran pasatu eta etzi goizean abiatu. Ongi deritzozu? Ez dugu presarik, ezta? Umeek laster izango zaituzte ondoan... Egun batez bazterrak ikustea eten atsegin bat izango da zure bidaian, e Janey?

— Hartuak dituzu etziko txartelak? —galdetu zuen.

— Izango ez ditut ba! —berokia askatu eta zisku puztu bat atera zuen—. Honatx! Lehen klaseko zalgurdi baten erreserba egin dut Salisburyako. Begira: «Hammond jaun-andreak». Biok bakarrik erosoago joango garela pentsatu dut, aldameneko inork muturra sartu gabe, ez da

hala? Baina luzaroago geratu nahi bazenu hemen...

— O, ez! —esan zuen Janeyk agudo—. Ezta erotuta ere! Orduan etzi. Eta umeak...

Baina iritsiak ziren hotelera. Ataripe zabal, distiraz argituan zegoen zuzendaria. Ongi etorria ematera jaitsi zen. Morroi bat lasterka etorri zen ezkaratzetik kutxen bila.

— Hara ba, Arnold jauna, hemen dut azkenean emaztea!

Zuzendariak berak sarreran barrena bidea erakutsi eta igogailuaren botoia sakatu zuen. Hammondek bazekien laneko ezagun batzuk zeudela sarrerako mahai txikietan eserita kopa bat hartzen afalurretik. Baina ez zuen nahi inork eteterik; ez zuen begiratu ez ezker ez eskuin. Nahi zutena pentsa zezatela. Ez bazuten ulertzen, inozoak zirelako. Igogailutik irten, beren gelako atea ireki eta barrura gidatu zuen Janey. Atea itxi zen. Orain, azkenean, biak bakarrik zeuden. Argia piztu zuen. Jaitsita zeuden errezelak; sua galdan. Kapelua jaurti ohe esker-gara eta emazteagana abiatu zen.

Baina —sinesteak ere baditu!— berriro eten zituzten. Oraingoan morroia zen, hatuekin. Bi joan-etorri egin zituen, bitartean atea zabalik utziz, patxada ederrean, bere artean txistuka korridorean. Hammond gora eta behera ibili zen gelan, eskularruak indarka kenduz, lepokoa indarka kenduz. Azkenean ohe ertzera jaurti zuen berokia.

Behingoz joan zen memelo hura. Ateak klik hotsa egin zuen. Orain bai, bakarrik zeuden. Hammondek orduan:

— Badirudi sekula ez zaitudala berreskuratu-ko. Madarikatuak! Janey —eta harengana behe-
ratu zuen begitarte gorritu, sutsua—, afal deza-
gun hemen goian. Jangelara jaisten bagara eten
egingo gaituzte, eta gainera musika penagarri
hori —aurreko gauean berak hain gogotik gorai-
patu eta txalotutako musika!— Ezingo diogu
elkarri entzun. Jan dezagun zerbait hemen goian
sutondoan. Beranduegi da terako. Afari legea
eskatuko dut, nahi duzu? Zer iruditzen zaizu?

— Horixe, maitea —esan zuen Janeyk—. Eta
zoazen bitartean... umeen gutunak...

— O, utz itzazu geroko —esan zuen Hammondek.

— Baina horrela kito egin —esan zuen Janeyk—, eta denbora edukiko nuke...

— O, ez dut behera joan beharrik —argituzion Hammondek—. Deitu eta eskaria egingo dut... ez nauzu noski bidali nahiko, ezta?

Janeyk ezezkoa egin zuen, irribarretsu.

— Baina zuk beste zerbait duzu buruan. Kezkaren bat edo —esan zuen Hammondek—. Zer da? Etorri eta eseri hemen... Etorri eta eseri hemen nire belaunetan sutondoan.

— Kapelua askatuko dut lehenbizi —esan zuen Janeyk, eta apain-mahai aldera joan zen—. Aa! —egin zuen garrasi txiki bat.

— Zer duzu?

— Ezer ez, maitea. Umeen gutunak topatu ditut. Berdin da! Gerorako. Ez dago presarik —eta beragana jiratu zen, haiei helduta. Soinean zeraman blusa farfailadunean sartu zituen. Bizkor eta alai esan zuen hoska—: Zuretzat aproposa apain-mahai hau.

— Zer ba? Zer gertatzen zaio? —esan zuen Hammondek.

— Eternitatean zintzilik topatuko banu ere «John» esango nuke —egin zuen Janeyk barre, begi aurrean zuela ileko tonikoaren botila handia, kolonia botila zumitzezkoa, ileko bi eskuilak, eta dozena bat lepoko berri, xingola arrosa batez lotuak—. Hauek dira zure hatuak?

— Pikutara hatuak! —esan zuen Hammondek; baina, nolana ere, gustukoa zuen Janeyk bere bizkar barre egitea—. Hitz egin dezagun. Gatozen harira. Esaidazu —eta Janey belaunetan kokatu zitzaionez, berak bizkarra atzeratu eta eserleku itsusiaren barrenera eraman zuen—, esaidazu pozten zarela etxeratuta, Janey.

— Bai, maitea, pozten naiz —esan zuen.

Baina hura besarkatzen zuenero alde egingo ziola iruditzen zitzaion bezala, era berean Hammondek ezin izan zuen jakin ea hura bera adina pozten zen. Nola jakin? Sekula jakingo ote zuen? Beti bizi beharko ote zuen grina honekin, gose antzeko oinaze honekin, alegia Janeyren jaun eta jabe izan beharra zeukala, horrela haren ezerk ez alde egiteko? Guzti-guztia ezabatu nahi zuen. Argia ez itzalia damutu zitzaion. Horrela, agian, gehiago hurreratuko zitzaiokeen emaztea. Eta

orain umeen gutun horiek blusan hots egiten.
Gustura botako zituzkeen surtara.

— Janey —xuxurlatu zuen.

— Bai, bihotza? —Bere bularraren kontra zegoen, baina oso arin, oso urruti. Bien arnasa batera zebilen, gora eta behera.

— Janey!

— Zer duzu?

— Jira zaitez nigana —xuxurlatu zion. Gorritasun bizi, geldi batek blaitu zion kopeta—. Emaidazu muxu, Janey! Eman muxu!

Tarte txiki bat egon zela iruditu zitzaion —bera oinazez puskatzen jartzeko nahikoa—, haren ezpainen bereak ukitu zituzten arte, tinko, arin... hark beti musu ematen zion bezala, eta bazirudien musu emanda —nola azaldu?— biek esandakoa baieztatzen zela, hitzarmena izenpe-tzen zutela. Baina berak ez zuen premia hori; ez zuen, inola ere, egarri hori. Izugarritzko nekea sentitu zuen bat-batean.

— Bazenekiki —esan zuen, begiak zabalduz—, zer izan den gaur... zure zain egotea! Ontzia sekula ez zela iritsiko uste nuen. Han egon gara, itxaroten. Zer dela eta berandutu zarete?

Ez zion erantzun. Suari begira zegoen, urruti. Garrak lasterka zebiltzan... lasterka ikatz gainean, dardaratu eta erori.

— Ez zenuen ba lo hartuko! —esan zuen Hammondek, gora eta behera salto eginaraziz.

— Ez —erantzun zion. Eta ondoren—: Ez hori egin, maitea. Ez, pentsatzen ari nintzen. Izan ere —esan zuen—, bidaiari bat hil zen atzo gauean... gizon bat. Horrek atzeratu gaitu. Geurekin ekarri dugu, zera, ez dugu itsasoan ehortzi. Eta jakina, ontziko medikua eta lehorreko medikua...

— Zer zuen? —galdetu zuen Hammondek egonezaz. Gorrotagarria zen heriotzaz entzun beharra. Gorrotagarria zen hura gertatu izana. Bitxia bazen ere, bazirudien Janey eta bera hileta batekin gertatu zirela hotelera bidean.

— O, ez da ezer kutsukoa izan! —esan zuen Janeyk. Ozta-ozta entzuten zitzaion arnasotsartetik—. Bihotza izan da! —Eten bat—. Gizagai-xoa! —esan zuen—. Gazte askoa. —Eta suari begira jarri zen, hura nola dardaratu eta erortzen zen—. Nire besoetan hil da.

Kolpea hain bat-batekoa izan zen non Hammondek pentsatu baitzuen zorabiatuko zela.

Ezin zen mugitu; ezin zuen arnasa hartu. Indar guztia jarioan zihoakiola sentitu zuen, eserleku handi ilunera jarioan, eta eserleku handi ilunak bertan eusten ziola, atxikitzen ziola, hura dena jasanarazten ziola.

— Zer? —esan zuen motel—. Zer esan duzu?

— Oso azken baketsua izan du —esan zuen ahots txikiak—. Justu —eta Hammondek esku samur hura jasotzen ikusi zuen—, arnasarekin batera joan zaio bizitza. —Eta eskua jausi zen.

— Nor... gehiago zegoen zuekin? —galdetu ahal izan zuen Hammondek.

— Inor ez. Ni bakarrik.

Jainko santua, zer ari zen ordea esaten! Zer ari zitzaion egiten! Hura agonia! Eta bitartean jarraitu zuen:

— Txarrera zihoala ikusi eta medikuaren bila bidali nuen zerbitzaria, baina medikua beranduegi heldu zen. Bestela ere ezingo zuen deus egin.

— Baina... zergatik zu, zergatik zu? —egin zuen Hammondek intziri.

Orduan Janeyk bizkor jiratu eta bizkor ikertu zion aurpegia.

— Ez zaizu inporta, ezta John? —galdetu zuen—. Ez zaizu... Ez du zerikusirik gu biokin.

Aldez edo moldez, lortu zuen irribarre moduko bat egitea. Aldez edo moldez toteldu zuen:

— Ez... segi... ezazu, segi ezazu! Kontaidazu dena.

— Baina John, maitea...

— Kontaidazu, Janey!

— Ez dago zer kontaturik —esan zuen, zalan-tzan—. Lehen mailako bidaiari bat zen. Antze-man nion oso gaixo zegoela ontzira heldu zenean... Baina askoz hobeto ematen zuen atzo arte. Atake gogor bat izan zuen arratsaldean: aztoramena, urduritasuna, nik uste, iristen ari ginela eta. Eta ez zen gehiago bere onera etorri.

— Baina zergatik ez zen zerbitzaria...

— O, maitea... zerbitzaria! —esan zuen Janeyk—. Zer irudituko zitzaion gizagaixoari! Eta gainera... agian mezu bat utzi nahiko zuen... bere...

— Ez zuen utzi? —esan zuen Hammondek ahopean—. Ez zuen ezer esan?

— Ez, maitea, ezta tutik ere! —Buruari eragin zion emeki—. Ni berarekin egondako denbora

guztian ahulegi zegoen... ahulegi zegoen hatz bat mugitzeko ere...

Janey isilik geratu zen. Baina haren hitzak, hain arin, hain eme, hain hotz, airean zintzilik bezala geratu ziren, beraren bularrera elurra bezala isurtzen zirela.

Sua txingar gorri bihurtu zen. Orain hots zorrotz batez erortzen zen eta hotzago zegoen gela. Besoetan gora igo zitzaion hotza. Berebizikoa zen gela, sekulakoa, distiratsua. Bere mundu osoa betetzen zuen. Han zegoen ohe handi itsua, bere zamarra ganean botata, bururik gabeko gizon bat otoitzean bezala. Han zeuden hatuak, berriro nork eramango zain, noranahi, tren bazterretan, barku zokotan.

...«Ahulegi zegoen. Hatz bat mugitzeko ere ahulegi». Baina halere Janeyren besoetan hil zen. Berari... ez zion sekula... sekula ere hainbeste urtetan... sekula santan ere...

Ez; ez zuen horretan pentsatu behar. Erotzekoa zen bestela. Ez, alde batera utziko zuen. Ezin zion aurre egin. Gehiegizkoa zen jasateko!

Eta orain Janeyk gorbata ukitu zion hatzarekin. Gorbata ertzak atximurkatu zizkion.

— Ez zaitu... samindu kontatu dizudanak, ezta, John maitea? Ez zinen ba tristatuko? Ez zuen ba hondatuko gure ilunabarra, biok bakarrik egote hau?

Baina, hartan, aurpegia gorde behar izan zuen. Aurpegia haren magalean jarri eta besaratu zuen.

Beren ilunabarra hondatu! Biak bakarrik egoitea hondatu! Sekula ez ziren berriro bakarrik egongo.

JAI EGUNA

Gizon sendo musu-gorri batek flanelazko gal-tza zuri zikin batzuk daramatza, zamar urdin batean eskuzapi arrosa bat ageri duela, eta buru atzean zintzilik lastozko kapelu bat, berarentzat txikiegia. Gitarra jotzen ari da. Lagun txiki bat — kalamuzko oinetako zuriekin, aurpegia ezkutaturik hego hautsi baten antzeko feltrozko kapelu baten azpian—, txirula bati haize ematen ari da; eta mutil mehe garai batek, puztu-puztu egindako bota botoidunak lehertzear dituela, musikazko txirbilak ateratzen dizkio —xingola luze, bihurri, dantzariak— biolin bati. Zutik daude, irribarrerik gabe baina serio ere ez, fruitu denda aurreko egutera zabalean; armiarma antzeko esku arrosak gitarra astintzen du, eta esku moz-kote txikiak, letoi eta turkesazko eraztun bat duenak, txirula gogogabetuari ekiten dio, eta biolinistaren besoa biolina bitan zerratu nahian ari da.

Jende mordoxka bat bildu da, laranjak eta bananak jaten, azalak kentzen, zatitzen, parti-

tzen. Neska gazte batek saski bat dauka marrubiekin, baina ez da jaten ari.

— Zer politik diren!

Fruitu ttipi puntadunei begira dago, beldurra balie bezala. Australiako soldaduak barre egiten du:

— Jan itzazu, ahokada bat besterik ez dago.

Baina berak ere ez du nahi neskak jaterik. Haren aurpegi txiki ikaratuari so egotea gustatzen zaio, eta haren begi txundituak berari gora begira:

— Kutixi ona dira!

Soldaduak bularra zabaldu eta barre iduri egiten du. Andre zahar gizenak belusezko gerruntzeekin —orratz ontzi zahar haustuak—; aterki gastatuen antzeko atso zahar okerrak, goiko aldean txano bat dardaraka dutela; andre gazteak, muselinaz jantzita, landare-hesietan jaioak ematen duten kapeluekin, eta zapata takoi zorrotzekin; gizonak kakiz, marinela, bulgari narrasak, judu gazteak oihal fineko jantziekin, sorbaldak harro eta galtzak zabal dituztela, «ospitaleko mutilak» urdinez —eguzkiak salatzen ditu—, musika ozen, sendoak denak elkar-

tzen ditu momentu batez korapilo handi batean. Gazteenak jolasean ari dira, elkar bultzaka espaloian gora eta behera, korrika, ukondoka; zaharrenak hizketan ari dira:

— Orduan esan zioat: medikuak ikustea nahi baduk, joan hadi herori.

— Eta egosi zirenerako eskukada ere ez zuan geratzen!

Isilik dauden bakarrak ume arloteak dira. Handaude, musikariengandik ahal den hurbilena, eskuak bizkarrean, begiak zabal. Aldian behin hanka bat txingoka jartzen dute, beso bati eragiten. Ume balantzati bat, eutsi ezinik, bi aldiz jiratu, handiki eseri, eta altxatzen da berriro.

— Zoragarria, ezta? —egiten du marmar neska txiki batek, eskua aho parean.

Eta puska argitsuak eginez zatitzen da musika, eta elkartzen da berriro, eta berriro zatitzen, eta desegiten, eta jendetza sakabanatzen, aldapan gora astiro.

Bide ertzean hasten dira txosnak.

— Kilikatzekoak! Kilikatzeko batek bi penike! Baduzu kilikatzekoa? Kilika itzazu neskak!

Erratz txiki leunak burdin harizko kirtenekin.
Barra-barra erosten dituzte soldaduek.

— Erosi panpina! Bi penike panpina batek!

— Erosi asto saltaria! Bixi-bixia!

— Sekulako gomagoxoa. Erosi, mutilak.

— Arrosak. Emaiozu arrosa, mutil. Arrosak,
andereño?

— Lumak! Lumak!

Zaila da haiei ezetz esatea. Luma eder, jario-
tsuak, berde esmeraldak, purpurak, urdin argiak,
hori kanarioak. Hurrek ere lumak daramatzate
txanoetan kiribilduta.

Eta andre zahar bat, hiru puntako kapelu
paperezko batekin, hoska ari da, mundua utzi
aurretik bere azken aholkua balitz bezala, zeure
burua salbatzeko edo zentzatzeko bide bakarra:

— Erosi hiru puntako kapelua, maitea, eta
janztazu!

Egun bizi-bizia da, erdi eguzki, erdi haize.
Eguzkia joan eta itzala hedatzen da; berriro argi-
tzen duenean zakar jotzen du. Gizon eta emaku-
miek kiskaltzen sentitzen dituzte bizkarrak,
bularrak eta besoak; beren gorputzak sentitzen
dituzte zabaltzen, berpizten... eta, hala, besarka-

tzeko keinu handiak egiten dituzte, altxatzen dituzte besoak, ezergatik ez, ekiten diote neska-
ren bati, lehertzen dira barrez.

Limoi ura! Ontzikada bete dago mahai gain
batean, zapi batez estalita; eta arrain amutsen
antzeko limoiek zipriztintzen dute ur horia. Sen-
doa ematen du, gelatina bezala, baso lodietan.
Ezin ote dute edan lurrera isuri gabe? Denei isur-
tzen zaie, eta basoa itzuli aurretik jira guztian
botatzen dituzte azken tantak.

Izozki guriaren inguruan, toldoa marraduna
eta tapa letoi argia dituena, ume pila bat dago.
Mingain txikiak miazka eta miazka kremazko
tronpeten inguruan, laukituen inguruan. Tapa
altxatu eta zurezko koilara murgiltzen da; begiak
ixten dira hura sentitzean, isil-isil marraskatzen.

— Utzi txori txiki hauei zuen geroa esaten! —
Kaiolaren ondoan dago andre italiar zimel, den-
bora ezagutzen ez duen bat, atzapar beltzak itxi
eta ireki. Aurpegia, oso fin landutako altxorra,
lepoko berde-urre batez dauka lotua. Eta, pre-
sondegi barruan, maitasunaren txoriek hegan
egiten dute hazi-ontziko orritxoetara.

— Izakera oso sendoa duzu. Gizon ile-gorri batekin ezkondu eta hiru haur izango dituzu. Begirozu emakume ile-hori batekin. Kontuz! Kontuz! Txofer lodi batek gidatutako automobil bat aldapan behera dator ziztu bizian. Bertan doa emakume ile-hori bat, kopeta beltz, gorputza aurreratuta... zeure bizitzan zehar ziztuan. Begirozu! Begirozu!

— Jaun-andreok; ni enkanteak egitetik bizi naiz, eta esaten dizuedana egia ez bada, arriskua dut niri baimena kendu eta espetxera bidaliko nautela. —Bularraren parean eusten dio baimenari; aurpegian behera doakio izerdia papezko lepora; izoztuak bezala ditu begiak. Kape-lua eranzten duenean, haragi haserreko zimur sakon bat ageri zaio kopetan. Inork ez dio erloju-rik erosten.

Kontuz berriro! Zalgurdi ikaragarri bat dator aldapan behera aldaroka, barruan bi haur zahar-zahar dituela. Andrea eguzkitako farfaila batekin; gizona makilaren kirtena milikatzen, eta bien gorputz zahar lodiak piririka datoz, sehaska kulunkatzen den bitartean, eta zaldi lurrintsuak,

aldapan beheara trostan, simaur arrasto bat uzten du.

Zuhaitz baten azpian Leonard profesorea, birreta eta toga jantzita, bere iragarkiaren ondoran dago. «Egun bakar baterako» etorri da, Londres, Paris eta Bruselako Erakusketatik, aurpegia ikusita zuri etorkizuna esatera. Eta hantxe dago, irribarre eginez animatu nahian, dentista trakets baten antzera. Gizon handiak, lehenxeago zalapartan eta biraoka ibiliak hurreratu eta sei penikekoa ematen diotenean, eta haren aurrean zutik geratzen, bat-batean serio jartzen dira, uzkur, lotsati, ia gorriturik, profesorearen esku biziak txartel idatzia zulatzean. Ume txikien antzekoak dira, lorategi debekatu batean jolasean harrapatu dituenen jabeak, zuhaitz baten atzetik irtenda.

Iritsi dira aldapa gainera. Zer beroa! Zer giro ederra! Benta irekita dago eta bultzaka sartzen da jendetza. Espaloiaren koskan esertzen da ama haurrarekin, eta aitak basokada ilun, arre bat ateratzen dio, eta ondoren basaki sartzen da berriro ukondoka. Garagardo kiratsa dario bentari, eta ahots zarata eta ardaila.

Haizea baretu da, eta eguzkiak are gogorrago erretzen du. Bi ate birakarien kanpo aldean ume multzo trinko bat dago, euliak gozoki-txarro baten ahoan bezala.

Eta gora eta gora dator jendea aldapan, kilikariak eta panpinak hartuta, eta arrosak eta lumak. Gora eta gora murgiltzen dira argitan eta berotan, oihuka, barreka, txilioka, zerbaitek bul-tzatuko balitu bezala, azpi-azpitik, eta eguzkiak, han aurrean urruti, tiratzen ditu distira bizi, argitsu, itsugarri hartara... nora?

FAMILIA IDEAL BAT

Arrats hartan, bizitza osoan lehenbiziko aldiz, ate birakaria bultzatu eta hiru harmaila zabalak jaistean beheko espaloiraino, Neave jaun zahar-rak sentitu zuen bera zaharregia zela udaberri-rako. Hantxe zegoen udaberria —bero, gogotsu, urduri—, bere zain urrezko argitan, denen aurrean prest lasterka hasteko, bere bizar zuria-ri haize emateko, besotik goxo-goxo tiratzeko. Baina bera ezin zen harengana joan; ezin zuen beste behin bizkarra tentetu eta oinez ekin, gizon gazte bat bezain ausart. Nekatua zegoen, eta azken printzek oraindik jotzen zuten arren, hotz bitxi bat zeukan, gorputza hozmindua. Bat-batean ez zeukan kemenik, ez zeukan bihotzik ibilera alai eta bizi honi gehiagoan eusteko; txunditua zegoen. Bertan zutik gelditu nahi zuen, hura handik uxatu makilarekin, hari esan: «Alde hemendik!» Bat-batean, berealdiko lana zen egunero bezala agurtzea —makilarekin kapelu ertza ukituz— ezagun guztiak, lagunak, elaireak, dendariak, postariak, gidariak. Baina

keinu harekin batera eman ohi zuen begirada alaia, begiak kliskatze jator hura, esanez bezala: «Zuetako edozein adina edo gehiago naiz», hura inola ere ezin zuen egin Neave jaun zaharrak. Dinbi-danba oinez, goraino igotzen zituen belau-nak, ura bezain astun eta lodi bihurtutako airea zapaltzen bezala. Eta jendetza etxera bidean igaro zen presaka, tranbiak kirrinka, gurdi arinak kirrika, taxi handi balantzariak ziztuan, axola-eza anker, desafiatzaile batekin, ametsetan bakarrik agertzen dena...

Besteak bezalako eguna izan zen bulegoan. Ez zen ezer berezirik gertatu. Harold ez zen bazkaritik itzuli laurak aldera arte. Non izan zen? Zertan ibili zen? Ez zion aitari jakinaraziko. Neave jaun zaharra sarreran gertatu zen orduantxe, bezero bat despeditzen, Harold ondotik igaro zenean, beti bezala ezin hobeto jantzia, lasai, goxo, erdi irribarre txiki, berezi, emakumeen ustez hain xarmagarria ezpainetan zuela.

A! Harold oso egokia zen, egokiegia; hori izan zen arazoa denbora guztian. Inongo gizonek ez zuen eskubiderik halako begiak izateko, halako betileak eta halako ezpainak; ez zen parte one-

koa. Ama, arrebak eta mirabeentzat jainko gazte baten pare zela esatea ez zen gehiegi; goersten zuten, den-dena barkatzen zioten; eta zer barkatua izan zuen, hamahiru urterekin amari poltsa ostu zionetik, dirua hartu, eta sukaldariaren gelan ezkutatu poltsa. Neave jaun zaharrak gogor jo zuen espaloi ertza makilarekin. Baina, pentsatu zuen, ez zen familia bakarrik Harold gaizki ohitu zuena, denak izan ziren; hark begiratu eta irribarre egin orduko, aurrean belaunikatzen zitzaizkion denak. Beraz, agian ez zen harritzekoa, hark bulegoan ere beste hainbeste itzarotea. Mm, mm! Baina hori ez zen posible. Lana —ezta negozio arrakastadun, sendo, ongi ordaindu bat ere— ez zen jolasa. Gizonak gorputz eta arima jarri behar zuen hartan bere burua, edo bestela txiki-txiki egiten zen guztia...

Eta gainera Charlotte eta neskak beti ari ziren esan eta esan dena Harolden gain utzi eta erretiroa hartzeko, ongi pasatzeko. Ongi pasatu! Neave jaun zaharrak planto egin zuen antzinako palmondo batzuen azpian, Gobernu egoitzaren atarian. Ongi pasatu! Arratseko haizeak hosto ilunak astindu zituen, irriño arin airakor batekin.

Etxean eserita, besoak antxumatuta, ederki jabetuz bizitza osoko lana zihoakiola ihesi, urtzen, desagertzen Harolden hatz finen tartetik, Harolden irribarre artean...

— Zergatik duzu hain buru gutxi, aita? Ez dago inongo beharrik zu bulegora joateko. Ikus-teko ezinegona sortzen digu denoi, jendeari behin eta berriro entzuteak oso itxura nekatua darabilzula. Begira etxe puska hau eta lorategi hau. Igualeko biziko zinateke, hemen duzuna estimatzen hasiko bazina. Edo denbora-pasaren bat bazenu.

Eta Lola umeak burgoi baietsi zuen:

— Gizon guztiek behar lukete denbora-pasa bat. Bestela ez da giro beren ondoan.

Tira, tira! Ezin izan zion eutsi irribarre zakar bati, ezinean hasi zenean Harcourt Avenuera ematen zuen aldapan gora. Non egongo ote ziren Lola eta haren ahizpak eta Charlotte, berak denbora-pasa bat hartu balu, non baina? Ezin ziren denbora-pasekin ordaindu hiriko etxea eta kostako bungalowa, eta haien zaldiak, eta haien golfa, eta hirurogei gineako gramofonoa dantzan aritzeko musika-gelan. Ez zen bera zekena

gauza horietarako. Ez, neska argi, itxura ederrekoak ziren, eta Charlotte emakume bikaina; haientzat naturala zen egunean egotea. Izan ere, hiri guztian ez zegoen beste etxe bat berea bezain ezaguna; beste ezein familiak ez zituen hainbeste festa ematen. Eta Neave jaun zaharrak zenbat eta zenbat aldiz, zigarro-kutxa bultzatu erretzaile-gelako mahai gainean eta entzun zituen laudorioak emazteaz, alabez, edo bere buruaz.

— Nahikoa dugu, gazte —erantzun ohi zuen Neave jaun zaharrak—. Har ezazu hauetako bat; nik uste gustatuko zaizkizula. Eta nahiago baduzu lorategian erre, seguru asko belardian topatuko dituzu neskak.

Horregatik ez ziren neskak sekula ezkondu, jendearen esanetan. Edonorekin ezkontzeko aukera izan zuten. Baina gusturaegi zeuden etxean. Pozikegi zeuden elkarrekin, neskak eta Charlotte. Mm, mm! Tira, tira! Agian horrela...

Joana zen alderik alde Harcourt Avenue apai-nean zehar; iritsia zen kantoiko etxera, beren etxera. Zalgurdiaren atakak zabalik zeuden; gurrpil marka berriak zeuden bidexkan. Aurrean

zuen etxe handi zuriz pintatua, leihoak parez pare irekita, tulezko errezelak kanpora hegan, hiazintoen txarro urdinak koska zabaletan. Zalgurdiaren estalpeko alde bietan hortentsiak — hiri osoan ospetsuak— loratzen ari ziren; lore multzo urdinxka, arrosaxkak argia balira bezala zeuden, hosto erdi irekien artean. Eta nola edo hala, Neave jaun zaharrari iruditu zitzaion etxea eta loreak, eta baita bidexkako marka berriak ere, esaten ari zirela: «Gaztetasuna dago hemen. Neskak daude...»

Ezkaratza, beti bezala, ilunpean zegoen pakete-paperekin, eguzkitakoekin, eskularruekin, haritzezko kutxa gainetan pilatuak. Musika-gelatik piano hotsa zetorren, bizkor, ozen eta artega. Salako ate zirrikitutik ahotsak heltzen ziren igeri.

— Eta bazegoen izozkirik? —entzun zen Charlotte. Ondoren haren aulki kulunkariaren intziria.

— Iozkiak? —hots egin zuen Ethelek—. Amatxo maitea, inoiz ez duzu halakorik ikusi. Bi mota bakarrik. Eta bat marrubizko txiki arrunta, pape-ra bustita blai.

— Janari guztia zunan penagarria —iritsi zen Marionen ahotsa.

— Halere goitzo dun izozkientzat —esan zuen Charlottek airoski.

— Bai, baina salgai baldin badituzu... —hasi zen Ethel.

— Hori ere egia dun, laztana —xaramelatu zuen Charlottek.

Bat-batean musika-gelako atea zabaldu eta airean irten zen Lola. Dar-dar egin zuen, ia garrasi, Neave jaun zaharra ikustean.

— Hara hara, aita! Beldur ona eman didazu! Orain heldu zara? Zergatik ez dago hemen Charles, zuri zamarra kentzen laguntzeko?

Pianoan jardunda masailak gorri-gorri zeuzkan, begiak distiratsu, ilea kopetan behera erorita. Eta arnaska zegoen, ilunpetan barrena lasterka etorri eta beldurrez balego bezala. Neave jaun zaharrak adi-adi begiratu zion alaba gazteenari; sekula ez zuela ikusi iruditu zitzaion. Hura zen Lola, ezta? Baina aitarekin ahaztua ematen zuen; ez zegoen han zain beragatik. Orain esku-zapi bil-bil eginaren puntari hortzekin heldu eta haserre tiratu zion. Telefonoa hoska hasi zen.

Aaa! Lolak zotin antzeko oihu bat egin eta ziztuan joan zen bere ondotik. Telefonoa zegoen gelako atea danba itxi, eta orduantxe hots egin zuen Charlottek: «Zu zara, aita?»

— Orain ere nekatua zatoz —egin zion Charlottek purrustada, aulki kulunkaria gelditu eta berari aran antzeko masaila bero hura eskainiz. Ethel ile-argiak mokokada eman zion bizarrean; Marionen ezpainen belarria igurtzi zioten.

— Oinez etorri zara, aita? —galdetu zion Charlottek.

— Bai, oinez etxeratu naiz —esan zuen Neave jaun zaharrak, salako besaulki puska haietako batean bere burua botaz.

— Zergatik ez duzu taxia hartu, baina? —esan zion Ethelek—. Ehundaka ibiltzen dira ordu honetan.

— Ahizpa maitea —hots egin zuen Marionek—, aitag nahiago badu neka-neka eginda bukatu, ez dun gure kontua horretan sartzea.

— Umeak, umeak! —egin zien Charlottek gogor.

Baina Marion ez zegoen isilik egoteko.

— Ez, ama, gaizki ohitu duzu aita, eta hori ez dago ongi. Zorrotzago jokatu behar zenuke bera-
rekin. Oso bihurria da. —Bere algara ozen, gogor
hura egin eta buruko ilea zapaldu zuen ispilu
aurrean. Bai bitxia! Neska koskorretan oso ahots
leun, zalantzatia eduki zuen; total ere egin zuen,
eta orain, zernahi esanda ere —baita esateko
ere «Marmelada, mesedez, aita»—, antzeztoki
gaineko ahots bat ematen zuen.

— Zu baino lehen irten da Harold bulegotik,
maitea? —galdetu zion Charlottek, berriro kulun-
kan hasita.

— Ez dakit seguru —esan zuen Neave jaun
zaharrak—. Ez dakit seguru. Ez dut ikusi laureta-
tik aurrera.

— Esan du... —hasi zen Charlotte.

Baina une hartantxe Ethel, egunkariren
baten orriak zimurtzen arituta, lasterka joan
amarengana eta aulki ondoan bota zuen bere
burua.

— Horra, ikusten? —hots egin zion—. Hau
esan nahi nuen, ama. Horia, zilar ukituekin. Ez
zaizu iruditzen?

— Emaidan, laztana —esan zuen Charlottek. Kareizko betaurrekoak aztaka bilatu ondoren jantzi, orriari ukitutxo bat eman bere hatz txiki mozkoteekin, eta ezpainak biribildu zituen—. Zoragarria! —xaramelatu zuen ahul; Etheli begiratu zion betaurrekoen gaineratik—. Baina buztanik gabe hobeto.

— Buztanik gabe! —auhendatu zuen Ethelek tragikoki—. Baina buztana da funtsezkoa.

— Ekarri, ama, utzi erabakitzen. —Marionek jolasean kendu zion orria Charlotteri—. Arrazoi din amak —hots egin zuen garaile—. Buztanak astunegi egiten din.

Neave jaun zaharra, ahaztua, besaulkiaren altzo zabalean barneratu zen eta, lo kuluxkan, ametsetan bezala entzuten zien. Zalantzarik gabe, neka-neka eginda zegoen; ez zion bere buruari neurria hartu. Are Charlotte eta neskak gehiegi ziren berarentzat gau honetan. Zeraegi ziren... Baina bere garun logaletuari otu zitzaion bakarra izan zen: aberatsegiak. Eta han nonbait, guztiaren atzean gizon txiki zimel adineko bat ikusi zuen, eskailera amaigabe bat igotzen. Nor ote zen?

— Gaur ez naiz afaltzeko jantziko —esan zuen ahopean.

— Zer esan duzu, aita?

— Ee? Zer, zer? —Neave jaun zaharra aztortuta esnatu eta zeharka begiratu zien—. Gaur ez naiz afaltzeko jantziko —errepikatu zuen.

— Baina aita, Lucile da etortzekoa, eta Henry Davenport, eta Teddie Walkerren andrea.

— Lekuz kanpo emango duzu.

— Ondoezik zaude, maitea?

— Ez duzu lanik hartu beharrik. Zertarako dago Charles?

— Baina ez bazara gauza... —zalantza egin zuen Charlottek.

— Ederki! Ederki! —Neave jaun zaharra zutitu, eta goraka zihoan gizaseme txiki zahar harekin elkartzeko abiatu zen, jantzi-gelaraino.

Han zeukan Charles gaztea zain. Kontu handiz, dena horrexen menpe balego bezala, eskuoihal bat ari zen jartzen ur beroaren antoxinaren jiran. Bere kutuna zen Charles gaztea, musu-gorri txiki bat zela tximiniak zaintzera etorri zenetik. Neave jaun zaharra makurtu, sare-

tazko aulkian eseri leiho ondoan, hankak luzatu eta ilunabarreroko txantxa egin zuen:

— Dotore jantzazu, Charles!

Eta Charlesek, arnasa sakon hartu eta kope-ta belztuz, gorbatako orratza kentzeko okertu zen.

Mm, mm! Tira, tira! Gustura egoten zen leiho zabalduaren ondoan, oso gustura... ilunabar gozo ederra. Belarra mozten ari ziren beheko tenis-zelaian; segaren txistu biguna entzuten zuen. Aurki hasiko ziren neskak berriro tenis partidekin. Eta horretan pentsatzean entzun uste izan zuen Marionen ahotsa oihuka: «Hori da eta, lagun... Eman, lagun... O, hori da jotzea.» Ondoren Charlotte ataripetik deika: «Non da Harold?» Eta Ethelek: «Hemen behintzat ez, ama.» Eta Charlottek ezbaikor: «Esan du...»

Neave jaun zaharrak hasperen egin, zutitu eta, esku bat bizar azpian jarriz, Charles gazteari orrazia hartu eta kontu handiz orraztu zuen bizar zuria. Charlesek eskuzapi tolestu bat eman zion, erlojua eta eraztunak, eta betaurrekoen kutxatila.

— Aski duk, motel. —Itxi zen atea, eseri zen berriro, bakarrik zegoen...

Eta orain gizaseme txiki zahar hura eskailera amaigabeetan behera zihoan jangela alai, argitsu batera. Haren hankak! Armiarmarenak ematen zuten, mehe, ihar.

«Familia ideala da zurea, jauna, familia ideala.»

Baina hori egia bazen, zergatik ez zuten gelditu Charlottek edo alabek? Zergatik zebilen bakar-bakarrik, gora eta behera? Non zen Harold? A, alferrik zen ezer onik itxarotea Haroldengandik. Behera eta behera joan zen armiarma txiki zaharra, eta orduan, hura izua, jangelatik aurrera segitzen zuela ikusi zuen Neave jaunak, ataripe aldera, bidexka ilunetik, zalgurdia- ren atakatik, bulegora. Gelditu, gelditu norbaitek!

Neave jaun zaharrak dar-dar egin zuen. Jantzi-gela ilun zegoen; leihoak distira zurbila zuen. Zenbat denbora egin zuen lo? Entzuten jarri zen, eta etxe handi, airos, ilunduan zehar urrutiko ahotsak zebiltzan hegan, urrutiko hotsak. Agian, pentsatu zuen xumeki, denbora asko egin zuen

Io. Ahaztuta utzi zuten. Zer zen berarentzat hura dena —etxe hau eta Charlotte, neskak eta Harold—, zer zekien haietaz? Arrotzak ziren. Ondotik pasatu zitzaion bizitza. Charlotte ez zen bere emaztea! Bere emaztea!

...Ataripe ilun bat, erdi gordea pasio-lore aihen batekin, goibel eta itun makurtua, ulertuko balu bezala. Beso txiki, beroak zeuzkan berak lepoan. Aurpegi bat, txiki eta zurbila, berearen parera altxatu, eta ahots batek marmar egin zion: «Adio, kuttuna.»

Kuttuna! «Adio, kuttuna!» Nork hitz egin zuen? Zergatik esan zuten adio? Akats larri bat egon zen. Hura zen bere emaztea, neska txiki zurbil hura, eta gainerako bizitza osoa ametsa izan zen.

Orduan atea zabaldu zen, eta Charles gazteak, argitan zutik, eskuak gerrian zituela, soldadu gazte batek bezala egin zion oihu:

— Mahaian dago afaria, jauna!

— Banoak, banoak —esan zuen Neave jaun zaharrak.

ETXEKOANDREAREN NESKAMEA

Hamaikak. Ate hotsa.

...Ez ahal nizun galaraziko, madam. Ez zeunden lo, ezta? Oraintxe eraman diot tea etxeakoandreaki, eta katilukada eder bat gelditu denez, pentsatu dut agian...

...Ez horregatik, madam. Beti kikera bat te egiten dut azken gauza. Otoitz egin ondoren edaten du ohean, berogarri bezala. Belaunikatzen denean, nik eltzea surtan jarri eta esaten diot: «Hik etzak presarik izan *otoitz egiten* haste-ko». Baina beti hasten da irakiten, etxeakoandrea otoitzen erdira iristerako. Izan ere, madam, hainbeste jende ezagutzen dugu eta denak daude otoitzen premian, den-denak. Etxekoandreak izen zerrenda bat dauka liburu gorri txiki batean. Ai ene! Norbait berria bisitan etorri eta ondoren etxeakoandreak esaten didanero: «Ellen, ekatzen nire liburu gorri txikia», zeharo haserretzen naiz, benetan. «Beste bat», pentsatzen dut, «ohetik kanpo egonaraziko duena, edozein eguraldire-

kin». Eta gainera ez du kuxinik nahi izaten, madam; tapiz gogorrean belaunikatzen da. Hotzikara ematen dit horrela ikusteak, hainbeste ezagutzen ahal dut. Saiatu naiz engainatzen ere; edredoia zabaldu nuen lurrean. Baina hori egin nuen aurreneko aldian —haren begiratua!—, santu bat ematen zuen, madam. «Gure Jainkoak ba ote zuen edredoirik, Ellen?», esan zuen. Baina —garai hartan ni ere gazteagoa eta—, gogoia eman zidan esateko: «Ez, baina gure Jainkoak ez zuen zure adina, eta ez zekien zer zen zurea bezalako lumbagoa edukitzea». Ni bai bihurria, ezta? Baina finegia da, madam. Oraintxe tapatapa egin eta ikusi dudanean etzanda, eskuak kanpoan eta burua burkoan —polit-polita—, neure artean pentsatu dut: «Oraintxe zeure ama zena ematen duzu, haren hilotza beztitu nuenen!»

...Bai, madam, neure esku utzi zuten dena. O, zer ederki zegoen. Bere ile leunarekin kopetan kizkur fin-finak egin, eta lepoaren alde batean bioleta moreen sorta zoragarri bat jarri nion. Dotore asko zegoen bioleta haiekin, madam! Ez ditut sekula ahaztuko. Gaur gauean ere, etxeko-

andreaki begiratu eta pentsatu dut: «Orain hemen bioletak jarri eta ama zena bezalaxe».

...Azkeneko urtean bakarrik, madam. Apur bat... zera... ondoezik edo egon ondoren. Ez zuen noski sekula arriskutsu jokatu; etxeoandrerik goxoena izan zen beti. Baina nola jarri zen! Zerbait galdu zuela uste zuen. Ezin geldirik egon, ezin lasaitu. Egun osoa eskaileretan gora eta behera, gora eta behera; leku guztietan topatzen zenuen: eskaileretan, ataripean, sukaldera bidean. Eta goraka begiratu eta esaten zizun, ume baten antzera: «Galdu zaidan, galdu zaidan». «Goazen», esaten nion nik, «goazen, eta bakarka jarriko zaitut kartetan». Baina hel-tzen zidan eskutik —ni nintzen bere kuttuna— eta xuxurlatzen zidan, «Aurki idan, Ellen. Aurki idan». Tristeia, ezta?

...Ez, ez zen bere onera etorri, madam. Atake bat izan zuen bukaeran. Esan zituen azken hitzak, oso mantso, «Begira... horko... begira...» Eta joan zen.

...Ez, madam, ezin esan konturatu nintzenik. Agian beste neskak bai. Baina, izan ere, nik neure etxeoandrea besterik ez dut. Biriketako-

ak eraman zuen nire ama, nik lau urte nituela, eta aitonarekin hazia naiz, ile-apaindegi baten jabea zena. Denbora guztia dendan pasatzen nuen, mahai baten azpian, nire panpinaren ilea apaintzen; langileak kopiatzen, nonbait. Oso jatorrak ziren nirekin. Ileorde txikiak egiten zizkidaten, kolore guztietakoak, azken modakoak eta guzti. Eta hantxe egoten nintzen egun osoa, isil-isilik, bezeroak ohartu gabe. Noizean behin bakarrik egiten nuen kirik mahaiaren oihalpetik.

...Baina egun batean guraizeak lortu eta —pentsa ezazu, madam— erabat moztu nuen ilea; soil-soil utzi nuen, tximu txiki bat ematen nuen. Aitonaren haserrea! Hartu zituen aliketak —ez dut sekula ahaztuko—, heldu zidan eskutik eta hatzak harrapatu zizkidan. «Horrela ikasiko dun!», esan zuen. Hura erresumina. Oraindik marka daukat.

...Izan ere, madam, zeharo harro zegoen nire ilearekin. Mahai gainean esertzen ninduen, bezeroak etorri aurretik, eta zerbait apaina egiten zidan: kizkur handi, leunak eta goialdea izurra. Gogoratzen naiz langileak nire inguruan, eta ni serio asko aitonak emandako penikearekin,

ilea egin bitartean aitonak emana geldirik egotearren... Baina ondoren beti hartzen zidan penikea. Aitona gizagaixoa! Sutan jarri zen, nik egingdako txikizioa ikusita. Baina orduan ederki beldurtu ninduen. Badakizu zer egin nuen, madam? Ihes. Bai, ihes, txoko batetik bestera, sartu eta atera, auskalo noraino. Ai ene, polita emango nuen, eskua mantalean bilduta eta ilea koskaz beteta. Ez zuen jendeak barre gutxi egingo ni ikusita...

Ez, madam, aitonak ezin izan zuen gainditu. Ezin ninduen aurrean ikusi. Ezin zuen otordurik ere hartu, ni han banengoen. Hala, izebak hartu ninduen. Elbarria zen, tapizatzailea. Epotxa! Sofaren atzeak mozteko, gainean zutik jarri behar zuen. Eta hari laguntzen nengoela ezagutu nuen nire etxeakoandrea...

...Ez hainbeste, madam. Hamahiru urte nituen, bete berriak. Eta ez naiz gogoratzen inoiz sentitu naizenik... zera... umea, nolabait esateko. Uniformea ere banuen, eta hau eta bestea. Etxekoandreak hasiera-hasieratik apaingarriak jantzarazi zizkidan lepoan eta eskumuturretan. A bai, behin bai! Barregarria izan zen! Entzun

ezazu. Etxekoandreari bi iloba txiki etorri zitzaizkion bisitan —Sheldonen bizi ginen garai hartan—, eta azoka zegoen herri lurretan.

«Aizan, Ellen», esan zidan, «eramaitzan bi andereño txiki hauek astoan ibiltzera». Han joan ginen; poxpolin hutsak ziren; bakoitza esku bate-tik helduta. Baina astoak zeuden lekura iritsi ginenean beldur eman zien gora igotzeak. Hala, begira jarri ginen. Ederrak astoak! Gurdian ikusten ez nituen lehenbizikoak: jolasekoak, nolabait esateko. Kolore gris zilar zoragarria zuten, txalma gorri txikiak eta brida urdinak eta txilinak dilin-dalan belarrietan. Eta neska koskortu samarrak —ni baino handiagoak— zebiltzan haien gainean, gustura asko. Ez zen batere nabarmena, madam, ongi pasatzen ari ziren eta kito. Eta ez dakit zer izan zen, baina hanka txiki haiek ikusita, eta begiak —hain gozo— eta belarri leunak... berebiziko gogoia jarri zitzaidan astoan ibiltzeko!

...Ezin nuen, noski. Andereñoekin nengoen. Eta zer itxura emango nuen han goian zintzilik uniformeak jantzita? Baina egun osoan astoak eta astoak, buruan sartuta neuzkan haiexek. Norbaiti ez banion kontaktzen bertan lehertuko nintzela

iruditzen zitzaidan; nori kontatu? Baina oheratu nintzenezan —James andrearen logelan egiten nuen lo, garai hartako gure sukaldaria—, argiak itzali orduko, han azaldu zitzaizkidan astoak, dilin-dalan, haien hankatxo politak eta begi tristeak... Ba aizu, madam, gogorra da sinesteko, puska batean zain egon nintzen, lo itxura egiten, eta, halako batean, bizkarra tentetu eta marru batean hasi nintzen: «*Asto gainera igo nahi dut, asto gainean ibili nahi dut!*» Izan ere esan beharra neukan, eta pentsatu nuen ez zutela nire bizkar barre egingo, ametsetan nengoela jakinda. Bizkorra, ezta? Ume tuntun batek halakoa asma-tzea ere...

...Ez, madam, orain ja ez. Garai batean ibili nintzen pentsatzen, noski. Baina ez zen posible izan. Mutilak lore denda txiki bat zuen, kalean behera joanda, gu bizi ginenetik beste aldean. Xelebrea, ezta? Eta ni hain lore zalea. Bisitak erruz izaten genituen sasoi hartan, eta ni dendan sartu-atera ibiltzen nintzen gaur bai eta bihar ere bai, esaten den bezala. Eta Harry eta biok —Harry zuen izena— sesioan hasi ginen gauzak nola antolatu, eta hori izan zen hasiera.

Loreak! Ez zenuke sinetsiko, madam, zer loreak ekartzen zizkidan. Haren ahaleginak! Behin baino gehiagotan lirioak, eta ez naiz exageratzen ari! Bai, noski, ezkondu eta denda gainean jartzeko asmoa genuen, dena erabakia genuen, eta nik erakusleioa apainduko nuen... O, nola ipintzen nuen leihoa larunbatetan! Benetan ez, noski, baizik ametsetan. Gabonetan gorosti eta guzti, eta Pazkotan lirioak izar zoragarri batekin, dena nartzisoz egina erdian. Baita ere... bueno, nahikoa dut. Iritsi zen eguna nire bila etortzekoa zena, altzariak aukeratzera joateko. Ahaztuko ote zait inoiz? Asteartea zen. Etxeko-andrea ez zegoen oso ongi arratsalde hartan. Ez zuen ezer esan, noski; ez du ezer esaten eta ez du behin ere esango. Baina ongi antzeman nion, arropetan nola estaltzen zen ikusita eta niri galdetzka ea hotz egiten zuen, eta haren sudurtxoak ematen zuen... ihartua. Ez nuen bakarrik utzi nahi; banekien kezka horrekin egongo nintzela denbora guztian. Azkenean galdetu nion ea nahiago zuen nik dena atzeratzea. «O ez, Ellen», esan zidan, «ez larritu nigatik. Ez desilusio hori eman zure mutil gazte horri». Eta gainera hain

alai, madam, bere buruaz axolarik gabe. Inoiz baino okerrago sentiarazi ninduen. Zalantza piztu zitzaidan... orduan eskuzapia erori zitzaion eta makurtzen hasi zen, hura jasotzeko; sekula ez zuen egiten. «Zer ari zara!» egin nuen oihu, hura geldiarazteko lasterka. «Tira», esan zuen, irribarrez, aizu, madam, «hasi beharko ohitzen». O, negarrez lehertzeko zorian jarri nintzen. Apain-mahai aldera joan eta zilarra garbitzen ari banintz bezala egin nuen, baina eutsi ezin eta galdetu nion ea nahiago zuen ni... ez ezkontzea. «Ez, Ellen», esan zidan —ahots honekintxe, madam, orain ni zurekin bezala—: «Ez, Ellen, ezta ezerengatik ere!» Baina hori esaterakoan, madam —ni ispiluari begira nengoen; berak ez zekien noski ikusten nuela—, bihotzera eraman zuen bere esku txikia, bere ama zenak egiten zuen bezala, eta begiak goratu zituen... O, madam!

Harry etorri zenerako prest nituen haren gutun guztiak, eta eraztuna eta opari emandako brotze txiki pottoko bat: zilarrezko txori bat mokoan kate batekin, eta katearen azkenean bihotza daga batekin. Eder askoa! Hala, atea

zabaldu nion. Ez nion tutik esateko betarik eman. «Tori», esan nion. «Eramaitzazu zeurekin», esan nion, «akabo da dena. Ez naiz zurekin ezkonduko», esan nion, «ezin dut etxeoandrea abandonatu». Zuri-zuri! Emakume bat bezain zuri jarri zen. Danbateko batez itxi behar izan nuen atea, eta hantxe egon nintzen, dardara batean, joan zela jakin arte. Atea zabaldu nuen —ez dakit sinetsiko duzun, madam—, joana zen! Nengoen bezalaxe irten nintzen bidera lasterka, mantala eta txapinekin, eta han geratu nintzen bidearen erdian... begira. Barre onak egingo zituen ikusi ninduenak...

...Jainko santua! Zer da hori? Erlojua joka! Eta nik esna eduki zaitut. O, madam, isiltzeko esan behar zenidan... Tapa-tapa egingo dizkizut oinak? Hala egiten diot etxeoandreari ere, gauero, beti berdin. Eta esaten dit, «Gabon, Ellen. Ondo lo egin eta garaiz esnatu!» Ez dakit zer egingo nukeen hori ez balit esango.

...Ai ene, batzuetan pentsatzen dut... zer egin beharko ote nukeen baldin eta bera... Baina tira, pentsatzeak ez du onik ekartzen, ezta, madam? Pentsatzea alferrik da. Ez dut sarri egiten. Eta

noizbait hala banago, gogor egiten diot neure buruari: «Aizan, Ellen. Orain ere horrela? Tuntu-na! Zeregin hoberik ez al dun, pentsatzen egotea baino!»